

Goienkaria

2009ko maiatzaren 22a > Egubakoitza > IX. urtea > 377. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Ordainsariak beharrezko ikusten ditut, batez ere trafikoa erregulatzeko"

Eneko Goya
Errepideetako Foru diputatua > 07



GARRAIOA

Autobus zerbitzua areagotu egingo da ekainaren 1ean hasita > 02-03

JENDARTEA


Elkartearen eguna ospatuko dute bihar ibarreko Atzegiko kideek > 04

EKONOMIA

Lan aurrerakinak 8 puntu jaisteak onartu du Fagor Taldeak > 06

KIROLA

Bailarako 21 lasterkari domekan Zegama-Aizkorri maratoian > 28



G2a

Mundumira aste bukaeran

Askotariko ikuskizun, usain eta jakiek hartuko dituzte Eskoriatzako kaleak munduko kulturen jai handian. > 31-33



ERREPIDEAK > AP-1

AP-1 osoa zabalik gaurtik

Gaurtik guztiz zabalik dago Eibar-Gasteiz autobidea. Osorik zabaltzeko Arrasate eta Eskoriatza arteko zatia falta zen, eta hori ere bukatu dute. Autobidea osatzen duten 46 kilometroak egiteko -32 Gipuzkoan eta 14 Araban- 10 urte behar izan dituzte. > 05

OSASUNA > HAURDUNALDIA

Fetuan anomaliak antzemateko proba berria, laster ospitalean

GUTXI BARRU Lehen hiruhileko proba konbinatua deritzo eta bigarren seihilekoan ezarriko du Debagoieneko ospitaleak

FIDAGARRIA Proba berriak %92an antzemango ditu kromosomen anomaliak; Down sindromea, besteak beste

ARRISKURIK EZ Amniozentesia ez bezala, ez da arriskutsua; amari egindako odol analisisian eta ekografian datza > 4



AGERRALDIA Arrasateko agerraldian jende asko batu zen: sindikatuak, hainbat ordezkari politiko eta sozial, eta norbanakoak.

LEIRE KORTABARRIA

Erantzun irregularra izan zuen atzoko greba deialdiak

Grebak ez zuen Debagoiena guztiz gelditu: kooperatiba ia guztiek lan egin zuten. Enpresa batzuek greba egin zuten, batez ere, Oñatin. Merkataritzan, osa-

sunean, hezkuntzan... ere igarri zen grebaren eragina. Sindikatuen arabera, jarraipena %50ekoa izan zen Euskal Herrian. > 04

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Ekonomia > 06
Elkarrizketa > 07
Iritzia > 08
Gutunak > 10
Herriak > 11-27
Kirola > 28-30
Kultura > 33
Saillatuak > 34
Berri-zakua > 35
Eskelak > 35
Gazteak > 36
Telebista-Irratia > 37
Non-zer > 38-39

ZURE 2DEA ERAIKI

2.0 PROFESIONALAK

FAGOR  sukaldeko altzariak

%25eko deskontua
4 modelotan.

iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

GARRAIOA > AUTOBUS ZERBITZUA

Gasteizeraino autobus gehiago izango dira ekainaren 1ean hasita

ORDU ERDIRO Arrasatek, Bergarak, Eibarrek eta Donostiak Gasteizekin duten konexioa indartu nahi da; besteak beste, Arrasatek ordu erdiro izango da autobusa hara

URBANOA Lurraldebus txartela ere indartu nahi du Aldundiak; tartean, aurten Bergarako herri-autobusa ere txartelarekin ordaintzeko aukera eman nahi du

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Ekainaren 1ean hasita, Debagoieneko autobus zerbitzuak nabarmen egingo du hobera, AP-1 autobidea guztiz zabalik egotearekin batera. Batik bat, Debagoienak Gasteizekin duen konexioa asko indartuko da, eta Eibar-Bergara-Arrasate-Gasteiz ibilbidea 65 minutuan egingo da. Hobekuntza zehatzak jakinarazi zituen eguaztenean Arantza Tapia Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatuak.

Berritasunak honela laburtzen dira: Eibar-Bergara-Arrasate-Gasteiz linean, astelehenetik zapatura 19 zerbitzu eskainiko dira; 15, AP-1etik, eta beste laurak, GI-627 errepidetik. Bergara eta Gasteiz arteko zerbitzua, gaur egungo sei irteeretatik 19 izatera pasatuko da. Domeka eta jaiegunetan, lau zerbitzu izango dira.

Bestalde, Arrasate-Gasteiz-Arrasate linean, lanegunetan, Arrasatek 29 zerbitzu izango ditu, izan ere, gaur egungo zerbitzuak jarraitu egingo lukeenez, 30 minuturo irteera bat egongo da Arrasatek. Irteera horietatik 15 autobidetik izango dira, eta 14, errepidetik, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagan geldituta. Domeka eta jaiegunetan, 13 zerbitzu eskainiko dira. Hala, Gasteiz eta Arrasate artean 30 zerbitzu izango dira egunero lanegunetan, eta 13, domeka eta jaiegunetan.

Bestetik, Donostia-Gasteiz zerbitzua areagotuko da, autobidetik; orain arte, zerbitzu hori Arrasatek irtetzen zen eta AP-1en irekitako azken zatian, eta Gasteizeraino betiko bidetik jarraitzen zuen.

Bergara eta Gasteiz artean 19 zerbitzu izango dira astelehenetik zapatura; gaur egun, sei irteera daude

Donostiara doazen autobus batzuek geldialdia egingo dute Zarautzen, debagoiendar askok hala eskatuta

Beste berritasun bat da Arrasate eta Donostia artean autobidez eskaintzen diren zenbait autobusek Zarautzen gelditzea, Debagoienetik eta Urola-Kostatik jasotako eskaerei erantzunez. Hala, debagoiendarrak Zarauzko hondartzara zuzenean, eta Oriora, Zumaiara eta Getariara joan ahal izango dira.

Pesak sei autobus erosi ditu Arrasate, Donostia, Eibar eta Bergara Gasteizekin lotzeko zerbitzua areagotzeko, zerbitzu

horiek "ahalmen eta okupazio handikoak" direla ulertzen baitute. Autobus horiek teknologia eta erosotasun aurrerapen guztiak dituzte, eta Euro V delako araua –oraindik indarrean ez dagoena– betetzen dute, sostengarritasunari dagokionean.

BERGARA ETA ARRASATE

Horiek ez dira Mugikortasun Sailak planteatu dituen neurri bakarrak. Autobus bidezko garraio publikoa indartu nahi du, garraio mota horrek bizi duen goraldia aprobetxatuz eta sustatuz; izan ere, Sail horren datuen arabera, 10 urtez bidaiariak galtzen ibili ondoren, iaz lehenengo aldiz igo egin zen kopurua %13an, eta 17 milioi bidaiari izan ziren. 2009ko otsail, martxo eta apirilko denboraldian, Debagoienean, %11,89 handitu da bidaiarien kopurua, iazko tarte berearen aldean; halaber, Lurraldebus txartelarekin gehiagok ordaindu dute (%68 gehiagok inguru).

Horren arrazoietakoa bat Lurraldebus txartel bateratua izan daiteke. Hori dela eta, txartel bateratuaren barruan aukera gehiago txertatu nahi ditu Foru Aldundiak: besteak beste, Bergarako herri-autobusean ere txartelarekin ibiltzea ahalbidetu nahi du 2009an barrena. Hala ere, hori noiz eta zelan egingo den ez dago jakiterik oraindik, eta Bergarako Udalak ez eta zerbitzu hori ematen duen Sasiain enpresak oraindik ez dute horren berririk. Foru Aldundiaren asmoa da, lehenengo fase baten, urbanoko bidaiak ordaintzeko aukera ematea, baina ez



Bidaia bat, Lurraldebus txartelarekin ordaintzen, Bergarako autobus geltokian.

deskontuak lortzea; horretarako aukera indarrean sartzeko, Udalarekin ados jarri behar dira Foru Aldundiko arduradunak.

Bailaran, Arrasate da herri-autobusa duen beste herri bakarra. Datorren urtean betetzen dira hamar urte hura ezarri zela, eta esleipena bukatu egiten da; hortaz, datorren urtean zerbitzua berriz lehiaketara aterako du Udalak, eta, arduradunen esane-

tan, "badaukagu Lurraldebus txartela ezartzeko asmoa". Dena dela, gaia ondo aztertu beharko dela esaten dute, izan ere, Arrasateko herri-autobusak badauzka abantaila batzuk: hala, diruz ordainduta, euro bat da bidaia, baina abonarekin, 0,58 euro, hau da, %40ko deskontua. Deskontu hori iraunkorra da, hau da, ez da handitzen zenbat eta bidaia gehiago egin.

Non kargatu eta eskatu txartela

HERRIA	LEKUA	HELBIDEA	AUKERAK ¹
Antzuola	Altzarte gozodenda ²	Kalebarren 18	KE
Aretxabaleta	Posta bulegoa	Mitarte 17	K
Arrasate	Sagasta estankoa	Olarte 19	KE
Arrasate	Alegria estankoa	Zerkaosteta 4	KE
Arrasate	Valentin Arana	Kontzezino 12	KE
Arrasate	Portaloi kioskoa	Erdiko kalea 9	E
Arrasate	Posta bulegoa	Otalora Lizentziaduna 3	K
Arrasate	Mondragon Uniberts.	Loramendi 4	KE
Bergara	Isabel kioskoa	Bideberri pasealekua z/g	KE
Bergara	Ikasbi liburu-denda	San Lorentzo 23	KE
Bergara	Posta bulegoa	Burdiñate 1	K
Elgeta	Julian kioskoa	San Salvador 15	KE
Eskoriatza	Posta bulegoa	Aranburuzabala 4	K
Oñati	Altuna estankoa	Kalebarria 19	KE
Oñati	Illarramendi	Kalezaharra 4	KE
Oñati	Irizar estankoa	Foruen plaza 6	KE
Oñati	Ibarrondo liburu-denda	Foruen plaza 10	KE
Oñati	Hirukar liburu-denda	San Lorentzo 11	KE
Oñati	Ulma Forja	Zubillaga 3	KE
Oñati	Fagor Industrial	Santxolopetegi 22	KE
Oñati	Ulma Packaging	Garibai 28	KE
Oñati	Ulma Construcción	Otadui pasealekua 3	KE
Oñati	Posta bulegoa	Unibertsitate etorbidea 9	K

1: K: Adierazitako lekuan kargatu daiteke. E: Adierazitako lekuan eskatu daiteke.
KE: Adierazitako lekuan eskatu eta kargatu daiteke.

2: Bakarrik beste hilabete batez emango dute zerbitzu hori.



LEIRE KORTABARRIA

LURRALDEBUS TXARTELA

> Diruz birkargatuz joan behar den txartela da. Gipuzkoako autobus gehienetan ibiltzeko balio du.

> Lehenengo bidaiatik, %40ko deskontua ematen du tarifa arruntean, eta deskontua pilatuz doa. Hala, Debagoien barruan, lehenengo bidaiatik 40. bidaiaren artean, bidaiaren batek 69 zentimo kostatzen du txartelarekin, eta 1,15, txartel barik; Debagoienetik Gasteizera, 2,04 euro txartelarekin eta 3,40 txartel gabe.

> Debagoieneko 20 leku baino gehiagotan tramitatu daitezke, inprimaki bat, NA edo pasaportearen fotokopia eta karnet tamainako argazki batekin. 4 euro da.

> Umeek, 10-24 urte artekoak, 65 urtetik gorakoak, gutxituek, familia ugariak eta oinarrizko errentadunek deskontu bereziak dituzte.



Lurraldebus zerbitzuetarako txartela.

Urbanoak alde batera utzita, txartelarekin beste garraio bide batzuetan bidaiatzeko aukera eman nahi du Diputazioak -Renfe, Eusko Tren eta taxietan, besteak beste. Hasieran, Lurraldebus txartelak soilik bidaiak ordaintzeko balioko luke horietan, baina Tapia diputatuak nahi du "lehenbailehen" deskontuen abantaila ere eman ahal izatea trenean bidaiatzeagatik.

Debagoieneko taxi-gidari batzuei galdetuta, eurek ere ez dute asmo horien berri oraindik. Lurraldebusen iturriek esan dutenez, oraindik "asmoak" dira neurri horiek guztiak.

Edozelan ere, Foru Aldundiak argi dauka bere helburua: etorkizunean, txartel bakar batek sarbidea ematea mota guztietako garraio publikoetara Gipuzkoan, eta deskontuak ematea.

IBARREAN, 11.652 TXARTEL

Lurraldebus Txartelak arrakasta polita du Debagoienean. Hala, Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Sailak esandakoaren arabera, 11.652 txartel daude Debagoienean; gehien Arrasaten egin dira (4.236); segidan, Bergaran (3.005), Aretxabaletan (1.729) eta Oñatin (1.454). Denetara, 123.805 txartel bakar daude, eta horietatik 25.766 behar bereziak dituzten taldeei dagozkie. 2009ko urtarrietik aurrera, erabiltzaileek milioi bat eurotik gora erabili dute txartela kargatzeko, eta apirilaren 21ean, txartel bakarraren laneguneko marka gainditu zen: bidaiaren %72,66 txartelarekin ordaindu ziren. Txartela gehien erabiltzen den enpresen artean dago Pesa: seigarrena da, lanegunetan %70,5eko erabilpen tasarekin.

Lehenengo bidaiatik deskontuak lortzen dira: lehenengo bidaiaren, %40 deskontatzen da tarifa arruntetik. Deskontuak metatu egiten dira; hala, 41. bidaiatik aurrera, %70eko deskontua lortzen da, eta 71. bidaiatik aurrera, %90ekoa. Hilero egiten diren bidaiak zenbatzen dira; hil bakoitzean, zenbatzailea zeroan jartzen da berriz. Zenbait taldek abantaila bereziak dituzte: hala, 10 urte arteko umeek doan bidaiak dezakete; 10-24 urte artekoak %20ko hobaria dute txartela kargatzerakoan; 65 urtetik aurrerakoak ere berdin, eta baita %65eko edo gehiagoko gutxitasuna dutenek; oinarrizko errenta jasotzen dutenek %100eko hobaria dute; eta maila orokorreko eta bereziko familia ugarietako kideek %20ko eta %50eko deskontuak dauzkate, hurrenez hurren.

BERRIKUNTZAK

> ARRASATE-GASTEIZ

Arrasate eta Gasteiz arteko zerbitzua AP-1etik areagotuko da. Gaur egun dagoen zerbitzuak jarraitu egingo duenez, ordu erdira izango da autobus bat Arrasatetik: bat AP-1etik eta bat ohiko bidetik, GI-627 errepidetik.

> EIBAR-GASTEIZ

Nabarmen gehituko dira Debagoiena eta Debabarrena Gasteizekin lotzen dituzten zerbitzuak: astelehenean zapatuta, 19 zerbitzu eskainiko dira guztira Eibar eta Gasteiz artean, Bergara eta Arrasatetik barrena; horietatik 15, AP-1 autobidetik, eta beste laurak, GI-627tik. Bergara eta Gasteiz arteko zerbitzua seitek 19 irteerara pasatuko da.

> DONOSTIA-GASTEIZ

Donostia eta Gasteiz artean, 17 zerbitzuek lotuko dituzte bi hiriburuak astelehenean egubakoitzera, AP-1 autobidetik. Zapatuetan, 16 zerbitzu izango dira bi noranzkoetan, eta 15, domeka eta jaiegunetan.

> ZARAUTZEN GELDITU

Donostia-Bergara-Arrasate-Donostia linea Zarautzen geldituko da, Debagoieneko eta Urola-Kostako hainbat eskaerari erantzunez. Autobusa autobidetik irtengo da eta suhiltzaileen etxearen aurreko biribilgunean geldituko da. Horrela, debagoien-darrak Zarautzko hondartzara zuzenean joan ahal izango dira, eta baita Orrio, Zumaia eta Getariara ere.

> GASTEIZERA, 2,04 EURO

Lurraldebus txartelarekin ordaindu ahal izango dira bidaiak guztiak, eta deskontuak izango dira. Hala, Arrasate eta Gasteiz arteko bidaiak 2,04 euro kostatuko da lehen bidaiatik; tarifa arrunta 3,40 euro da.

> 65 MINUTUAN

Donostia eta Gasteiz arteko ibilbidea 75 minutuan egin ahal izango da, eta Eibar-Bergara-Arrasate-Gasteiz artekoa, 65 minutuan. Pesak sei autobus berri ditu zerbitzu horiek emateko.

ASTELEHENEKO
Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Maiatzeko zozketa

Sariak irabazteko

HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 40 euro

LIBURUAK

Umeentzat liburu sorta.
BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra



ESKOLA PUBLIKOAREN JAIAREN PACK-A

Eskola publikoaren jaiaren Pack-a.
BIDALI AG OBATU 5533 zkra.



MUNDUMIRA PACK

Mundumirako pack-a.
BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.



LIBURUA

Bernardo Atxagaren
"Markak" liburua.
BIDALI AG MARKAK 5533 zkra.



JOKOA

"AUSKALO" jokua +8 umeentzat.
BIDALI AG AUSKALO 5533 zkra.



SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L. Abuinen eskutik

J.L. ABUIN / PUY BIDEBURU

25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia
639 02 47 14

S. Josepe, 10
943 77 01 33

Kiroldegia
943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

OSASUNA > GINEKOLOGIA

Gertu da anomaliak detektatzeko jaio aurreko programa

Debagoieneko ospitaleak bigarren seiuhilekoan ezarriko du lehen hiruhileko proba konbinatua

Proba berriak %92an antzemango ditu anomaliak eta beste proben arriskuak gutxituko ditu

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Debagoieneko ospitaleak kromosomen gaineko anomaliak detektatzeko jaio aurreko programa berria jarriko du abian datozen hilabeteotan. Hain zuzen, lehen hiruhileko proba konbinatua moduan ezagutuko dena aurtengo bigarren seiuhilekoan ezarriko dela jakinarazi dute asteon.

Horrekin batera, gaineratu dute martxan jarri behar duten programa haurdun dauden eta haurdunaldiaren kontrola egitera Osakidetza joaten diren emakume guztiendako zuzen-duta dagoela.

ARRISKUAK GUTXITU

Proba horren bidez, Osakidetza kromosomen gaineko anomaliak ahalik eta azkarren antzematea du helburu. Down sindromearen eta kromosomen lotutako bestelako anomaliak

lien detekzio goiztiarra atzematea, hain zuzen; %92an atzematen du. Proba berri horrekin, gainera, amniozentesia eta horrek eragiten dituen arriskuak ekidingo dira; tartean, fetuaren heriotzarik eragiten ez duela jakinarazi dute.

BI AZTERKETA

Bestalde, kromosomen gaineko anomalia izateko arrisku handia duten haurdunaldiak detektatzeko ospitalean jarraituko duten prozesuaren gaineko azalpenak ere eskaini dituzte. Hala, haurdun dagoen emakumeari bi azterketa egingo dizkiote: batetik, haurdunaldiaren ohiko lehen kontrolean egiten diren analisiekin batera horretarako analisi zehatza egingo diote. Eta bigarren azterketa fetuaren lepoaren zatia neurtzean datza, lehen hiruhileko kontroleko ekografian egingo dena.

BORONDATEZKOA

Ospitaletik gogorarazi dute, hala ere, lehen hiruhileko proba konbinatua egitea borondatezkoa izango dela eta emakumeek beti izango dituztela osasun arloko profesionalen laguntza eta zalan-tza guztiak argitzeko behar duten informazioa.

Horretaz aparte, proba horren bidez anomaliarik igarritz gero, emakumeak beharrezkoa den informazio guztiak jasoko duela azaldu dute; ondoren, haurdunaldirako egokiena izango den erabakia har dezan.

> POLITIKA

Demokraziako lehen alkatei omenaldia egin diete asteon

Joan den eguaztanean Txillida-Lekun egindako batzarrean, Eudelek demokrazia garaiko lehen alkateak omendu zituen. Hasieran, elkarte buru Jokin Bildarratzek garai hartako alkate guzti horien lana txalotu zuen. Alkate izatea "boka-zioa" dela aipatu zuen: "Herriarekiko maitasuna eta zerbitzurako borondatea da. Eta bokazio hori, euskaraz esaten den bezala, musu-truk egiten da". Horretaz gain, etorkizunera begirako erronka nagusienak ere aipatu zituen Bildarratzek.

Jarraian, mahai-ingurua egin zuten 1979an kargua hartu zuten alkate batzuen artean; tartean, Arrasateko Jose Antonio Ardantza eta Elgetako Patxi Basauri alkate ohiek izan ziren batzar horretan.

> GIZARTEA

Aurtengo Atzegi eguna Arrasaten ospatuko dute bihar, zapatua

Debagoieneko Atzegi urtero antolatzen duen elkartearen eguna Arrasaten izango da aurtengo. Bihar, zapatua, jarri dute hitzordua.

Ekitaldiak eguerdian hasiko dira, berbaldi batekin. Gipuzkoako Atzegiko presidente ohi Jose Luis Basokok hitzaldia eskainiko du, 12:00etan, Kulturaren. Basokok hara joaten diren artean sor daitezkeen zantzak ere argituko ditu.

Jarraian, 14:00ak aldera, bazkaria egingo dute Uarkape pilotalekuan. Antolatzaileek jakinarazi digutenez, aurtengo 130 lagun inguru elkartuko dira mahaiaren bueltan. Bazkaldu ostean, dantzaldia izango dute. Etxeko txikiendako, berriz, jolasak antolatu dituzte pilotalekuan bertan.



Bergara (irudian) eta Aretxabaletako dendak itxita egon ziren egun osoan.

LEIRE KORTABARRIA

EKONOMIA > MAIATZAREN 21EKO GREBA

Kooperatibek lan egiteak eragin handia izan zuen greban

ELA, LAB, ESK, STEE, EHNE eta Hiru sindikatuen ordezkariak "pozik" azaldu ziren, baina onartu zuten kooperatibek pisu handia izan zutela

GOIENKARIA > BERGARA

Egueneko greba orokor deialdiak erantzun desberdina izan zuen sektorearen arabera. Oro har, gehiengoak izan ziren lana normal egin zuten jarduerak.

Deialdiak apenas izan zuen arrakastarik kooperatibetan -Fagor eta Ulma taldeek eta Euskadiko Kutxak, adibidez, lan egin zuten, eta gainerako gehientsuenek ere bai-, eta enpresetan ere, askok lan egitea erabaki zuten. Beste batzuetan, bozketarik ez zen egon edo bozketa ez zen loteslea izan; horietako gehienetan, langile gehienak agertu ziren lanera. Hortaz, greba ez zuten jarraitu, besteak beste, Bergarako Mayc-en, Soraluken, Metagran eta Lazpiurren; Arrasateko Gelman, JMAn, Asmobin eta Joman; Antzuolako Goizper eta Matz-Errekan; Elgetako Sisteco, Elkoro eta Tapenen; eta Oñatiko Nemesio Zubian eta Betiken. Langile gehienak lanera joan ziren Aretxabaletako CVLn, Bergarako Tavexen, Arrasateko Gelman edo Eskoriatzako Tesan. Jarraipena irregularra izan zen Polmetasan eta Union Cerrajeran.

Jarraipen handia izan zen Oñatin, eta greba egin zuten Hijos de Juan de Garay, Cegasa, Zahor, Staedler eta Chinchurreta enpresetako langileek. Greba egin zuten beste enpresa esanguratsu batzuk hauek izan ziren: Arrasateko Lasa eta Moldcam; Bergarako Torunsa eta TTT; Eskoriatzako Zubia Pateak; Antzuolako Elay eta Balzers-Elay; eta Elgetako Recyde.

Itxita egon ziren Bergarako eta Aretxabaletako komertzio gehienak, eta Arrasateko Ibai-Arte elkarteak ere bat egin zuten deialdiarekin, 18:30ean itxita erabakita; hala ere, egun osoz itxita egon ziren hainbat komertzio. Sindikatu deitzaileek onartu zuten jarraipena "irregularra" izan zela, baina "egoera ekonomikoa kontuan hartuta, merkatarik txikiak egin duten ahalegina eskertzen dugu", esan zuten sindikatu deitzaileek.

Mankomunitateko langileek greba egin zuten, eta baita udal gehienetakoek ere, Eskoriatza-

koak eta Arrasatekoak izan ezik; azken horretan, gehienek grebaren alde bozkatu zuten arren, erabakia ez zen loteslea, eta Biztanleen Arreta Zerbitzua, adibidez, zabalik egon zen.

Hezkuntzan, denetarik egon zen: ez zuten grebarik egin, besteak beste, MUko irakasleek, Arrasate, Bergara eta Oñatiko herri eskolek, Arizmendi eta Txantxiku ikastolek; greba egin zuten AEK-k, Arrasate eta Bergarako udal euskaltegiek, Aranzadi ikastolak, Mariaren Lagundiak, Ipintza institutuak, Huhezik...

Eskualde Ospitaleko, Aretxabaletako anbulatorioko eta Eskoriatzako anbulatorioko langileek lan egin zuten; Bergarako eta Oñatiko anbulatorioretan zerbitzu minimoak zituzten, eta mediku batzuk lanera joan ziren.

Garraioa izan zen eragin handienetarikoa sektore bat; Eusko Jaurlaritzaren esanetan, %50ek egin zuten greba. Pesak zerbitzu minimoak eman zituen.

AGERRALDI JENDETSUA

Sindikatu antolatzaileek baloratu zuten Oñatin grebak izan zuten jarraipen "ia erabatekoa", eta Euskal Herrian "oso erantzun ona" izan zuela esan zuten. Baita, "kooperatibek pisu handia" aipatu zuten grebaren erantzun irregularra azaltzeko, baina "pozik" azaldu ziren. Arrasaten, 18:30ean agerraldi jendetsua egin zuten, eta han izan ziren, sindikatuek gain, hainbat ordezkari politiko eta gizarte eragile asko.

Confebask-ek esan zuten greba "izugarritzako porrota" izan zela, %11-12ko jarraipenarekin. Lopez lehendakariak esan zuten grebak ez zeukala motiborik, "politikoak bakarrik".

ESANAK

"Erantzuna oso ona izan da Euskal Herrian; jendarteak ulertu du gure mezua, eta batasun sindikala begi onez ikusi du"

Jose Ramon Kortabarría > LAB

"Sektore pribatuan oso jarraipen txikia izan du grebak, batez ere industrian; enpresa ia guztiek lan egin dute"

Jon Bilbao > Confebask

GARRAIOA

Autobus zerbitzu berezia jaietarako

I. A. > BERGARA

Bergarako Udalak autobus zerbitzu berezia ipiniko du Mendekoste jaietako egubakoitz eta zapatu gauetarako, 29rako eta 30erako. Elgeta, Antzuola, Eskoriatza eta Eibar lotuko dituzte Bergararekin.

Zerbitzuak eta ordutegiak

ANTZUOLA-BERGARA-ELGETA ZERBITZUA

ANTZ	BER	ELG
00:00	00:10	00:25
01:00	01:10	01:25
02:00	02:10	02:25
03:00	03:10	03:25
04:00	04:10	04:25
05:00	05:10	05:25
06:00	06:10	06:25

ELGETA-BERGARA-ANTZUOLA ZERBITZUA

ELG	BER	ANTZ
00:30	00:45	00:55
01:30	01:45	01:55
02:30	02:45	02:55
03:30	03:45	03:55
04:30	04:45	04:55
05:30	05:45	05:55
06:30	06:45	06:55

ESKORIATZA-BERGARA-EIBAR ZERBITZUA

ESKO	BER	EIB
00:00	00:25	00:55
02:00	01:25	01:55
02:00	02:25	02:55
03:00	03:25	03:55
04:00	04:25	04:55
05:00	05:25	05:55
06:00	06:25	06:55

EIBAR-BERGARA-ESKORIATZA ZERBITZUA

EIB	BER	ESKO
00:00	00:30	00:55
01:00	01:30	01:55
02:00	02:30	02:55
03:00	03:30	03:55
04:00	04:30	04:55
05:00	05:30	05:55
06:00	06:30	06:55



Gipuzkoarrek deskontuak izango dituzte ordainleketan egindako bidaia kopuruaren arabera; betiere Gipuzkoako zatian.

GOIENKARIA

ERREPIDEAK > EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA

Bostetan zabalduko dute AP-1 autobide osoa

Ibarretik Gasteizera ibilgailu arinek 4,46 euro ordaindu behar dituzte Bergararik joateko; 4,01 euro Arrasatek; eta 3,03 euro Eskoriatzatik

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Eibartik Gasteizera autobidea osorik zabalteko Arrasatek Eskoriatzara arteko zatia (6,4 kilometro) falta zen. Bada, gaurko, maiatzaren 22ko 17:00etatik aurrera guztiz zabalik egongo da Eibartik Gasteizera autobidea.

IREKIERA

Inaugurazioa gaur, egubakoitza, ziren egitekoak, 11:00etan, Arbizelaiko zubibidean. Egotekoak ziren Markel Olano diputatu nagusia, Eneko Goia Bide Azpiegiturarako diputatua eta Borja Jauregi Bidegiko zuzendari nagusia.

Luze joan dira autobideko lanak; izan ere, lehen zatikoak, Maltzaga eta Bergara artekoak, 1999an hasi zituzten. Lan guztiak

amaítuta, AP-1 autobide osoak 46 kilometro ditu, horietatik 32 kilometro Gipuzkoan eta Araban gaintzeko 14 kilometroak.

TARIFAK ETA DESKONTUAK

Martitzenean onartu zituen Diputatu Kontseiluak autobidera-

ko tarifak. Apirilean Eskoriatzatik Arabako mugara arteko zatia zabaldu zutenetik doakoa izan da AP-1eko tarte hori. Baina tarte berria zabaldua, aurrerantzean ordaindu egin beharko da Gasteizera autobidea. Guretik Gasteizera doazen ibilgailu ari-

nek 4,46 euro ordaindu beharko dituzte Bergarako ordainleketatik sartuz gero; 4,01 euro Arrasatek; eta Eskoriatzatik, 3,03. Betiere, Etxabarri-Ibiñara joanez gero. Lukun autobidea uzten dutenek 85 zentimo gutxiago ordaindu beharko dituzte.

Tarifekin batera indarrean sartuko da deskontu sistema lehen erabileratik aurrera. Gipuzkoarrendako Gipuzkoako tartean baino ez dute balioko; Arabako mugaraino, alegia. Baina baliteke aurrerago Arabako tarterako hitzarmen bat egitea.

Lehen erabileratik zortzigarrenean %25eko beherapena izango da; bederatzigarren eta hogei-garren erabileren artean, %55ekoa; hortik aurrerakoetan, %75ekoa, betiere erabilerak hilabete baten buruan eginikoak direnean.

Ibilgailu arinendako tarifak

	EIBAR	BERGARA	ARRASATE	ESKORIATZA	LUKU	ETXABARRI
EIBAR	-	1,60 €	2,00 €	2,99 €	5,11 €	5,96 €
BERGARA	1,60 €	-	0,55 €	1,48 €	3,61 €	4,46 €
ARRASATE	2,00 €	0,55 €	-	1,04 €	3,16 €	4,01 €
ESKORIATZA	2,99 €	1,48 €	1,04 €	-	2,18 €	3,03 €
LUKU	5,11 €	3,61 €	3,16 €	2,18 €	-	0,85 €
ETXABARRI	5,96 €	4,46 €	4,01 €	3,03 €	0,85 €	-

ITURRIA: GIPUZOAKO ETA ARABAKO FORU ALDUINDIAK ETA BIDEGI.

EKINTZAILEAK 2009



ZURE ENPRESA
ZURE IDEIA

ENPRESA TXIKIENTZAKO FINANTZAKETA AUKERAK

Nori zuzendua: enpresa txikietako gerenteei eta negozio ideia berria daukatenei.

Hizlaria: Isabel Gonzalez. Prestakuntza zuzendaria. ELKARGI, EGE.

Edukia:

> Finantzaketa epearen garrantzia:

- Epe luzerako finantzaketa: mailegua, leasing-a, Finantzaketa hobarituak, dirulaguntzak.

- Epe laburreko finantzaketa: bezeroen finantzaketa, paperaren deskontua, kreditu aurrerakinak, confirming-a, factoring-a.

> Finantza produktuen elementu kostuak.

> Finantza erakundeekin negoziatzeko jarraibideak

Eguna: maiatzak 28, osteguna. Ordutegia: 17:30-19:30

Plaza mugatuak – Jardunaldietan parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea 943 79 30 90 telefonoan
Tokia: Debagoieneko Mankomunitatea –Nafarroa etorbidea 17, 2. solairua– ARRASATE
Izenematea dohainik.

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK



KRISIA > MOLDCAM

Hamabi orduko itxialdia egin zuten Moldcam-en

Enpresa itxi egingo duten beldur dira langileak; gerentziak enpresa aurrera atera nahi duela dio

U.MADERA/L.KORTABARRIA > ARRASATE Arrasateko Moldcam -saso baten, Utillajes Uribesalgo SA-enpresako 30 bat langilek itxialdia egin zuten egubakoitzeko gauek zapatu goizera arte; denetara, hamabi bat orduko itxialdia. Euren helburua hauxe zen: salatzea hiru hilabete daroatela nomina kobratu barik, eta "enpresaren itxiera" datorrela eta, horren ondorioz, "40 bat familia kalean geldituko direla", Moldcam-eko enpresa-batzordeko ordezkarien esanetan.

Hain zuzen, salatu dute "40 urtean akziodunendako irabazi asko sortzen ibili ondoren, akziodun horiek engainatzen" ari zatzaizkiela; lursaila eta pablioiak saldu egin dituztela eta enpresa deskapitalizatu egin

dutela salatzen dute, beste gauza batzuen artean. "Hori dena egin dute gure eskubideak kentzeko, lantegia itxeko eta gu esku hutsik kalera bidaltzeko", esaten du enpresa-batzordeak. Gaineratzen dute gaur egungo gerentzia ekarri zutela "enpresa itxeko" helburuarekin.

Euren egoera salatzeke egin zuten itxialdia, ELA eta LAB sindikatuen babesarekin eta lantaldeko langile guztiek ere babestuta, nahiz eta batzuek ezin izan zuten joan.

GERENTZIAREN IKUSPUNTUA

Utillajes Moldcam enpresako gerentziako ordezkariekin ere egon gara, euren ikuspuntua azaltzeko aukera izan dezaten. Zuzendaritzak onartu egin du bi nomi-

na zor dizkietela langileei, eta horren aurrean pazientzia eskatu gura izan diete. Esan dute berez enpresak badaukala lana, baina arazoa dela euren bezereko oso epe luzera begira egiten dizkietela ordainketak eta, horren ondorioz, Moldcam-eko zuzendaritzak ez daukala likideziazirik langileei ordaintzeko. Azpimarratu gura izan dute eurak ere egoera berean daudela, eta are gehiago, gerentziako langileek ez dituztela azken lau nominak kobratu. Beraz, ulertzen dutela langileek duten egonezina, baina euren eskuetan ez dagoela orain irtenbidea, banketxeek ez dutelako dirurik mailegatzten eta zenbait bezeroren itzulpen asko izan dituztelako.

Enpresa itxeko asmoari dago-kionez, guztiz gezurtatzen dute hori, eta azaldu dute oraingo gerentzia enpresa aurrera ateratzera etorri zela.



Moldcam-eko langileek soldatak ordain diezazkietela eskatzen dute, beste aldarrikapen batzuen artean.

GOIENKARIA

etxeke leihotik



Eneko Azkarate > 'eazkarate@goiena.com'

Eibar-Gasteiz: kalteak eta onurak ibarrarentzat

Eibar-Gasteiz autobidea irekiko dute gaur oso-osorik. 10 urte behar izan dituzte 46 kilometro egiteko. 1999ko maiatzaren 17an jarri zuten lehen harria Bergaran Ibarretzek eta Sudupek. Ugari izan dira buruhausteak eta ika-mikak, obra oso konplikatua izan da-eta, zubi-bide eta tunel askorekin, ibar estu, bihurri eta malkartsuan. 1.000 milioi euroko obra, zati handiena gipuzkoarrok ordainduko duguna. Errekuperatuko dugu inbertsioa, onurak asko izango dira-eta. Bi langilek heriotzarekin ordaindu behar izan dute esfortzua, eta hori errekuera ezinezkoa da.

Autobideak onurak ekarriko dizkigula dio Eneko Goiak, Bide Azpiegituretako foru diputatuak. Eta hein batean arazoia emango diot. Azkarrago, erosoago eta merkeago bidaia-tuko dugu autobidetik. Baina kalte ekologikoak ere begi-bistakoak dira, debagoiendarron aparteko ordainsaria. Eta ordainsaria gabiltzanez, larregikoak iruditzen zaizkidalda ere esango dut. Autobide osoa, ia sei euro; lehengo 1.000 pezeta. Gogoan daukat, autobidea eraiki aurreko eztabaidatan, ordainsari sozialekoa izango zela ziotela politikoei: Eibarretik Gasteizera, 400 pezeta inguru. Eta onurei dagokienez, gipuzkoarroi bai, baina arabarrei batez ere. Gure herriak hutsik, eta dendak eta fabrikak itxita ikusi nahi ez baditugu, eskualdeko herrietan bat izango bagina bezala lan egin beharko dugu.

"Ordainsariak garesti samarrak iruditzen zaizkidalda ere esango dut"

> **AP-1ek hartu nahi baditu doanekoak diren N-1 edo AP-15etik doazen ibilgailuak, tarifak merkatu edo haiek ordainpekoa jarri beharko dituzte. Eztabaida horretan daude Batzar Nagusietan eta erabakia lehenbailehen hartu beharko dute.**

> **Lurraldebus da aukera ona. Txalotzeko da garraio publikoa bultzatzeko Diputazioak egindako saiakera. Aurrerantzean, 19 zerbitzu izango dira Arrasatetik Gasteizera eta lau laguneko familia-ri, bi heldu eta bi ume, 4 euro kostako zaio bidaia.**

KOOPERATIBAK > FAGOR TALDEA

Fagorren jaitsiera, proposatutakoa baino txikiagoa

Fagor Taldeko bazkideen gehiengoak onartu egin du lan aurrerakinak 8 puntu jaitea datorren urteko martxora arte, baina batzorde mistoak proposatu zuena -11 puntu- baino gutxiago da

L.K. > ARRASATE

Fagor Taldeko bazkideek 2009ko apiriletik 2010eko martxora arteko eperako lan aurrerakinak -hau da, soldata gordina- %8 murriztea erabaki dute, krisiari aurre egiteko. Horixe da azken asteotan kooperatibarik kooperatiba Fagorreko bazkideek egin dituzten bozketen emaitza bateratuek eman dutena.

Hala ere, jaitsiera ez da izango Fagor Taldeko Batzorde Mistoa proposatutakoa, 11 puntukoa. Gainerako hiru puntuak langabeziaren kofinantzaketa eta osagarritasuna finantzatzeko izango ziratekeen, baina proposamen hori bertan behera geratu da, boto askogatik, gainera. Esate baterako, Ederlanen 700 aurkako boto izan zituen.

Fagor Taldearen historian izan den lan aurrerakin jaitsiera handiena da onartutakoa; hala ere, ez da nahikoa izango krisiak eragindako egoera nahi adina leuntzeko, izan ere, Fagor Taldeko kooperatibak galerak eta eskaera gutxiko denboraldi luzea jasaten ari dira, mundu mailako ekonomia krisiaren ondorioz; hori areagotu egin da Aste Santuaz geroztik. Taldeko iturriek diotenez, jaitsiera osoa onartu izan balitz ere, Taldeak galera handiak izango zirela aurreikusten zuen; hortaz, jaitsiera osorik onartu ez izanak egoera okertu egingo du. Hartu-

tako erabakiaren gainean, Fagor Taldeak hauxe dio: "Bizi dugun krisi sakonak jarduera ekonomikoa baldintzatzen du, eta egoera honi aurre egiteko proposatutako neurri enpresarialen lagungarri izango dira Batzarretan onartutako erabakiak". Horrez gain, Fagorreko Kontseilu Orokorrak "krisi momentu hau gainditu eta garapen kooperatiboa eta honek inguruan duen eragina sustatzen jarraitzeko konpromisoa berresten" duela jakinarazi du.

Edozein modutan, Taldeko iturrien arabera, litekeena da Fagor Taldeak ezohiko batzarrak

egitea urte bukaeran edo datorren urtarrilean, krisiari aurre egiteko neurri gehiago hartzeko.

BOTOEN %56,4

Onartutako %8ko jaitsierari bazkideek emandako babes baliok emandako bozka guztien %56,4koa izan da. Guztira, 8.000 bat lagunek zuten bozkatzeko eskubidea, eta bozketak banan-banan egin dira Fagor Taldea osatzen duten kooperatibetan: Fagor Etxetresnak, Fagor Industrial, Copreci, Fagor Electronica, Fagor Ederlan, Fagor Arrasate, Fagor Automation eta Mondragon Assembly.

Gaur zabalduko dute, azkenean, Eibar-Gasteiz autobidea oso-
osorik. Ia 6 euro kostako da Eibar-
rretik Gasteizera arteko 46 kilo-
metroak autobidez egitea. Auto-
bidearen inaugurazio ekitaldia
11:00etarako dago iragarrita
Arbizelaiko zubi-bidean eta
17:00etatik aurrera zabalik izan-
go da erabiltzaileendako. Dezen-
te laburragoa izango da baila-
ratik Gasteizera arteko bidaia.

Eneko Goia > Bide Azpiegituretako foru diputatua

"Ordainsarien aldekoa da Diputazioa, zirkulazioa erregulatzeko batez ere"

ENEKO AZKARATE > MUTRIKUI

Eneko Goiak dio Eibar-Gasteiz autobidea esfortzu handia izan dela gipuzkoarrondako eta etekina atera behar diogula inbertsioari. Ordainsarien aldekoa da, "zirkulazioa erregulatzeko batez ere". AP1 zabalik, Beasain-Durango eta Donostiako ingurubidea bukatzen dituztenean, aukera handiagoak zabalduko zaizkigula dio.

Zenbat kostatuko zaigu, aurrerantzean, autobidez Eibartik, Bergaratik edo Arrasatetik Gasteizera joateak?

Eibartik Etxabarri-Ibiñaraino ia sei euro kostako da, Bergaratik lau euro eta erdi, Arrasatetik lau euro eta Eskoriatatik hiru euro. Hori dena ibilgailu arindako eta deskontuak kontuan izan gabe. Deskontuak %75eraino ailegatzen dira. Deskontu horiek, oraingoz, Gipuzkoako zatiari dagozkie.

Zer kostu izan du autobideak?

Arabako zatia ere kontuan hartuta, mila milioi euroko inbertsioaz ari gara, bost tramutan banatuta: lehendik bi tramu zeuden irekita; gero arabarrek ireki zuten Etxabarri-Ibiñatik Lukura artekoa; aurten, Aste Santurako, beste bat ireki dugu, eta orain azkena zabaldu dugu. Inbertsioa ez dago erabat itxita, ze orain autobidea irekitzen dugu, baina hainbat bide konpondu edo berregin behar dira Debagoienean.

1999an jarri zuten Eibar-Gasteiz autobidearen lehen harria Bergaran. Aurreikusitakoa baino beranduago zabaldu da. Zein izan da arrazoia?

Nahi baino gehiago luzatu da, baina oso obra konplikatu izan da. Ekonomikoki, Gipuzkoarendako esfortzu handia izan da eta Aldundiak ahalegin handia egin du. Eta, teknikoki, konplikazio handiak izan ditu, Deba arroa bailara zaila delako orografiari dagokionean. Autobide honek beste batzuek baino zubi-bide eta tunel gehiago ditu. Gipuzkoarroko harro senti gaitezke horrelako herri-lan bat aurrera ateratzeko gauza izan garelako.

Geratuko dira lan batzuk egiteko, batez ere Eskoriatza eta Leintz Gatzagan, ezta?

Hainbat bide erabili dira autobidea egiteko eta horiek, baserribideak gehienak, txukuntzea eta berritzea geratzen da. Lanek jarraitu egingo dute. Hortaz, auto-



Eneko Goia Mutrikan, martitzenean, han egin zuten-eta asteko Diputatuen Kontseilua.

ENEKO AZKARATE

ORDAINSARIA

"Eibarretik Etxabarri-Ibiñaraino ia sei euro kostako da, Bergaratik lau euro eta erdi, Arrasatetik lau euro eta Eskoriatatik hiru euro"

AP-1, AP-8 ETA N1

"Zirkulazioaren zati handi bat autobideetatik bideratuko da aurrerantzean"

OLANDIXOKO TUNELA

"Arrasateko Ekialdeko saihsbidea datorren urteko lehen sei hilekoan prest egongo da"

bidea, tronkoa, eginga dago eta lanak amaituta, baina inguruko bideetan jarraituko dugu lanekin.

Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak egindako ikerketa baten arabera, autobideak onurak ekarriko dizkio Arabari. Gipuzkoari ere bai?

Ez daukat zalantzarik autobide berriak onurak ekarriko dizkiola Arabari, gaur egun ere Debagoienetik jende asko mugitzen delako, batez ere Gasteizko merkataritza gunetara. Horrekin batera, beste aldea ere ikusi behar da eta Gipuzkoarendako ere, Debagoienarendako batez ere, ona izango dela iruditzen zait, komunikazio aukera askoz hobek sortzen direlako.

Donostiatik Gasteizera joateko biderik motzena izango da AP-8 eta AP-1 autobideak erabiltzea. Nazional lari trafikoa kenduko diote autobideek?

Ez dago zalantzarik; biderik motzena izango da autobideena, 13 kilometro gutxiago, hain justu ere. Trafikoaren zati handi bat, aurrerantzean, autobideetatik bideratuko da, bide laburrena erabiltzeak kostuak murriztuko dituelako, denbora eta erregaiaren kontsumoaren aldetik, ordainsaria eduki arren autobideek. Gainera, deskontu sistema aplikatuz gero, ohiko erabiltzaileendako alternatiba egokiena da autobideak erabiltzea.

Gipuzkoako errepide nagusi guztietan ordainsaria jartzea aztertu du Diputazioak?

AP-1 autobidea irekitzeak beste gogoeta bat egitera garamatza eta da Gipuzkoak sekulako esfortzua egin duela, inbertsio handiarekin, eta zorpetu egin dela inbertsio horiei aurre egiteko. Eta zer egin behar dugu? N-laren egoera kaskarrari eutsi eta autobide berriari etekinik ez atera? Ez

litzateke izango intelijentea gure aldetik eta, horregatik, eztaba da ireki dugu Batzar Nagusietan, jakiteko zein den modurik onena inbertsio hauei etekinik egokiena ateratzeko, alde soziale-
tik, eta N-lean gaur egun bizi dugun egoerari buelta emateko.

Litekeena da, hortaz, ordainsaria ezartzea N-lean?

Hori da eztabaidetako bat, baina horrekin batera, beste neurri batzuk ere baditugu. Tarifakazioaren inguruan gauza asko egin daitezke nahi ditugun fluxuak indartzeko eta besteak ahultzeko. Ordainsariak beharrezko ikusten ditut, erabiltzen duenak ordaintzeko, baina, batez ere, trafikoa erregulatzeko tresna bezala.

Beasain-Durango errepidea noiz helduko da Bergarara?

Krisiari aurre egiteko neurri moduan, urtebete aurreratu da obraren lizitazioa. Hala ere, obra konplexua izango da eta hiru urte-edo eskatuko dizkigu, AP-1 autobidearekin lotzeko. 16 bat kilometro dira eta bailara zailak dira. Leku batzuetan, gainera, Abiadura Handiko Trenarekin bat egiten du eta aldaketa batzuk egin behar izan ditugu.

Epele eta Bizkaiko zatia geratuko da egiteko...

Bizkaiko Foru Aldundiak beste egitasmo batzuei eman die lehentasuna. Edozein kasutan ere, behin Beasain-Durango Bergararaino ailegatuta, ondo osatuta geratuko litzateke lurraldea, kapazitate handiko errepideei dagokienean.

Arrasate eta Aretxabaletako saihsbideak konpontzen hasiak dira dagoeneko. Noizko?

Urte amaierara arte luzatuko dira lanak. Obra sakona da. Ez da gainetik asfalto berria botatzea bakarrik. 3,5 milioi euroko lana da. Bergarako saihsbidean zati bat ere badaukagu amaitzeko eta obrak atzeratu dira eguraldiagatik. Bergarako Amillagako biribilgunea eta ingurua berritzeko lanak ere hastear daude.

Eta Arrasateko Ekialdeko saihsbidea?

Datorren urteko lehen sei hilekoan prest egon beharko litzateke. Bestalde, AP-8ko Oriotik Donostiara arteko zatia udarako bukatuko dugu eta, gero, Donostiako bigarren ingurubidea geratuko zaigu: AP-8 berri bat.



zabalik

Andoni Urtzelai

Katarsia

Ez daukat ezer katarsi kolektiboen kontra, ez behintzat modu naturalean suertatzen direnean. Katarsi hori artifizialki bultzatu eta hauspotzen denean, ordea, histeria higuigarri eta jasangaitza baino ez da. Izan ere, azken asteotan Athleticen inguruan pairatu duguna horixe baino ez da izan, instituzio eta komunikabideetatik (ETB eta *El Correo* hurrenez hurren), bultzatutako idiotizazio kanpaina masibo bat.

Finalaren egunean, gainera, ez zuen Athleticen bakarrik galdu kopa, euskaldunok ere galdu genuen partida. San Mamesen jai erraldoia antolatuta zuten: kantariak "berto-bertokoak": La Mala Rodríguez, eta El Menton de Fogarty, pantailatan ETBren irudiak; soinua, ostera, SER irrati kateko esatariena. Arenalean beste horrenbeste, Melendi kantari eta erdara hutsezko futbol emanaldia. Toma, toma eta toma, hauxe gola Bilboko erakunde Baskoek euskal hiltzuno sartu digutena. En fin!

Eta ez da hor amaitzen kontua. Aste honetako greba orokorraren kontra jardun duten berberak inolako konplexu barik ekin zioten kopako finalaren aurreko egunetan nolabaiteko absentismo laboralaren aldeko kanpainari. Greba hain modu basatian kritikatzeko duten instituzioek nonahi antolatuta zituzten festa ospakizun ikusgarriak. Inori ez zitzaion inporta, antza, hurrengo eguna lan eguna zenik. Jakin nahi nuke Bizkaiko zenbat langile eta ikaslek egin zuten piper partidaren biharamunean... A, baina hori bai, greba egunarekin ez bezala, lanuzte justifikatua oraingo hau...

Agintariak bultzatutako katarsietan parte hartzen dudanean mozoloa sentitzen naiz, txotxongiloa. Portzietan, galduta ere zer gertatu den kontuan hartuta imajinatzen duzue zer izango litzatekeen Athleticen finala irabazi izan balu?

"Agintariak bultzatutako katarsietan parte hartzen dudanean mozoloa sentitzen naiz"

usteak uste

Irati Agirreazaldegia

Mundumira, autobidera begira

Asteburuan Mundumira. Mundua Eskoriatzara begira eta Eskoriatzako ateak mundu zabalera irekiko dira. Eskoriatzak zabalduko ditu ateak parez pare, baina Debagoienan bada beste zenbait nobedade. Ezin geratuko naiz autobidaren zati berriaren irekiera aipatu gabe. Argi ibili dira horretarako. Hainbeste denbora zain egon ostean, noizko zabaldu eta Mundumirarako. Mundua gurera ere autobidetik gerturatu beharko. Munduko kulturak nahi ditugu gertura, baina gurea ez al da bihurtu autoaren eta errepideen kultura?

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

4 urte

Iban Perez

www.goiena.net/blogak/leioha

Gaur, 2009ko maiatzaren 18a, 4 urte bete ditut *goiena.net*-eko blog komunitatean nire lehen artikulua idatzi nuenetik (...).

Euri asko egin du lehenengo artikulua horretatik. Garai onak eta ez hain onak bizi izan ditut lau urte hauetan. (...)

GOITBn botatutako saio bati esker jakin nuen blogen inguruan lehen aldiz. Ideia nagusia gustatu zitzaidan eta aste batzuetara *goiena.net* blog komunitatean blog propioa nuen. Uste dut inoiz ez dela berandu hasteko eta jende guztia animatzen dut euskal blogosfera haztera eta beraien bloga abiaraztera. Ez izan beldurrik eta animatu Interneteko komunitaterik interesgarrienetako batean parte hartzea.

4 urte izan dira, espero beste lautan jarraitzea gutxienez. Gaurkoa egun berezia da, ez soilik urtemugarengatik, eta hau primizia bat da irakurleentzat, lehen aldiz nire bizitzan literatur lehiaketa batean sari bat emango didatelako. (...).

Gorri ohiak

Angel Lertxundi

www.berria.info/blogak/lertxundi

Carlos Castilla del Pino psikiatra hil berri, haren *Pretérito imperfecto* oroitzapen liburuko perletako bat datorkit gogora. Francoren altxamenduaren lehendabiziko egunetan, Castilla del Pinoren auzo ezagun batek, ezkerreko talde batetik Falangera pasatu zena bera, *Cara al sol* jartzen zuen goizero etxeko gramofonoan, bolumen osoz, herri guztiak entzun zezan himnoa, herri guztiak jakiteko norekin zegoen konbertitu berria. Egun batez, ordea, diskoa kraskatu zitzaion punturen batean, eta diskoa hor hasi zen behin eta berri:

...rojo ayer, rojo ayer, rojo...

Psikiatra liburua idazten ari zelarrik -Aznarren urteetan- uztai-belarrak baino arrakasta gehiago izaten ari zen pozoi berri bat: Franco garaian erregimenaren kontrakoak izan eta gero, Francoren erregimena ulertu eta eskuineko posizio beligeranteenak defendatzen zituztenen benenoa.

Disko arraiatu berak agurtu du psikiatra.

koplak

Xabier Igoa

Ikasleen bitzta gogorra dala...

Asteazkenez hasi nintzen ni asterketaz asterketa. Ta azkenean eta ezkerrek behingoz ikusten da meta!

Hamabost egun pasatu ditut nire logelan sartuta. Ta jada ditut ukondoak be pixkatxo bat gastatuta!

Ta gero berriz asterketara ta hasi idazten hala! Eskumuturra aste betearen geldia egon beharko dala!

Egun guztia pentsatzen eta liburutara begira. Buruko pilak azkenerako gastatu egiten dira!

Eskumuturra, burua eta ukondoaren problema! Ta ikasleen bizia gero diote dela onena.

Pasatu dira hamabost egun eta nahikoa gogorrak. Baina gustora hartuko ditut merezitako oporrak!

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailletako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarritzako diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Post-a-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko
JaurlaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Antzinako Arrasate

Maiatzak 30 eta 31



ARRASATEKO UDALA

Amaren bularrak

Leire Aperribai Unamuno
(Emakumea eta titiduna)
Arrasate

Gaur goizean, atzoko GOIENKARIA irakurri dut eta azken orrialdean *Ahobero* atalean azaltzen denari erantzuteko asmoz idazten dut. Idatzitakoa gaizki ulertu badut, aurrez barkamena eskatzen dut. Ulertu dudanez, bada modelo emakumezko bat, Nicola McLean, haurra izan eta honi titia eman ordez ez ematea erabaki duena, bere titiei beste erabilera bat eman nahian-edo. Kuriositateak eraginda, Interneten begiratu dut zein ote den emakume hori eta haurra izan duenaren berririk ikusi ez dudan arren, konturatu naiz titiak erabiltzen dituela bere modelo lanerako.

Gorputza komertziorako erabili edo ez, ordea, beste eztabaida bat da eta ez dut oraingoan horretan sartu nahi. Kontua da emakume honek esandakoaren aurrean iritzia eman duenak diola haurrak negar egingo duela goseak izan eta amak titia ematen ez dionean, eta *Amaren bularra*

haurraren janari kantuari egiten dio erreferentzia.

Sorpresa jaso dut hau irakurtzean, uste bainuen eztabaida hau irabazia genuela emakumeok. Nire iritzia da gure titiak ez direla printzipioz inoren janari, eta guk erabakiko dugula eurekin zer egin edo zein erabilera eman. Bide batez, gure haurrarekin zein harreman izango dugun eta gugandik zer emango diogun edo ez erabakitze eskubidea ere badugula uste dut, haurraren eskubideak betetzen diren heinean. Emakume honek dio bere titiak sexurako direla, eta galdera botatzen dut: zergatik ez bularrak plazererako izan? Eta baita gorputzeko beste atalak.

Bestalde, egun, ugari dira titia ez eman edota esnea azkar mozten duten emakumeak, bakoitzak bere arrazoiei jarraiki. Horregatik ez dugu nutrizio, psikologiko edo sozial arazoak dituen haurrik. Era berean, titia ez emateak ez gaitu ama edo aita txar egiten, ez-eta neuronarrik gabeko pertsona. Beraz, zergatik ez dugu publiko egin behar (hala nahi izanez gero, behintzat) gure haurtxoari titirik eman ez izanaren arrazoa?

Beno, uste dut honenbestez ulertuko zenuela nire barneko ondoeza, emakume bezala sortu zaidana. Eskatuko nizueke, beraz, aurrerantzean iritzia ematean emakumeekiko eta beste herritarrekiko errespetuz jokatzea.

Morales de Toro

Mikel Errasti
Aretxabaleta

Aretxabaletan, *Matando los sueños, sembrando miedos...* liburuaren aurkezpenean egon nintzen. Aretxabaletar bezala, gaur egun zer garen eta nondik etorri garen eta izan dezakegun bilakaeran laguntzeko liburu baliagarria izan daitekeela uste dut. Gure herriak eta Zamorako Morales de Torok duten harremana aipatu nahi nuke.

Harreman hori, gure herrian Vasco-Navarro izeneko trenbidearen eraikitze-lanetarako etorritako Morales de Toroko lehenengo langileekin hasi zen. Urte batzuk aurrerago eginez, gure bailaran estatu espainiarrean bezala, 1934ko Urriko iraultza soziala gertatu zen, bertako ekintza entzute-

tsuena, Arrasaten, Mayor Orejaren hilketa eman zelarik.

Greba eta ekintzen aurkakako ondorengo errepresoian, Aretxabaletan 44 atxilotu egon zirela uste dut. Bertatik, 13 Morales de Torokoak zirelarik.

Datu hotz hauen atzetik, hausnarketarako aipamen txiki bat egin nahiko nuke. Analfabetismoa %40ra heltzen zen garai beltz haietan, non beharginek janaria ahora eroateko larri-larri eta jauntxo enpresa-buruen presiopean bizi ziren, Morales de Torotik etorritako pertsona hauek izandako dinamizazioa eta inplikazioa gizarte gaietan. Dinamizazio hori, gehienbat arlo sindikalean eman zelarik. Ondoren eta urte gutxira, Espainiako Gerra etorri zen. Frankistek irabazi zuten.

Ortzadarrari kolore guztiak erakustea debekatu zizkioten eta horren ordez, dena ezal-tzen zuen beltz koloreko tela sendo eta mugiezin bat jarri zuten 40 urtetan.

Behartsuak behartsuago egin ziren, zapalduak zapalduago eta ahotsik gabeak, inoiz egon izan ez balira bezala, desagertu egin ziren edo desagerrarazi egin zituzten.

Eta hori guztia zergatik? Pribilegiatu gutxiz osatutako kasta batek, beldurra zuelako. Beldurra II. Errepublika garaian amestea libre zelako. Eta ezer ez zuenak, noizbait libre izatea amestuz, noizbait bete egin zitekeela eta ametsak debekatuz, errealitatea manipulatuz zitekeelako.

Liburu honen barruan, askotan egin ez den bezala, izen-abizen eta aurpegia jartzen zaio drama honi. Bertatik bertara. Gainera, Aretxabaletan bertan ditugu testigantza horien ondorengo zuzenak. Garai haiez gutxi dakigunondako, oso aberasgarria iruditzen zait liburu hau. Seguru nago gaurkotasuna duela.

Ametsak amets, ea noiz ikusten dugun Espainiako III. Errepublika eta Euskal Herriko I. Errepublika askea.

Bukatzeke, nire eskerrik beroenak egileei, liburu hau ateratzeko, egin behar izan duten dokumentazio lanagatik. Eta, nola ez, Morales de Torotik etorritako beharginen ondorengoiei, beste herrialde batzuetatik etorritakoekin batera, Aretxabaleta hobeago bat egiten saiatu eta askotan ordainean jasotako ez ulertzeagandik.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

GURASOENTZAKO ETA 16 URTEZ GORAKO IKASLEENTZAKO GONBITA

H I T Z A L D I A :

Ingeleseko titulazioaren eragina unibertsitatean eta gure gazteen etorkizun profesionalen.

Gure seme-alaben etorkizunak kezkatzen gaitu, beraiatzat onena nahi dugu, etorkizunerako prestatu nahi ditugu.

Ingelesa pertsonen arteko komunikaziorako hizkuntza da eta hala izango da, zailtzarrik gabe. Eta mugarik gabeko lan-merkatuan askoz lehiakorragoak izan gaitzke ingelesari esker.

Hitzaldiaren ondoren bertaratuek etorkizuneko aukerei buruz ikuspegi argiagoa izango dute, irizpideekin erabaki ahal izateko.

HIZLARIAK:

Arantza Mongelos

Irakasle Eskolako koordinatzailea eta Irakasle Eskolako atzerriko hizkuntzen espezialitateko koordinatzailea, Huhezi, Mondragon Unibertsitatea.

Hizkuntzen garrantzia, Europako goi-mailako hezkuntzen espazio berrian. Erronka eta behar berriak.

Gentzane Aldekoa

Mondragon Unibertsitateko Mondragon Goi Eskola Politeknikoko nazioarteko harremanen koordinatzailea.

Unibertsitatean sartzeko profila, unibertsitate garaian nahitaez ingelesez garatu beharreko eskumenak eta enpresa hartzaileen eskariak.

Aitor Perez

LKS Selección y Formación-eko gerentea

Lan-merkatuaren eskari berriak ezagutzei dagokienez eta hizkuntzen profiletan gero eta eskari handiagoak.

Maiatzak 27

18:30ean

**Arrasateko
MONDRAGON LINGUAN**

Araba etorbidea, 4
tel. 943 71 20 55

Bertaratutakoan artean **ingeleseko ikastaroa zozketatuko da**

2 aste
Ingalaterran
edo Irlandan

M MONDRAGON
LINGUA

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Aretxabaleta > 20-21 Oñati > 22
Eskoriatza > 23 Antzuola > 24 Elgeta > 25 Aramaio > 26 Leintz Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Udala pozik dago baserriarren azokak izan duen erantzunarekin > 13



> **BERGARA**
'Xaxau' birusa izango da Pazko jaietako protagonista > 16



> **ARETXABALETA**
Eduardo Altube: 'UDAko Bazkideak harro sentiarazi gura ditugu' > 21



> **ARAMAIO**
Bost taldek joko dute Eguzkierripa Rock jaialdian, hilaren 30ean > 26

BERGARA > TEKNOLOGIA

Bergarako wi-fi konexioen mapa egiten dihardute ikasle batzuek

MIAKETA

Eskuko ekipoak hartu eta herri osoan wi-fi non dagoen antzematen ibili ziren martitzenean

MAPA

Interneten mapa bat osatuko dute, konexioa askea edo babestua dagoen ere adieraziz

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Eskuko ordenagailua, PSPa, agenda elektronikoa, poltsikoko telefonoa... eskuan hartu eta Bergarako kaleak eta auzoak oinez arakatzeko jardun zuen ikasle-irakasle talde batek joan den martitzen eguerdian. Zeren bila zebiltzan? Bada, ikusten ez den baina mapa baten isla daitekeen wi-fi seinalearen bila. Islatu ere, islatuko dute, euren miaketaren emaitzekin Bergarako wi-fi mapa egingo dutelako.

Uni Eibar-Ermua Institutuko Informatika Zikloko ikasle eta irakasleak ziren, eta euren emaitzak www.iesunibhi.com webgunetik abiatuta ikus ahal izango dira. Ikusi bakarrik ez, osatu ere bai: "Ziur jende asko dagoela albo-koaren wi-fi konexioa erabiltzen duena; bada, horiek ere gonbidatzen ditugu mapan markatzera!", zioen Gorka Guenaga irakasleak.

ZABALIK DAGOELA JAKIN EZ

Wi-fi seinalea kable barik Internetera konektatzea ahalbidetzen duen seinalea da; hori erabiltzen dute, adibidez, gero eta komertzio eta erakunde publiko gehiagok, jendeari zerbitzu hori eskaintzeko. Baina beste kasu askotan, konexioa kontratatatu duenak ez daki hori: "Konexio gehienak itxita daude, pasahitz batekin. Baina beti daude batzuk zabalik, jabeak nahita hala utzi duelako, edo ez daudelako behar bezala itxita; jabeak datorren



Uni Eibar-Ermua Institutuko ikasleak -tartean, debagoiendarrak-, Bergarako wi-fi seinaleak antzemateko gertu. LEIRE KORTABARRIA

bezala utzi du, baina pasahitzak fabrikatik datoz eta horiek hobestea komeni da konexioa babestu nahi bada", azaltzen du Gorka Guenaga arduradunak.

Konexioa aske uzteak "ez du arazorik sortzen, jendeak zerbitzu hori eman nahi badu, baina arazoa sortzen da norberak sustatzen badu bere sarean beste

inor egon daitekeela. Hortaz, jendeak jakin dezala bere konexioa zabalik egon daitekeela", gaineratzen du irakasle horrek. Arduradunek azaltzen dutenez, "egon

daitekeen arrisku txikiena da beste batzuek norbere wi-fi konexioa erabiltzea; kontzeptualki askoz arriskutsuagoa da norbere sarean ezezagunak egotea".

TAGZANIAN

Bergarako da institutu horretako ikasle-irakasleek aurten egingo duten bigarren eta azkeneko miaketa. Iaz Eibarren eta Ermuan egin zuten, eta aurten, aurretik, Ondarroan. Euren sistema sinplea da: une jakin baten, kaleko edozein lekutan geldituta, darmaten aparailuak markatuko du ea hor wi-fi konexiorik dagoen edo ez. Eta normalean, egoten dira: "Esperientziak esan digu konexio asko izaten direla; edozein lekutan, hamar baino gehiago", azaltzen dute irakasleek.

Beste herriein egin duten moduan, Bergarako datuak Interneten jarriko dituzte, denon eskerara. Konexio bakoitza aske dagoen edo babestuta dagoen, daukan potentzia... datu horiek ere Bergarako wi-fi mapan agertuko dira. Horretarako Tagzania.com webgunea erabiltzen dute, euren webgunetik klikatu daitekeena, eta edozeinek seinala dezake markatu bariko wi-fi guneren bat.

Gorka Guenaga > Arduraduna

"Leku jakin baten, hogen wi-fi konexio antzeman izan ditugu; makina bat"

L.K. > BERGARA

Beste irakasle batzuekin batera, Gorka Guenagak jardun zuen martitzenean Uni Eibar-Ermua Institutuko ikasleekin Bergarako wi-fi seinalearen arrastoa jarraitzen.

Ze ekipo ekarri dituzue wi-fi seinalea antzemateko?

Denetarik ekarri dugu, wi-fi konexioa antzemateko balio duen edozein aparailu: eskuko telefonoak, PSPak, ordenagailuak... Kontsolak ere oso modan daude, eta horiek ere balio dute wi-fi seinalea non dagoen jakiteko.

Zeintzuk dira onenak?

Eskuko ordenagailuek fama hobea dute, konexio gehiago hartzen dutela-eta, baina bateriarik gabe gelditzen dira; hala, oinez joanez gero tarte baten, ordu betera, ordenagailu horiek arazoak ematen hasten dira; kontsolak, PSPak, eskuko telefonoak... aldiz, uneoro daude funtzionatzen. Eskuko ordenagailuei, urruntzen goazen neurrian, bateria gastatzen zaie. Dena dela, bakoitza berean, denak dira onak.



L.K.

Beste herrialde batzuekin alderatuta, eta zuek ikusi duzuenaren arabera, hemen wi-fi badago nahikoa sartuta?

Joan den astean Ondarroan izan ginen, eta leku jakin baten, hogen bat wi-fi konexio zeuden... makinatxo bat. Ez dakit gero jendeak erabiltzen dituen, izan ere, jende askok wi-fi jartzen du baina gero beharbada kable bidez konektatzen da Internetera. Edozein modutan, konexio hor dago.

Badago jarduera bat *wardriving* izenekoa, autoz joatea antena batekin wi-fi-ak detektatzeko eta seinale hori erabiltzeko. Hemen egiten da?

Guk hori egiten dugu, baina auto barik, oinez joaten garela; gure maila apalean, horren antzekoa egiten ari gara, beraz. [Barre]

Bada, noizean behin izaten dira egun jakin eta berezi batzuk, *hackmeeting* eta horrelakoak, eta beharbada horietan gehiago egiten dute; Bilbon zehar, beharbada, baina gure inguruan ez da egiten.



Jokin Vitoria eta Oskar Vitoria bitxiak egiteko urrea urtzen, bitxi-dendako tailerlean.

UBANE MADERA

EKONOMIA > URREA

Krisiari aurre egiteko, urrezko lingoteak salgai, "inbertsio seguru" eran

Urrezko lingoteak erostearren ez da BEZik ordaindu behar, inbertsio moduan kontsideratzen delako

UBANE MADERA > ARRASATE

Ekonomia horren aldrebestuta eta ezegonkor dagoen honetan, Arrasateko bitxi-denda batek urrezko lingoteak eskaintzen ditu "inbertsio seguru" moduan. Oskar Vitoria da bitxi-denda hori eta bertako ugazabek egoki ikusi zuten krisi garaian lingoteen eskaintza indartzea: "Krisia hasi zenean, pentsatu genuen urrea dela inbertsiorik segurua; baina dela balore bat ez dela debalutatu, eta gainera epe luzera haren balioa handitu egiten dela. Betidanik izan dugu urre lingoteak saltzeko aukera, baina orain arte ez dugu planteatu inbertsio moduan edozeinendako. Gainera, urrearen balioa segurua izateaz gainera, balio hori dago gehiago historikoan eta aurreikuspena da balio horrek goraka egiten jarraitzea", kontatu du Jokin Vitoria bitxigileak.

BALIOA EGUNERO ALDATZEN DA

Urrearen balioa Londresko burtsan ezartzen dute, eta egunero aldatzen da. Oskar Vitoria bitxigileak jakinarazitakoaren arabera, "egun batean 22.000 euro balio du eta akaso hurrengo aste-

an 22.500 balio dezake; kontua da, nahiz eta gorabeherak izan, epe luzera beti igoko dela urrearen balioa. Zergatik? Interes asko daudelako. Urrean inbertitzen dutenak oso boteretsuak dira, eta horrez gainera, orain garapen bizi-bizian dauden herriek asko handitu dute urrearen eskaera. Horrek guztiak, jakina, urrearen prezioaren igoera ekarri du orain eta ekarriko du gero ere. Beraz, etorkizunera begira ere, urrearen balioa segurua da. Jaitsi daiteke, igo daiteke, baina aurreikuspena da igotzen joango dela, eta epe luzera urrearekin galtzerik ez dela izango".

BABES BALIOA, BALIO ERANTSIA

Horrez gainera, urrea beti izan da babes balioa. Hori ere azpimarratu du Oskar Vitoriak: "Munduko ekonomian, banketxe zentralak, Ameriketako Estatu Batuetako banketxeak, adibidez, urrea dute gordailuetan; baina

Europako Banku Zentralak, Espainiakoak edo Suitzakoak ere. Hori horrela, eurak dira lehenak urreari daukan balioa ematen, eta historikoki izan da hala".

ALDEZ AURRETIK ENKARGATU

Beraz, bankuetan bai, baina bitxi-dendetan ez dute urrerik izaten lingotetan saltzeko. "Aldez aurretik enkargatu behar izaten dira. Hori bai, eskatu eta 48 bat orduan hemen dago lingotea. Izan ere, bitxi-dendan ez dugu ezer. Madrildik ekartzen dugu", kontatu du Justo Garcia bitxigileak. Hark azaldu du, adibidez, bitxiak egiteko bitxigileek erabiltzen duten urrea ez dela purua, lingoteena modukoa (24 kilatekoa), 18 kilatekoa baizik: "Bitxi bat egiteko erabiltzen den urrea nahastu egiten da zilarrarekin eta kobreakin, 18 kilateko urrea lortzeko. Egokiagoa da urre mota hori, bitxiak egiteko, 24 kilateko urrea bigunegia da eta bitxiak egiteko".

LINGOTEEN GAINEKO XEHETASUNAK

Lingote motak eta lingoteen prezioak

Bi lingote mota eros daitezke: trokelatutako lingoteak eta urrutakoak. "Trokelatutakoak txikiagoak dira: 5 gramotik hasita; eta makinaz egiten dira. Urtutakoak, berriz, lingote handiak izaten dira. Fundizioan egiten dira horiek", kontatu dute bitxi-dendakoek. 5 gramoko lingoteak dira txikiak. Halako batek balio du 145 euro; 100 gramoko lingoteak, 2.270 euro, eta 1.000 gramokoak, 22.000 euro. Normalean kilo erditik gorakoak dira inbertsioak egiteko egokiak. 500 gramoko batek, adibidez, balio ditu 11.150 euro. 5 gramokoak, berriz, normalean oparitzeko erabiltzen dira". Gainera, urrea lingotean erostean, ez da BEZa ordaindu behar izaten.

JAIK > DANBORRADA

Bihar, zapatua, dute lehen entsegua danborradakoek

Bihar neska-mutikoak elkartuko dira, eta astelehenean, berriz, helduen konpainiak

U.M. > ARRASATE

Geroago eta ozenagoak dira San Juan jaien oihartzunak geurean. Urrunago joan barik, bihar meen danborradakoek dute hitzordua aurtengo aurreneko entsegua egiteko.

Arizmendi ikastolako San Viator gunearen patioan elkartuko dira, beraz, bihar, zapatua, 11:00-etan, danborradarako ize-na eman duten 300 bat neska-mutikoak.

Biharko entsegura gerrikoa eraman behar dute guztiek, eta txikitxoek, berriz, etxean dituzten plastikozko danborrak. Hala jakinarazi du SUDCK elkarteak, San Juanetako danborrada antolatzen duen elkarteak. Elkartetik emandako xehetasunen arabera, 3-12 urte bitarteko gaztetxoek parte hartuko dute danborradan eta horien artean 3-5 urte artekoek eraman beharko dituzte plastikozko danborrak.

HELDUEN DANBORRADA

Bestalde, helduen danborradakoek datorren astean dute entsegutan hasteko hitzordua: astelehenean, San Viatorren, 20:00etatik 20:30ak bitartean.



Neska-mutikoak Erguingo eskolan, ikasturte amaierako jaietan.

GOIENKARIA

HEZKUNTZA > ARRASATE HERRI ESKOLA

Ikasturtea agurtzeko jaiak egin dute astean eskolan

U.M. > ARRASATE

Liburu eta koadernoak gorde eta jolaserako gogoak aterata ospatu dute Arrasate herri eskolako ikasturte amaierako jaiak. Txatxilipurdiren tailerrak, gurasoek ipinitako taberna... denetarik izan dute, "gurasoen laguntzarekin" antolatuta. Izan ere herri eskolako guraso elkarteak antolatutako jaiak izan da oraingo astekoa. Hain zuzen, guraso elkartetik azpimarratu

gura izan dute ospakizuna egiteaz gainera, eguazteneko jaiaren helburua izan dela "familia- ren, ikasleen eta irakasleen arteko harremanak apurtxo bat sendotzea".

Ikasturtea, berez, San Juanen aurretik bukatuko dute. Hala, hortik abuztura arte eta iraileko lehen astean guraso elkarteak umeak zaintzeko goizeko zerbitzua eskainiko duela iragarri dute (08:00-14:30).

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

BASERRIA > ZAPATUETAKO AZOKA BEREZIA

Produktu naturalak baserriatik plazara ekartzea, ohitura bihurtu guran

Joan den zapatuko azokan zortzi saltoki jarri zituzten; hurrengoa ekainaren 20an izango da

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Han eta hemen entzuten dugun krisia heldu aurretik, baserriaren egoerak ez zuen itxaropenerako aukera askorik ematen. Eta krisiak, noski, are gehiago okertu ditu gauzak. Bada, Arrasateko baserriarrek egoerari aurre egiteko erabakia hartu eta, Udalaren laguntzarekin, beste ekimen bat abiarazi gura dute: hileko hirugarren zapatuan Seber Altube plazan baserrietako produktuekin azoka berezia jartzea.

Ekimena joan den zapatuan hasi zen, zortzi saltoki ipini zituzten guztira. Marga Garmendia azoka antolatzen dabilen udal teknikariak jakinarazi duenez, lehen azoka "ondo" joan zen: "Jendea pixkanaka gerturatu zen arren, baserriarrek asko saldu zuten, eta ia produktu barik itzuli ziren baserrira".

GERTURATU ZIRENAK, EROSTERA

Baserritarrek pozik joan ziren herritarren erantzunarekin. Azken finean, azokak herritarren erantzuna behar du. Herriarrek produkturik erosten ez badute, azokak ez du aurrera egingo. Horren harira, Garmendiak Seber Altubera gerturatu zirenak erostera joan zirela adierazi du. Gainera, jende gaztea ere gerturatu izanagatik pozik agertu da Garmendia.

AZOKA, OHITURA BIHURTU

Udalaren eta baserriarren helburua da zapatuetako azoka gorpuztea eta herrian ohitura bihurtzea. Udal teknikariaren arabera, lehen azokara hurbildu zirenen artean, erosleek begi onez ikusten dute ekimena. Ez da ahaztu behar hainbat herritarrek ezin dutela eguztenetako eta egubakoitzetako azo-



Joan den zapatuko azokan asko saldu zuten baserritarrek.

JOSETXO ARANTZABAL

ketara joan eta, beraz, zapatuetako primeran datorkie gura duten produktu naturalak erosteko. Arrasatear askok, gainera, zapatu goizetan egiten dituzte eroske-

tak. Hurrengo hitzordua ekainaren 20an izango da, San Juan jaien atarian. Orduan saltzaile eta produktu gehiago egongo direla iragarri du Marga Garmendiak.

WOKA EUSKADI

Kafetxo bat, krisia nola gainditu pentsatzeko

J.B. > ARRASATE

Woka Euskadi jardunaldiak egin ziren astelehen goizean Garaia Berrikuntza Gunean. Innobasque berrikuntzaren euskal agentziak antolatu zituen World Cafe formatuan egin ziren jardunaldiak. Jardunaldiotan hainbat enpresatako langile, bezero, hornitzaile eta bestelakoek hartu zuten parte, eta helburu nagusia izan zen krisiaren gainean hausnartu eta bizi dugun krisitik irteerako proposamenak eta ekarpenak egitea.

BALIOEN ERALDAKETA

Bi galdera zehatz mahai gainera utzi zituzten solasaldietan: lehenak krisiak ekarri dituen aldaketa esanguratsuak identifikatzea zuen helburu; eta bigarrenak, aldiz, eraldaketa horretarako neurri zehatzak proposatzea.

Hainbat ondorio atera zituzten, baina bat nabarmendu zen bereziki beste guztien gainetik: pertsona, enpresa eta gizarte mailan beharrezkoa dela balioen eraldaketa.

arrasate musikal

AM

Matrikulazio epea zabalik:
Maiatzaren 18tik ekainaren 18ra.

Berritasunak: 4 urtetik aurrera
- *Harmonia moderna* Helduentzako eskolak
- *Gaita* Balleta

Tel.: 943 77 05 40



EUSKAL HERRIA

montaña • cultura • natura • natura • natura • natura

aldizkariak

aurkezten du

Mundumira

munduko kulturen festa

**Eskoriatza - DEBAGOIENA****maiatzak 22, 23, 24****OSTIRALA. Maiatzak 22**17:30 Mendi eta Bidaia Azoka.
Artisautza Azoka.19:00 Kale animazioa MLOMP (Senegal) perkusio eta
dantza taldearekin.19:30 Ikus-entzunezkoa: Josune Bereziartu eta Rikar Otegi
"Pasio bategatik elkarturik"

19:30 KORRONTZI (EH)

21:00 ZURA (EH)

22:15 DJ MAREK

23:00 17 HIPPIES (Alemania)

LARUNBATA. Maiatzak 2311:00 Mendi eta Bidaia Azoka.
Artisautza Azoka.ELKAR UMEEN GUNEA: Tombs Creatius.
Haurrentzako tailerrak.11:00 AMAMA LUISA BRASS BAND fanfarrea.
12:00 SENZALA EUSKADI CAPOEIRA TALDEaren
emanaldia (Sta. Mariñe plaza)12:00 Mundumira eszenatokia. (F. Eskoriatza plaza)
Dantza pertsiarra ROMINA GOSHTASBI (Iran).

14:00 DJ BUDIM. Mundumira eszenatokia.

18:00 ESKALADA OPENA. (pilotalekuan)

22:30 RUDE KANKA + IBAN NIKOLAI (EH)

IGANDEA Maiatzak 23

11:00 ESKALADA OPENA. (pilotalekuan)

12:00 Mundumira eszenatokia.

EDSON (Brasil) gitarrajolea.

Mundumira eszenatokia.

NEILA BENBEY (Aljeria)

Munduko Zaporeak Gunea.

**i 902 181 471**www.mundumirafesta.com

Antolatzaileak:

EUSKAL HERRIA902 181 471
www.euskalherria-aldizkaria.comDEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA
TURISMO

Babesle nagusiak



TERNUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOGizurkako Foru Akademiak
Departamentu Foral de Gipuzkoa

Babesleak:



ULMA

Obra Social
Fundación 'la Caixa'

ekar



brikada

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Kolaboratzaileak:

ALZOLA



Goiena

radioeuskadi

PEPSI

GAZTEA

KOT

WINGUR
ABENTURA

KULTURA > ANTZERKIA

Makroepaiketen gaineko satira Ander Lipus aktorearen eskutik

Amaia antzokian izango da Azeri taldearen 'Txanobarragorri' antzezlan bitxi eta ezohikoa domekan, 19:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Ander Lipus eta Bea Larrañaga aktoreek gidatutako Azeri taldearen eskutik, *Txanobarragorri* antzerkia izango da domekan Amaia antzokian, 19:30ean.

Antzezlaneko istorioari dago-kionez, bitxia edo ezohikoa dela

esan daiteke; izan ere, duela pare bat urte aldi berean izandako bi gertaeratan oinarrituta dago: alde batetik, 18/98 delako epaiketaren saio batean; eta bestetik, tortura eta bortxaketatik salaketa jarri eta identifikazio saioaren bezperako emakume

preso baten testigantza jasotzen du antzerki lanak.

SINOPSISIA

Antzezlanak epaiketa bat irudikatzen du. Gualdilandia estatuan lau zuruteko epaitzen dabil-tza koloretsuegiak izatea leporatuta. Zurutekoek daramate batek txano berdea, beste bik laranja eta laugarrenak beltza. Epaila-aren arabera inor ezin da beltzez jantzi, eta horregatik auzipetu

dituzte. Koloredunek diote eurak ez daudela beltzez jantzita. Epai-leak dio Gualdilandian *gualda* ez den beste kolore guztiak beltzak direla.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Taula gainean Ander Lipus izango da aktore nagusia. Baina soinuak, dantzak, argiak eta ikus-entzunezkoek ere lekua izango dute Azeri taldearen *Txanobarragorri* antzezlanean.

> KULTURA

Al-Andalus elkarteak Kultura Astea ospatuko du

Kultura Astearen barruan, bihar, zapatua, Santurtziko Hijos de Andalucia elkartearekin egun-pasa egingo dute. Bestalde, aste guztirako hainbat ekitaldi antolatatu dituzte: eguaztena 65 urtetik gorako bazkideei eskainitako eguna izango da eta egubakoitza, ostera, Umeen Eguna.

> ZINEMA

Astelehenetik aurrera Ekozinemaldi zikloa egongo da Kulturaten

Udalak eta Ekologistak Martxan taldeak Ekozinemaldia antolatatu dute. Emanaldiak hauek izango dira: astelehenen *La revolución de los cocos* eta *Los niños de plomo*; eguaztenez *Tambogrande* eta *Tekoha*; eta eguenean *Patagonia petrolera*. 19:30ean izango dira, Kulturaten.

> ERAKUSKETA

Pintura erakusketa hilaren 31ra arte egongo da ikusgai

Kulturaten izaten den pintura ikastaroan parte hartu dutenek ikasturtean zehar egindako artelanak erakusgai jarri dituzte. Joan den zapatuan zabaldu zuten erakusketa, Kulturaten, eta maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik. Martitzenetik domekara bitartean bisitatu ahalko da.

Valentziatik bueltan dira atletak

Valentziara joan diren atletak lan ona egin dute. Lore Marrek 3,50 metroko marka egin zuen pertika saltoan; kontuan hartu behar da gazte mailan lehenengo urtea duela. Maialen Axpek 3,30 metroko saltoa egin zuen. Oihane Urtzelaik 5,08 metroko saltoa egin zuen luzera saltoan, eta salto hirukoitzean 10,80 metrokoa. Eukene Dorronsorok 27,2 segundoko marka egin zuen 200 metroko lasterketan. Bestalde, Jonathan Perezek, Madrilan, 4,20 metroko saltoa besterik ez zuen egin pertikarekin.



ARRASATE-KANPANZAR

PUB HAIZEA

arrasate

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak osagaiak

San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

bere ustez



Iñigo Garitano

Atzoko greba

Atzoko grebaren jarraipenaren datuak jadanik ezagutuko dituzue. Hau idazteko momentuan ez ditut horiek ezagutzen, baina seguruenik gure inguruan grebak jarraipen zabalak izango zuten. Krisi ekonomiko sakon honek badirudi luzera jo dezakeela, oraindik inork ez daki hondoa jo duen sikiera. Uler dezaket sindikatuek egoera horren aurrean nolabaiteko iniziatiba hartzeko beharra izatea, krisiak bereziki langile eta gure gizartean egoera ahulenean

"Poztuko nintzateke greba eredu ekonomiko berri baterantz abiatzeko urratsa balitz"

daudenei gogor jotzen diharduelako. Uler dezaket ezkerreko alderdi politiko batzuek deialdiarekin bat egitea, krisi hau ekonomia ereduarena delako eta hori gaitzitearen beharra aldarrikatzen dutelako. Aldiz, egoera horren aurrean grebara deitzea ez dut askok babesten duten bezain argi ikusten. Greba orokorreko mezuak eta aldarrikapenak nori zuzenduak dauden ez dira, nire iritziz apalean, behar bezala argitu, eta inork ez du bere burua aipatutzat joko. Poztuko nintzateke greba eraginkorra izango balitz, eta eredu ekonomiko berri baterantz abiatzeko urratsa izango balitz. Tamalez, ez dela horrela izango iruditzen zait.

PAZKOAK > TXOSNA BATZORDEA

Jaietan barnean dugun 'Xaxau' birusa esnarazteko eskatu dute



Txosna batzordeko ordezkariak Bideberrin, txosnagunean, Xaxau birusaren irudia eta edalontziak erakusten. MONIKA BELASTEGI

Egitarau herrikoia eta berrikuntza askoduna prestatu du Txosna batzordeak; kantua eta berriro erabiltzeko edalontziak atera dituzte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Txosna batzordeko kideek Pazkoetarako prestatu duten egitaraua eta bestelako berritasunak aurkeztu dituzte asteon. Bestelako berrikuntza horiek, hain justu, asko dira: edalontziak egin dituzte, abestia, txapak... eta hori guztia pertsonaia baten bueltan: Xaxau birusa, "guztiok barruan dugun eta jaietan esnarazten laga behar dugun birusa", hain zuzen ere, batzordeko kideek azaldu zuten moduan.

EDALONTZIAK ETA ABESTIA

Edalontzien kasuan, plastikozko 4.050 ale atera dituzte, "zabor gutxiago" sortzeko asmoz. Euro baten truke erosi daitezkeen edalontzi berrerrabilgarriak dira. Bederatzi kolore ezberdinetan egin dituzte, batzordea osatzen duten taldeen kolorea zein independentzia, feminismoa eta halako ideiak irudikatuz.

Abestia ere egin dute. Egon taldeak egin du musika; Jarduneko bertso eskolak, hitzak; eta

Xabier Labaienek, grabazioa (www.myspace.com/emontaldea).

Egitaraua "sekula baino herrikoia" dela ere azpimarratu zuten batzordeko kideek, "herriko talde ugari hartu dute eta parte antolaketan". Horren adibide da, esaterako, herriko hamaika musika taldek zapatuan egingo duten rock maratonia.

Txosnagunearen antolaketa ere aldatu egingo dute. Ohi bezala, karpa azpian txosna handia egongo da eta parean ogitarteko-entako txikia. Taula, aldiz, lekuz aldatuko dute: karpa barruan egongo da, aldaparen hasieran (orain artekoaren beste muturrean) eta baxuagoa izango da, entzuleetatik gertuago egoteko.

JENDARTEA > DATU BILKETA

Herriko datu esanguratsuak web orri baten batu dituzte

'Bergara zenbakitan' web orrian, etxebizitzaren, populazioaren... datuak kontsulta daitezke

M.B. > BERGARA

Udalak *Bergara zenbakitan* delako web orria aurkeztuko du eguaztenean. Udaleko webgunean (www.bergara.net) dago lotura hori eta batzen ditu herriko zenbaki esanguratsuak. Helburua da Bergarako informazio estatistikoa biltzea eta, modu erakargarrian, herritar guztien

eskura ipintzea. Hain justu, bederatzirako jasotzen ditu: biztanleak lurraldean, jaiotzak eta heriotzak, adin eta sexu osaketa, etxeak eta familia, lan merkatua, sektore ekonomikoak, etxebizitzak, euskara eta hezkuntza.

Besteak beste, arloetan ikusi ahal izango dira herrian dagoen etxebizitzak huts kopurua, langabe kopurua, hildako eta jaiotako pertsonen kopurua... Herriaren errealitatea ezagutzeko erabilgarria izan daitezkeen informazioa, azken baten.

Gainera, Bergarako datuekin batera, eskualdeko, herrialdeko, Euskal Herriko, Europako eta mundu zabaleko errealitatea ere jasotzen da.

AURKEZPENA

Aztiker enpresak egin du lan hori, Udalaren eskariz, eta enpresa horretako soziologoek aurkeztuko dute web orria eguaztenean. Aurkezpen ekitaldia 19:00etan izango da, osoko bilkuren aretoan.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak


Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55


ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA



ALDAKETA PREMIA?



Mariaren Lagundia
ikastola

GIZARTE INTEGRAZIOKO
GOI MAILAKO TEKNIKARIA



Zure lekua bilatzen zabilta?

Plaza mugatuak

Matrikulatu ekainaren 1etik 12ra!

%100eko LANBIDERATZEA

www.mlagundia.net

Espaloia 1 Tel.: 943 76 25 40 / 41 ikastola@mlagundia.net

ONGIZATEA

Adineko ezinduak zaintzeko ikastaroa

Familiar halakoak dituztenendako prestakuntza ikastaroa da

M.B. > BERGARA

Udaleko Ongizate Sailak, Sendian programaren barruan, adineko ezinduak zaintzen dituzten familiendako prestakuntza ikastaroa antolatu du.

Ikastaroaren izenburua da *Mendeko pertsonen zaintzaileek jasan beharreko kargak (fisiko eta emozionalak)* eta hitzaldi sorta baten oinarrituta dago. Sorta horretan landuko diren gaiak hauek dira: zaintzailearen zama eta autozainketarako estrategiak; zaintzailearen sentimena; autozainketarako teknikak; mendeko pertsonarekiko komunikazioa eta gogoeta saioa ere egingo dute.

Ikastaroa izango da ekainaren 8tik 13ra, San Joxepen, 15:00-17:00 orduetegian. Izenematea da Udaleko Ongizate Sailean (943 77 91 65).

KULTURA > ERROMERIA-AFARIA

Dantza eta trikiti giroa, afalostea alaitzeko

Maiatzeko azkeneko erromeria-afaria izango da biharkoa; txartelak salgai daude kultura etxean eta Pol-Pol tabernan 12 euroren truke

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Dantzatzea gustuko dutenek aukera paregabea izango dute bihar Munibe plazan. Maiatzeko azken erromeria egingo dute; gainera, denboraldia modu aparteant bukatzeko, afaria egingo dute.

"Maiatzeko egubakoitzetan egin ditugu erromeriak. Denboraldia nahiko ondo joan da, baina beti azken erromeria izaten da arrakastatsuen", azaldu digu Maider Osa Kultura teknikariak.

TXARTELAK 12 EUROTAN

Oraingoan, egubakoitzean beharrezko zapatuan egingo dute erromeria-afaria. Afarira joan gura duenak txartelak erosi beharko ditu. Kultura etxean eta Pol-Pol



Maiatzeko egubakoitzetan egin dituzte erromeriak.

GOIENKARIA

tabernan daude salgai txartelak, 12 eurotan. Txartel guztiak saltzen ez badira, egunean bertan ere salgai jarriko dituzte.

Afaria 20:30ean izango da, Munibe plazan. Eurria egingo balu Seminarioko zutabeen patioan egingo litzateke afaria. Afariaren aurretik, ordubeteko kalejira egingo dute Izer, Alabier eta Lutxurdio trikitalariek herri-

ko kaleetan. Afariaren ondoren, erromeriaz gozatzeko aukera egongo da.

DANTZA ZALETASUNA

Lau urte dira Bergaran maiatzeko erromeriak antolatzen dituztena. "Dantza eta trikiti zaletasun handia dago herrian; erromerien bitartez biak uztartu nahi izan ditugu", dio Osak.

OMENALDIA

45 nagusi omenduko dituzte domekan

A.E. > BERGARA

San Joxepe elkarteak urteroko omenaldia egingo du domekan; aurren, 87 urte edo gehiago dituzten 45 nagusi omenduko dituzte.

Omenaldia elizkizun batekin hasiko dute. 12:00etan Santa Marinako elizan izango da elizkizuna, San Joxepe elkarteko abesbatzak lagunduta. Ondoren, elkartera joango dira eta han jarraituko dute omenaldiarekin.

DANTZAK JARDUNEN ESKUTIK

13:00etan izango da omenaldia. Omenduak aurrekuarekin agurtuko dituzte San Joxepe elkartean bertan, eta, gainera, oroigarri bana jasoko dute. Ondoren, Jardun euskara taldeak dantza batzuk eskainiko ditu.

Ospakizunekin amaitzeko, *lunch*-a egingo da joandako guztientzat. Gainera, elkarreko abesbatzak hainbat kantu herriko abestuko dituzte omenaldia girotu eta modu atseginean amaitzeko.

oharrak

JAIK

> Zubiaurre eta Martokon Igokunde jaiak ospatuko dituzte

Zapatuan 11:00etan hasiko dira jaiak, salda eta txorizoarekin. 18:00etan, txokolate jana emango du San Miguel-pe elkarteak 19:00etan doke txapelketa egongo da eta 23:00etan, dantzaldia. Domekan, berriz, igoera egongo da San Migelera, 09:00etan, eta han, meza nagusia.

HITZALDIA

> Planeten gaineko hitzaldia Ila-targi elkartearekin

Exoplanetak, eguzki sistematik kanpoko planetak delako hitzaldia egingo dute Andreu Font eta Ane Garcések hilaren 28an, 19:00etan, Aroztegi aretoan.

IKASTAROA

> Masaje ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak

Ekainaren 4an, 11n, 18an eta 25ean izango da, 19:00-21:00 orduetegian, Aranzadi ikastolan, eta eskolak Alaitz Badiolak emango ditu. Izenematea da hilaren 28a baino lehen, Jardunen (943 76 36 61). Prezioa da 17 euro bazkideendako eta 20 gainerakoendako.

ATE IREKIAK

> Miguel Altunan ate irekien jardunaldia egingo dute bihar

11:00etan hasita Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitate Elektronikoa eta Administrazio familiaria erdi eta goi mailako heziketa zikloak irakasteko dituzten baliabideak erakutsiko dituzte.

ipuin
kontaketa
zirkuitoa

XIII
2008 - 2009

Oihulari Klown
aurkezten du

(Eskozia)

Jennifer Ransay
y **Teresa Grau**
(Madril)


“Enigmas del Fuego
Anything is possible”

Colectivo Didarte
Saio bat ingelesez eta beste bat gaztelaniaz.

bergarako

Pol·Pol

maiatzak 28. osteguna
22:30ean



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

FUTBOLA > ERREGIONAL MAILA

Bergarak eta Oiartzunek bihar jokatuko dute finala, Zubietan

Preferente mailarako txartela eskuratuta, Bergarak denboraldiko azken ahalegina egin gura du bihar urtea borobiltzeko (17:00)



Ibañez korner erdiraketa errematatzeko gertu, Anaitasunakoen aurrean. J.A.

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergarak eta Oiartzunek preferentean jokatuko dute datorren denboraldian. Eurak izan dira erregionaleko bi multzoetako onenak, baina finala jokatzea geratzen da, onena zein den erabakitzea (zapatua, 17:00, Zubietan).

Mahoneroek lasai amaitu dute liga txapelketa, eta akaso, horrek ez dio taldeari mesede egingo: "Baliteke hori izatea Oiartzunek daukan abantaila handiena, azkenera arte tentsioarekin jokatu dutela. Hiru jardunaldiren faltan bigarren postuan zeuden, eta bazirudien Beti Gazte izango zela txapelduna. Azken asteotan, baina, Oiartzunek partidu guztiak irabazi ditu eta Beti Gazte aurreratu du", aurreratu du taldeko entrenatzaile Manu Diazek.

Oiartzunekin alderatuta, Bergara ere ondo ibili da azken partiduetan -nahiz eta Antzuolaren kontrako derbia galdu-, baina urte osoan zehar baino lasaiago: "Dena dela, finala partidu bakarrra da, eta nik uste asmatuko dugula behar dugun agresibitatearekin jokatzen".

OIARTZUN, TALDE TXUKUNA
Iaz multzo berean jokatu zuten Bergarak eta Oiartzunek: "Fisikoki ondo landutako taldea da, baina teknikoki ere onak dira. Ahalegintzen dira atzetik jokatzen hasten, eta esango nuke iaz eurak eta gu izan ginela futbol ikusgarriena egin genuenak".

PILOTA > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

"Azkoitiko zale asko etorriko dira Bergarara; ez daitezela gu baino gehiago izan"

Bergarako pilotariak gaur, egubakoitza, jokatuko dute itzuliko finalerdia (20:00)

X.U. > BERGARA

Bergarak 2-1 galdu zuen joan den astean Azkoitian, baina Reyes Azkoitia konbentzituratuta dago Bergarako pilotariak gauza direla gaur, egubakoitza, itzuliko partiduan (20:00, Udal pilotalekua) emaitza horri buelta emateko: "Han oso alde txikiagatik galdu genituen bi partiduak, eta uste dut hemen partidu horietako bat irabazteko gauza izango garela".

Hori lortzeko lehenengo aukera kadeteek izango dute, Beñat Resustak eta Mikel Gallastegik: "Resusta justu samra dabil eskuetatik, Azkoitin ondo sufritu zuen, baina minarekin amaitu zuen partiduak. Ea zelan errekeratzen den.

Gazte mailakoek, berriz, 22-19 irabazi zuten, eta Bergaran ere beste horrenbeste egitea espero da. Azkenik, seniorretan, Mugarutzatarrek 22-19 gal-

du zuten, eta hor ere mahoneroak ezustea emateko gauza dira.

ZALEEN BULTZADA

Joanekoan ikusle asko izan ziren pilotari azkoitiarrak animatzen: "Eta egubakoitzean ere azkoitiar asko etorriko dira Bergarara, baina ez daitezela gu baino gehiago izan. Ikusleei esango nieke etortzeko pilotalekura, etxeok animatzera. Hori bai, Andoaingo pilotariei ikusle batzuek txistu egin zieten hemen, eta hori ez da pilotalekuko giro jatorra.

BERGARA HIRIA AUERRERA

Bestalde, martitzenean jokatu zuten Bergara Hiriko lehenengo finalerdia. 23 urtez azpikoe-tan 22-10 irabazi zuten Ezkurdiak eta Peñasek.

Eta, senior mailako kanporaketa sekulakoa izan zen: "Partidua telebistan grabatu eta hamar aldiz botatzekoa izan zen. Idoatek eta Keraltek 22 eta 21 irabazi zieten Gorkari eta Larrinagari, eta partidua amaitu aurretik inor ez zen eserle-kutik mugitu egin".



JULIAN UGALDE

Beñat Lizarralde, Gipuzkoako txapeldun

Zapatuan Irunen egin zuten Eskola Arteko Txapelkean Beti Bustik bi ordezkari izan zituen, eta biak ere lanak ondo eginda itzuli ziren etxera. Batetik, Beñat Lizarralde lehenengo sailkatu zen infantil mailan, eta hirugarren urtez jarraian Gipuzkoako txapeldun bilakatu da. Bestetik, Arrasateko Asier Gonzalez bosgarrena izan zen alebinetan. Bihar, berriz, Beñat Lizarralde eta Jokin Labaien Espainiako Kopan lehiatuko dira, Irunen.

> ARETO FUTBOLA

Kopako final-laurdenak jokatuko dituzte domekan

Labegaraietako areto futbolako kopa final-laurdenetan da dagoeneko. Domekan, 16:00etan, Diego Valorrek eta Zigalikatisek jokatuko dute; 17:00etan Errota-Gainek eta Los Latinosek; 18:00etan UD Akabaoak eta Irish Pubek, eta azkenik 19:00etan Carbonerok eta Niu Timek. Norgehiagoka guztiak Labegaraietako kantxa barruan jokatuko dituzte.

Bestalde, liga amaituta, antolatzaileek eskerrak eman gura diete txapelketan parte hartu duten taldeei, txalotzeko jarrera izan dutelako.

Pazkoetako aldizkari berezia martitzenean

Martitzenean, hilaren 26an, Pazkoen gaineko gehigarria jasoko duzue zuen etxeetan. 32 orrialde koloretan izango dira, herriko jaien inguruan.



Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

trinmer
telecomunicaciones

tdt televisión digital terrestre

Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitetz TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305 Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com



Etxera eramaten dugu
Edaria, postrea eta tabakoa eramaten dugu

Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Inguruetara + 2 €

☎ 943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA



Izurietako tuneleko goiko partea konpontzen dabilta.

GARAZI ETXEBERRIA



Irudian, AP-1 autobideko Basagoitiko zubia.

G.E.

ERREPIDEAK > AP-1

Udala bost ingurune nagusitan ari da jarraipen berezia egiten

Apotzagaetxebarriko tuneleko hego ahoa; Izurietako tuneleko ipar ahoa; Egileor, Basotxo eta Basagoiti 2 deritzen inguruneak dira bost puntu horiek

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

AP-1 autobidea gaur, barikua, zabalduko dute osorik. Horrek, baina, ez du esan nahi proiektu horren gaineko lanekin amaituko dutenik. Oraindik lan asko dago egiteke. Hori behar bezala egiten dela egiaztatzeke, Udalak Garazi Etxebarria kontratatu zuen urtarrilean.

Udal teknikariak azaldu du Aretxabaletan bost puntu nagusi

si daudela: batetik, Apotzagaetxebarri tuneleko ingurunea dago. Otsailean gertatutako lur-jausia dela-eta, ainguraketa sistema erri egin zen, eta harrietak (pedregal) oina galdu zuen. Horri irtenbidea emateko, aurreikusitako habeak luzatu, ainguraketa sistema sendotu eta harrieta behar bezala lotu dutela azaldu du Etxebarriak: "Udalak tunel faltsuak egitea eskatu bazuen ere, alega-

zioa ez zen aintzat hartu". Pareta horren berreskuratzeari dagokionez, Udalak trataera berezia eman diezaiola eskatu dio Bidegiri.

EGILEOR

Bestetik, Egileor ingurunea dago, Etxebarriaren esanetan. Udalak behin baino gehiagotan eskatu dio obra zuzendaritzari proiektu bateratua egiteko, eta martxoan eskakizunekin Bidegira bida-

litako txostenean ere eskaera hori jasotzen da. Basagoitiko zonak esfortzu handia exijitzen du. Zubiaren lanak direla-eta, handik pasatzen den ubidea hodi baten barruan doa orain. Gainerako lurrak eta harrietak kendu eta hasierako ibilgua berreskuratzea eskatu dute, baita ubide inguruan eta Apotzagaetxebarri-rako maldan landareria berria jartzea ere. Horretaz aparte, Egileor ubidea eta izen bereko baserri inguruan hainbat pista berreskuratzea exijitu dute.

IZURIETA ETA BASOTXO

Izurietako tuneleko ipar ahoa ere arazo ugari eman ditu. Harrieta gaineko maldak beheheraz joera du. Horren harira, gogorazki behar da goian etxeak daudela. Obra zuzendaritza dagoeneko horrekin dabil lanean. Ainguraketa eta drainatze sistema ezarri dira dagoeneko. Hori, gainera, harrieta ainguraketa sistema baten bidez indartzeko asmoa ere badago.

Basotxori dagokionez, lanen ondorioz pinuak kamioietan ateratzeko bideak %22ko malda izatea aurreikusita dago. Lur jabeek %17koa izatea eskatu dute. Bidegiren erantzunaren zain daude.

Basagoiti 2 deritzen lur biltegirako bidea berreskuratzea ere eskatu dute, lurjabeekin batera egindako bisitan adostutako puntuetan jarraituz.

Ingurune horietako lanen jarraipena behar bezala egiten dela egiaztatzeke, astero biltzen da Etxebarria obra zuzendaritzakoekin. Horretaz gain, kalte-tuek egindako eskakizunak bideratzeaz ere arduratzen da.

EUSKARA > DIRULAGUNTZAK

Euskarazko errotulu edo webguneetarako laguntzak gertu

Horretaz aparte, euskara ikasteko edo UEU, EHU zein HIK HASIren udako ikastaroetarako eta euskararen erabilera sustatzen duten elkarteendako laguntzen deialdia egin dute

M.B. > ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak euskararekin lotutako hainbat dirulaguntza eskatzeko deialdia egin du. Batetik, 2009an egoitza errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunea edo blogak euskaraz jartzen dituzten entitateei dirulaguntzak emateko oinarriak argitaratu ziren maiatzaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Programa horren aurrekontua 2.500 euro izango da. Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko hainbat irizpide hartuko dira kontuan: errotuluen kasuan, esaterako, errotulua euskaraz bakarrik doanean kostuaren %80

izango dela laguntza eta gehienez ere 180 euro. Irudi korporatiboa gehienez 120 euro izango da. Webgune edo blogei dagokionez, kostuaren %50 izango da, eta gehienez 450 euro jasoko ditu entitateak.

EUSKARA IKASTEKO IKASTAROAK

Bestalde, Udalak euskara ikasteko edo UEU, EHU eta HIK HASIren udako ikastaroetarako dirulaguntzak aurreikusi ditu. Aretxabaletako udalerrian errolatuta dauden pertsona fisikoek eska ditzakete. Euskara ikasteko ikastaroei dagokionez, gainera, Aretxabaletako Udal Euskaltegian

izena eman beharko dute. Beka lortzeko, besteak beste, ohiko ikastaroetan gutxienez %90eko asistentzia eskatzen da eta gainerakoetan, berriz, %100ekoa. Udalak 2.000 euro bideratuko ditu programa horretarako.

ERABILERA SUSTATZEKO

Gainera, euskararen erabilera sustatzen duten elkarteek eta entitateek laguntzak eskatu ahaliko dituzte. Diruz lagundu daitezkeen programak aldizkakoak edo noizean behin egiten diren ekintzendako izan ahaliko dira. Kasu horretan, 3.450 euroko aurrekontua aurreikusi du Udalak.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Zenbaki
Aholkulariak



• Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigorzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

- **Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
- **Fiskala:** Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
- **Kontalibiltatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

Eduardo Altube > UDAko presidentea

"UDAko bazkide izateaz harro sentiarazi gura ditugu herritarrak"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Hiru bat aste dira Aretxabaleta Kirol Elkarteko presidentea dela Eduardo Altube, eta buru-belarri dabil lanean. Preferenteko taldea hirugarren mailara igotzen ikusi zuen zapa-tuan; orain dela 23 urte bezalaxe (85-86 denboraldia). Orduan zuzendaritza batzordeko idazkaria zen, eta 1990 eta 1993. urte artean presidentea izan zen.

Oraindik ez duzue egin batzar orokorrik bazkideekin.

Ez, uztailean izango da.

Aurten, lehenengoz, hauteskundeak izango zirela uste genuen, bi hautagaitza aurkeztu zinetelako, baina azkenean, ez. Konponduta daude kontuak?

Bai. Ordura arte Jokin Antxiarekin zuzendaritza taldea osatutako kideek euren buru izateko eskatu zidaten. Nik, baina, aurretik Jokinekin egon gura nuen, harreman pertsonal ona dudalako. Ordura artekoak ahazteko eskatu nion eta baietza jaso nuen. Presidente kargua onartu dut atzean dagoen giza taldea ikusi eta gero; konpromiso handia dagoela igarri dut.

Zein da zuen proiektua?

Antxiak hasitakoari jarraipena emango diogu; izan ere, kirol arloari dagokionez egitura ondo finkatuta dago. Hona lerro nagusiak: gestio eredu finkatu, egitasmo eta epeak garbi ezarrita arlo bakoitzean; organigrama ezarri, kirol koordinatzailearen figurak jarraituko duela; teknologiaren erabilera areagotu, *coaching* metodologia erabili gura dugu arlo guztietan; oinarrizko futbolari dagokionean Gipuzkoa Futbol

Sarearekin lanean jarraitu; futbol eskolaren funtzionamendua finkatu eta sustatu; Arizmendirekin adostutako akordioak mantendu; Gipuzkoako Futbol Federazioarekin elkarlanean jardun; Udalarekin dagoen harreman ona mantendu eta lankidetzak akordioak hobetu; herriko gainerako kirol federatuen integrazioa bultzatu –Murruxio eta Zaria mendizale taldeen arteko lankidetzak; oreka ekonomikoa lortu, diru-sarrerak lortuz; eta giro soziala bultzatu, UDAko bazkide izateaz harro sentitzeko.

Zaleei dagokionez, behintzat, ez duzue izango kezarik, ezta?

Ez. 700 bazkide ditu UDAk, elkarte gutxiak daukate hainbeste; hortaz, pribilegiatuak garela uste dut. Gainera, futbol zelaira zale asko joaten dira domekero; ez bakarrik preferentia ikustera, beste edozein partidutara ere bai. Benetan giro polita egoten da.

Osatu duzuen batzordean lagun asko zaudete. Lanak banatu eta hobeto funtzionatzeko da?

Bai, funtzioak banatuta ditugu eta nork bere ardura du. Hona nagusienak: presidentea, Eduardo Altube; 1. presidenteordea, Galo Sanchez; 2. presidenteordea, Jose Migel Uribarren; idazkaria, Angel Etxabe; eta diruzaina, Angel Zubillaga. Gainerakoak bokalak dira: Jon Arriola, Agurtzane Elkorro, Juan Mari Enekotegi, Jabier Etxebarria, Jesus Mari Martinez, Antonio Rajado eta Jose Ramon Saez de Gordoia.

Eta erronka handia duzue aurrez aurre: preferentia hiru-



Eduardo Altube, UDAko armariaren alboan.

MIRARI ALTUBE

"Jokin Antxiak hasitako lanarekin jarraituko dugu, kirol egitura ondo finkatuta dagoelako"

"Taldea hirugarren mailan egoteak aurrekontuan eragingo ditu aldaketak"

garren mailan. Aldaketa handia da zuzendaritzarendako?

Ez, lanerako orduan ez, baina aurrekontuari dagokionez bai. Oraindik egin barik daukagu, baina aurtengoa 150.000 euro da eta hurrengo denboraldikoak gora egingo du.

Denboraldi polita izan da aurtengoa, ezta?

Bai, saria izan da 3. mailara igotzea. Azpimarratzekoa da Igor Gorbobil eta Igor Arenatzaren lana eta jokalarien konpromisoa. Taldean oso giro polita izan da, eta guztien erdian Jabier Etxebarria, *Fito*, taldeko delegatua. Eta gazteek bi urtean bi igotzea lortu dituzte: Euskal Ligara iaz, eta Liga Nazionalera orain. Egindako lanaren fruituak jasotzen gabiltza eta ezin da ahaztu Jokin Antxiaren lana, hark hasitako proiektua delako.

UDA ez da bakarrik futbola, ala?

Ez, horixe, askotan halakoak entzun arren. Lana arlo guztietan egiten da eta asmoa guztiak indartzea da. Hona beste arloak: pilota, karatea, areto futbola, mendia eta txirrindularitza.

FUTBOLA

Beteranoen partidua Luceroren alde

M.A. > ARETXABALETA

Aita Menni ospitalean dagoen Luis Lucero eskoriatzarri laguntzeko beteranoen arteko partidua antolatu du Aretxabaleta Kirol Elkartek. Maiatzaren 30ean, zapatua, jokatu dute Ibarra futbol zelaian, eta Realeko, Eibarko eta UDAko beteranoen arteko txapelketa izango da. Hona hemen partidua: 16:00etan, UDA-Eibar; 17:00etan, Eibar-Real Sociedad; eta 18:00etan, Real Sociedad-UDA.

Sarrera 5 euro ordaindu beharko dute ikusleek eta dagoeneko salgai daude honako lau tabernetan: Dorleta, Gurea, Orly eta Zariaian.

UDA-KO DELEGATUA

UDAko ohorezko infantilen taldeko delegatua zen Lucero ezbeherra izan zuenean –aurretik infatil txikiena– eta hainbat hilabete daramatza Aita Menni ospitalean. Egonaldia ordaintzen laguntzeko lehen ere atera zituzten erri-fak UDAko kideek, lankideekin batera. Antolatzaileen asmoa da Ibarra futbol zelaia futbolzale betetzea eta ahalik eta diru gehien jasotzea Luceroren senideendako.

> MENDI IRTEERA

Salbada mendilerroa irteera antolatu du Murruxio

Salbadako mendilerroan edo Gorobelgoan (Araba) egun-pasa egingo dute Murruxio Mendizale Elkarteko kideek maiatzaren 31n, domeka. Tologorritik Txarlazo mendira egingo dute zeharkaldia.

Autobusa 08:00etan irten-go da Azbetik, eta arratsaldean itzuli. Izena hilaren 26an eman behar da, martitzena, Murruxion (19:00-20:00); bazkideek 10 euro ordainduko dituzte; gainerakoek, 12 euro.

PILDAIN JATETXEA

Eguneko menuak • Karta

Udala auzoa • Arrasate
Tel.: 943 79 11 65
943 77 18 67

Berriro ere zabalik!



Roberto Altuna > Euskaltegiko zuzendaria

"Euskara ikasle garaiak eta lagunak gogoratu gura ditugu"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegiak 25. urteurrena ospatzen dihardu iraila ezker. Ospakizunekin bukatzeko, euskaltegiarekin zerikusia duten guztiekin bazkaria egin gura dute. Roberto Altuna zuzendariarekin egin dugu berba, eta guztiei gonbidapena egin die.

Ekainaren 20an bazkaria egingo duzue. 25. urteurrenako azken ekitaldia izango da.

Bai, hala da. Urte hauetan guztietan euskaltegiarekin zerikusia izan duten pertsona guztiak gonbidatu gura ditugu: ikasleak, irakasleak, zuzendariak... guztiak. Deialdia ahalik eta zabalen egiteko gonbita eginez gutunak bidali ditugu, baina, Datuen Babeserako Legea dela eta, ezin izan ditugu gutun bidez pertsona guztiak gonbidatu. Hortaz, lerro hauek deialdia egiteko aprobetxatu gura nituzke: bazkarian parte hartu gura dutenek ekainaren 10a baino lehen eman beharko dute izena euskaltegian.

Ze egitarau osatu duzue egun horretarako?

Etxeberria jatetxean egingo dugu bazkaria. Aurretik, musika eskolako trikitilariak ibiliko dira kalerik kale. Bazkaldu ondoren Kuluxka taldeak dantzaldia egingo du. Gure asmoa da euskara ikasle garaiak gogoratzea, orduko lagunak ikustea eta egun polita elkarrekin igarotzea.

Zenbat lagun elkartuko zarete bazkarirako?



Roberto Altuna, euskaltegiaren aurrean.

MIREIA BIKUÑA

Euskaltegiak 25 urteotan ia 1.700 ikasle izan ditu, baina badakigu guztiak ez direla etorriko. Antolatzaileok pozik geratuko ginateke 100 bat lagun elkartuko bagina.

Hainbat ekitaldi antolatu dituzue urteurrenaren harira. Nolako erantzuna eman diote herritarrek?

Egia esan, oso gustura gaude herritarrek emandako erantzunarekin. Jerardo Elortzak, Jose Antonio Azpiakuz, eta Fernando Odriozolak egindako hitzaldietan herritar asko bildu zen. Elortzaren hitzaldian pertsona batzuk

"Pozik geratuko ginateke 100 bat lagun elkartuko bagina"

"Ikasteko metodologia asko aldatu da: orain, lan erdia etxetik egiten dute"

kalean geratu ziren, hitzaldia entzun barik. Bestalde, Odriozolak Kolonbiari buruz egindako hitzaldian 100 kolonbiar inguru etorri ziren. Bestalde, Iñigo Agi-

rre tolosarrak *Euskal kantuak gitarraz* delako kontzertua egin zuen, eta musikazale asko etorri ziren emanadira.

Zu duela 14 urte heldu zinen euskaltegiara irakasle gisa. Asko aldatu da ordutik hona?

Izugarri. Alde batetik, egoitza aldatu genuen; Errekalde herri eskolatik Bidebarrieta kalera joan ginen duela bost urte. Oraingo egoitza herri erdian dago, eta horrek erraztasunak ematen dizkigu herritarrengana heltzeko, eta eurak gurera etortzeko. Azpiegitura aldetik ere asko aldatu da. Ni hasi nintzanean telefono bakarra genuen guztiondako. 1997. urtean erosi genuen lehen ordenagailua, hura ere guztiondako. Oraingo egoitzako irakasleok ordenagailu bana dugu, eta ikasleek ere ordenagailu bana dute auto-ikaskuntza gelan.

Ikasteko metodologia aldatu egin da?

Asko. Hasieran euskara taldekoek egunero bi ordu hartzen zituzten eskolak, astelehenetik egubakoitzera. Egun, ezinezkoa da ordutegi hori mantentzea. Guk egiten duguna da astean zortzi orduko eskolak mantendu, baina lau orduko lana etxean egin dezakete Internetik ariketak jaitsiz.

Ikasleen profila asko aldatu da azken urteotan?

Bai, asko, bai adinaren aldetik eta baita jatorriaren aldetik ere. Eskoletan diharduten neska-mutiko etorkinak etortzen dira guregana laguntza eskolak hartzera.



KONTZEJUPETIK

Txarrixak taldeak irabazi du beteranoen txapelketa

Txarrixak futbol taldeak (goiko argazkian) irabazi zuen aurreko aste bukaeran beteranoen futbol txapelketa, Zorro Bero taldeari 5-3 irabazita. Kantsolazio finalean, berriz, Doolygans taldeak 7-1 menderatu zuen Fraka Motz taldea. Bestalde, kopako finalean Xaguxarrek eta Gaur Baik neurtu zituzten indarrak eta Xaguxarrek irabazi zuen, 4-0.

> MUSIKA

Musika eskolakoak Debagoieneko kontzertuan, gaur

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek Debagoieneko kontzertuan parte hartuko dute gaur Aretxabaletan, 18:00etan. Eurekin batera ibarreko beste hainbat musika eskolako neska-mutikoek hartuko dute parte. Bestalde, 2009/10 ikasturterako matrikula epea zabalduko dute musika eskolakoek. Hilaren 28a arte eman daiteke izena 943 78 13 71 telefonoan edo idezkaritza@jazpiazumusi-kaeskola.com helbidean.

> JAIK

Errekaldeko bazkariko txartelak erosteko azken egunak

Maiatzaren 31n egingo dute Errekalde jaietako auzo-bazkaria. Txartela erosteko azken eguna bihar da: salgai daude 20 eurotan Urbia tabernan eta Matea dendan.

Jai batzordekoek menu goxoa aukeratu dute: mariskoz betetako pikillo-piperak; patatak errioxar erara; mingaina perretxiko saltsarekin; hostopil tarta bainillazozkiarekin; ogia, ura, ardoa eta kafea.

oharrak

DEIALDIA

> **Kirol festa egingo dute bihar herri eskolakoek**

Hirugarren aldiz egingo dute kirol festa Errekalde herri eskolako gurasoek eta ikasleek bihar. 16:30ean hasiko dira kirola egiten; besteak beste, herri kirolak, talde kirolak eta jokoak egingo dituzte eskola inguruetan.

HITZALDIA

> **Berdintasunari buruzko hitzaldia egingo dute erretiratu elkarteak**

Emakundeko zuzendari ohi Izaskun Moioa oñatiarrak egingo du hitzaldia maiatzaren 26an, 17:00etan. Berdintasunari buruz egingo die berba Pake Lekura joaten direnei.

HITZALDIA

> **Agresibitateari buruzko hitzaldia Elkar Hezian**

Agresibitatea nerabeengan delako hitzaldia egingo dute maiatzaren 26an Elkar Hezi ikastetxeke Santa Marinako mediatekan, 18:30ean. Hirusta Kabineteko adituek egingo dute hitzaldia.

Bestalde, Juan Kruz Ige-rabide idazleak *metamorfosi* kontzeptua azalduko die Elkar Heziko DBHko ikasleei maiatzaren 26an, 15:00etan.



Mazmela elizaterantz doan bidea oso egoera txarrean dago.

MIRIAN BITERI



Zarimuztik asko entzuten da AP-1eko alboetako bandek ateratako zarata.

M.B.



Zabortegiak kentzeko eskaera egin dute; irudian, Mazmelakoa.

GOIENKARIA

AZPIEGITURAK > AP-1 AUTOBIDEA

Udalak arduradunei bidali die kalteen gaineko txostena

Udalak kaltetuen eskaerak bideratzeko konpromisoa hartu zuen egueneko plenoan

'Autopistako lanak amaitzeko zereginak eta eskaerak' txostenean, egiteke dauden lanak daude

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

AP-1 autobidearen lanen amaiera dela eta, Eskoriatzako Udalak obra horiek behar bezala amaitzeko tramiteak egin eta kaltetuen eskaerak bideratzeko konpromisoa hartu zuen eguenean egindako plenoan. Horren harira, uda-

lerrian egin beharreko eskaeren gaineko *Autopistako lanak amaitzeko zereginak eta eskaerak* txostena bidali du asteon Diputazio-ko Bide Azpiegituretako eta Bidegiko arduradunei; eta baita Jaurlaritzako Ingurumen sailari ere, ibilgailuek eragindako zara-

ta eta erreken egoeraren gainean, zeresana duelako sail horrek.

Txostenak dio, autobidea gaur inauguratuko den arren, oraindik egiteke dauden lanak asko direla eta horren harira, neurri zuzentzaileak zein konpentsazio neurriak bultzatzeke daudela. Zonaldez zonalde egoera zein den jaso da dokumentu horretan.

JARRAIPEN ESTUA

Gogorarazten du lau urte pasa direla udalerrian lanak hasi zirenetik. Horiek iraun duten bitartean, Eskoriatzako bizilagunek, eta bereziki kaltetuek, jarraipen

estua egin diete horiei, Udal Azpiegituren azpibatzailearen eta Onbide.org elkartearen bidez. Horren harira, jakinarazi dute orain kezkatuta daudela amaiera lanek eta egokitzapenek hartu duten norabidearekin.

Elizateetako zinegotzi Leire Okarantzaren arabera, "lehen-tasuna autobideko zatia irekitzea zen, ados, baina gainerako lanak behar bezala amaituko zirela agindu zitzaigun. Lan horiek nola amaitu adosteko makinatxo bat bilera ere egin dugu bitartean; proposamenak eta aukerak aztertu eta adostu ere bai. Baina

ekintzek ez digute horrelakorik erakusten; badirudi lanak bukatu eta alde egitea dela helburu bakarra".

NEURRI ZUZENTZAILEAK

Txosten horretan martxan jarri beharreko hainbat neurri zuzentzaile jaso dira; tartean, Marin, Zarimutz, Mazmela eta Apotzagako errepideak nahiz herriko errepide nagusian egindako kalteak guztiz konpontzea exijitu dute; baita Marin, Zarimutz eta Mazmelako erreka-bazterrak eta natura-guneak berreskuratzea eta moztuta geratu diren lurrei eta etxeei behin betiko sarbide egokiak ematea.

Bestalde, lanen ondorioz kaltetu diren zerbitzuak eta bereziki ur-hornidura sarea behar bezala birgaitzea eta obrek iraun duten bitartean erabilitako nekazal lurrak baserritarrei eta, batez ere, horietatik bizi diren jabeek behar bezala txukunduta bueltatzea eskatu dute. Azken horren harira, lur begetala, belarra ereinda eta ingurunean garbituta itzuli behar direla diote.

Besteak beste, gainera, bide zati osoan itxidura egokiak, ur-drainadurak behar bezala bideratzea, eragindako lur-jauziak konpontzea eta beharrezkoa den tokietan zaratak murrizteko neurriak hartzea exijitu dute.

KONPENTSAZIO NEURRIAK

Bestalde, itzulezinak diren inpaktuak konpentsatzeko neurriak ere aurreikusi dira. Eguenean egindako plenoan PSE-EEko zinegotzi Iñaki Pierrugesek ohartarazi zuen Legeak diola obren kostuen %1 kultura eta gizarte ekipamenduetarako bideratu behar dutela. Kopuru hori aparkalekuak egiteko, kaltetutako auzoetan interes sozialeko obrak egiten laguntzeko eta nekazal jardueraren ordainetan lursail egokiak eskaintzeko erabiliko litzateke.

Apirilaren 6ko Eskoriatza eta Luku arteko zatiaren inaugurazioan eta apirilaren 21ean Bidegirekin egindako batzarrean, horren harira, autobideko arduradunengandik jasotako erantzuna positiboa izan bazen ere, ekintzek ez diotela horrelakorik erakusten eta hortaz, konpromisoak ahalik eta azkarren bete ditzaten eskatu du, azkenik, Udalak.

ZIRKULAZIOA > ALDAKETAK

Mundumira dela eta, hainbat aparkaleku eta kale itxita egongo dira gaurtik domekara

M.B. > ESKORIATZA

Gaurtik domekara egingo duten Mundumira jaialdia dela-eta, Udalak jakinarazi du, jaietan egiten den bezala, Azkoagaenea hoteletik Arbiñoeste irteerarainoko kaleak itxita egongo direla. Horrez gain, unibertsitateko kontzertua dela-eta, zapatuan, 21:00etatik kontzertua amaitu arte, Santa Anatik Tesaraino doan bidea ibilgailuen-

dako guztiz moztuta egongo dela azaldu du. Beraz, goitik behera joaten diren autoak tren geltoki zaharretik Dorletarantz desbideratuko dira, eta behetik gora joan nahi dutenek sailhesbidea erabili beharko dute. Udalak gaineratu du tren geltokiko aparkalekuan auto-karabaneke lehen-tasuna dutela eta unibertsitateko bi aparkalekuak itxita egongo direla.

AUTOBUS GELTOKIAK

Bestalde, autobus geltokiak, Aingeru Guardan -Alza parean- eta Intxaurtxuetan egongo dira eta zaborra betiko egunetan jasoko da, baina goizez.

Azkenik, Udalak eskoriatzarreri jakinarazi die, larrialdirik gertatuz gero, udaletxeko telefonoa -943 71 44 07- erabil dezaketela.

ERRETIRATUAK > ASKOTARIKO EKINTZAK

Erretiratuak Zarautzera joango dira ekainaren 11n

M.B. > ESKORIATZA

Olazar erretiratuen elkarteko zuzendaritza berria ez dago geldi. Ekainaren 11rako egun osoko irteera gertatu du Zarautzera. Horretan interesa dutenak maiatzaren 25etik 28ra bitartean elkarrekin duen bulegora joan behar dira, 11:00etatik 12:30era. Izena ematen dutenek 30 euro ordaindu behar dituzte.

Bestalde, urtero bezala, jaietako merienda egingo dute erretiratuek. Ekainaren 25ean izango da hori. Horretarako gonbidapena jasotzeko euren egoitzan eman behar da izena ekainaren 9tik 11ra, 11:00etatik 12:30era.

Azkenik, Olazarrek jakinarazi du urteko kuota ordaintzeko epea zabalik dagoela. Kuota hori 6 eurokoa da.

LEHIAKETA

Balkoirik
apainenak
aukeratuko
dituzte

San Juan bezperan banatuko dizkiete sariak lorerik politenak dituztenei

I.A. > ANTZUOLA

Balkoieta eta leihoetako XIII. lore apainketa lehiaketa abian da jadanik. Lehiaketa parte hartzeko, ordea, ez dago inolako dokumenturik aurkeztu edo izena eman beharrik. Hala ere, etxeko loreak zaintzen eta aldatzen egin behar da ahalegina.

Epaimahaikoek herrian buelta bat emango dute Antzuolako etxeetako balkoiak eta leihoak eta horietan apaingarri moduan dauden loreak ikusteko. Ondoren, egokienak iruditzen zaizkien leihoak eta balkoiak aukeratuko dituzte.

Lehiaketa honen helburua da jendeak balkoiak edo leihoak apain eta polit izatea eta modu horretan herriari itxura txukuna ematea.

SARIAK

Sari banaketa San Juan Bezperan egingo dute, ekainaren 23an, eta 90 euroko sariak banatuko dituzte.

oharrak

GARRAIOA

> Lurraldebus txartela

Orain arte Lurraldebus txartela ateratzeko eta kargatzeko aukera eskaini dute Altzarte gozotegian. Maiatzean barrena zerbitzu hori eskainiko duten arren, erabilitzaileei jakinarazi nahi diete ekainetik aurrera bertan behera utziko dutela. Hortaz, ekainetik aurrera Antzuolan ez da txartel hori saldu eta kargatuko duen baimendutako tokirik izango.

KIROLAK > AZPIEGITURAK

Lantzen ari dira eskolako patioa estaltzeko ideia

Aterpearen proiektua legealdi honetan gauzatu nahi lukete, baina erakundeen dirulaguntzen zain daude horretarako

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Antzuolako Kirol zinegotzi Andoni Azkargorta Goiena Telebistan izan da, herriko kirol kontuen gainean berba egiten.

Azkargortak azpimarratu du kirolean Antzuolak orain arte izan duen arazo nagusia instalazioena dela: "Pauso handia eman dugu futbol zelaia eta frontoia berrituz; eta gimnasio berria abian ipiniko da laster. Baina eskolako patioa estaliko lukeen aterpearen gaineko proiektua lantzen gabilta eta gure asmoa da aurrera ateratzea".

Horretarako, jakin behar dute erakundeetatik laguntza jasoko duten, aurtengo diru partidetan ez baitute lortu laguntzarik. "Baina espero dugu hurrengo bi edo hiru urteetan lortzea eta nahi genuke legealdi honetan proiektua gauzatea", dio Azkargortak.

Udalak aurtengo aurrekontuetan 1.200.000 euro bideratu ditu kirolekara, baina hortik 1.000.000 euro aterpearendako utzi dituztela esan du zinegotziak.

"ASETA EGONGO GINATEKE"

Eskolako patioa estaltzeak emango luke aukera eskolan kirol jarduerak egiteko, eta Antzuolan aterpean kirola egin nahi duenak toki bat izango luke. Azkargortaren esanetan: "Aterpearena lortuz gero, beteta ez, baina aseta egongo ginatke. Orain arte, beste herri batzuekin alderatuta kirol instalazioetan sekulako hutsunea zegoen".

HERRITIK KANPO KIROLA EGITERA

Kirol instalazioetan hutsuneak egoteak eraman ditu antzuolar asko beste herri batzuetara kirola egitera: "Igeriketa zerbitzurik eman ezin dugunez eta muskulazio gelarik ez geneukanez, jendea joan da Bergarara, Legazpira, Zumarragara... Igeriketa zerbitzurik ez dugu emango, baina gimnasio berrian muskulazio gela izango da, baita ikastaroak ere. Antzuolarrek etxetik bi minutura kirola egiteko aukera izango dute. Nahi dugu kalitatezko lokal bat eduki herritarrek asezteko, eta abian ipini dugun proiektu honekin eta kudeatzeko modu honekin Udalak lortu nahi du kontrola izatea eta prezio duinak eskaintzea".

Gimnasioa ikasturte berrira gertu izango da, eta Eztalan ere, futbolariak denboraldi-aurrea lasai egiteko, uztaileko lanak amaituta izan nahi dituzte.



ENEO AZKARATE

Kukumarro
originalak
San Isidro azokan

Zapatuan San Isidro azokan kukumarro lehiaketa egin zuten. Umeak izan ziren parte hartzaile gehienak eta, 12 urtetik gorako mailan, Mariñe Etxanizek, Ane Letek, Amaia Ramirezek eta Alazne Irastorzak osatutako taldea izan zen irabazle; 12 urtetik beherakoetan, denek jaso zuten saria.

Erretiratuetan, elkarteko talde bakarrak (argazkian) hartu zuen parte kukumarro originalekin. Aitaita-amamek maiz betetzen duten umezain lana azaldu zuten, panpinak hala jantzita.

bere ustez



Iñigo Ramirez de Okariz

Animatu
alardean
parte hartzera

Gero eta egun gutxiago geratzen dira herriko jaietarako eta Mairuaren Alarde berritua ikusteko.

Urte honetan izan dira bi herritar talde elkartu eta hausnartzen ibili direnak azken urteetan hain atxikimendu eskasa duen ohitura aztertu eta sendotzeko asmoz. Bilera ugari egin dira, iritziak jaso, adostasun zabal batera ailegatu, baina konturatu dira, nahiz eta iritziak adostu eta erabakiak hartu, ezin dela ezer egin herriaren laguntza barik, herritarren parte hartze barik.

"Konturatu dira
ezin dela ezer egin
herriaren laguntza
barik, herritarren
parte hartze barik"

Une honetan horixe da gehien kezkatzen gaituena: nola erakarri herritarra alardera.

Agian zuk, lerro hauek irakurtzen ari zaren horrek, nahiko zenuke talde honekin batera bide berri hau egin. Gu ilusionatuta gaude, baina ilusio hau partekatze ere bide-lagunak behar ditugu. Batzuk danborra jotzeko, beste batzuk eskopetekin ibiltzeko, besteak antolaketa orokorrek arduratzeko...

Ez gara gutxiago izango. Antzeko usadioak dauden herrietan belaualdien arteko transmisio naturala egiten ari dira edo egin dute. Ez hutsik egin gonbitari eta animatu. Herrietako identitateak kili-kolo dauden honetan ezin diogu ezetzirik esan Mairuaren Alardeari.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
AbadErrekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

JENDARTEA > OSPAKIZUNA

Arantzetarrek uztailaren 18an Elgetan

Bilbon egingo dituzte harrera eta agur afariak eta Elgetan, Arantzeta auzoan, topaketaren oroigarri bat ipintzea da antolatzaileen asmoa

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Arantzeta abizena dutenek nazioarteko topaketa egingo dute uztailaren 17an, 18an eta 19an. Arantzeta jatorri elgetarreko abizena izanik, herrian batzartuko dira.

Javier Arantzeta bilbotarra da topaketa horien antolatzaile-etariko bat. "Bere lanarengatik, asko bidaiatzen du, besteak beste Hego Amerikara. Han kontakua egin du Arantzeta abizeneko jendearekin eta, interesa bazegoela ikusita, topaketa egitea pentsatu du", esan digu Jose Luis Arantzeta elgetarrak.

Asteon aurkeztu dute topaketa Elgetan. Uztailaren 17an Bilbon elkartuko dira eta harreraren eta bazkariaren ostean, Endika Mogrobejo genealogistak heraldikaren eta leinuaren gainean hitzaldia egingo du.

Elgetara 18an etorriko dira eta harrera egingo die alkateak; Arantzeta auzora bisita egingo dute gero, eta han, ospakizunaren oroigarri bat ipini nahi dute; ondoren, bazkaria izango da.

Domekan, Bilbon, Guggenheim museora bisita eta agur jaia izango dituzte.



Javier Arantzeta bilbotarra (eskuman), Elgetako hainbat arantzetarrekin. I.A.

KANPORA JOANDAKOAK

Elgetan zenbat arantzetar diren ez daki Jose Luis Arantzeta: "Bada Elgetan lehen lau abizenak Arantzeta dituenik. Baina Elgetatik ere inguruko herrietara joan gara batzuk: Antzuolara, Elorriora... Hortaz, zaila da jakitea zenbat garen. Gainera, hainbat modutara idazten da abizena eta horrek zaildu egin dezake kontaketa".

Elgetatik gertura joan dira batzuk eta kanpora besteak: "Amerikan ez ezik Alemanian ere ba omen dira arantzetarrek

eta baita Andaluzian ere, orain dela 100 edo 150 urte hara joandakoen ondorengoak-edo. Bitxia badirudi ere, ba omen da Cadizen flamenkoa kantatzen duen arantzetarrik ere", esan digu Jose Luis Arantzeta.

Batean eta bestean daude arantzetarrek eta topaketan parte hartu nahi dutenek izena emateko Pello Gorrotxategi Arantzetari (695 75 51 25) edo Jose Luis Arantzetari (629 37 92 16) deitu behar diote, eta 40 euro sartu *Arantzeta abizenekoak* kontuan: 2101 0037 04 00067 96619 (Kutxa).

JAIA

Asentzio Eguneko ospakizunak domekan

Gaur kontzertuak izango dira gaztetxean Asentzio Egunaren harira

I.A. > ELGETA

Domekan, maiatzaren 24an, egingo dituzte Asentzio Eguneko ospakizun nagusiak. Aurrez, ordea, jaia girotzeko kontzertua izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan. Bergarako No hay Solucion eta Extorsion, Sorluzeko Clavo Oxidado eta Azkoitiko Deficiencia Mental eta Pillhead taldeak izango dira, eta sarrera 3 euro da.

PUTZU INGURUAN

Domekan, 11:00 inguruan Asentzion barra izango da zabalik. Gaztetxeok edaria zerbitzatuko dute, eta pintxoak, guraso elkartekoak.

Batzuk barra ertzean egongo dira, hortaz, eta umeek euredako gertatutako jolasak egingo dituzte eta txikiendako ibilbide mitologikoa antolatu dute Asentzio inguruan. 12:00etan meza izango da Asentzioko ermitan.

Gero, bazkaria egingo dute, eguraldi ona bada Asentzion eta bestela gimnasioan. Bazkalostea girotzeko trikitaliak egongo dira.

Lorategi botanikoa Maala parkean

Maia ingurumen taldeak belar biologikoekin lorategi botanikoa ipini du Maala parkean. Belar usainsuak eta sendabelarrak landatu dituzte eta landare bakoitzaren ondoan karteltxoak ipini dute, izenarekin eta zertarako erabil daitezkeen azalpenak emanez. 20 landare mota inguru daude lorategian, eta hazten direnean jendeak hartu ahal izango ditu, betiere neurrian. Bestalde, asmoa dago aurrerago infusioak egiteko Maalako belarrekin herritarrendako.



IRATI AGIRREAZALDEGI

oharrak

ERAKUSKETA

> **Puzzleak Espaloian**

Jon Holguin eibartarraren 1.000, 2.000 eta pieza gehiagoko puzzleak ikusgai izango dira Espaloian maiatzaren amaierara bitartean.

HAUTESKUNDEAK

> **Posta bidezko botoa**

EAJtik jakinarazi dute Europako Parlamentuko hauteskundeetan posta bidez bozkatu nahi dutenek maiatzaren 27a baino lehen dei dezaketela telefono zenbaki hauek: 615 00 90 32 (Maria Jesus Lete) edo 943 76 81 47 (Begoña Ardantza).

MUSIKA

> **Kontzertua gaur gauean**

Gaur, egubakoitza, 22:00etan, Edson Goya abeslari brasildarra izango da Espaloian. Sarrera doan da.

Aperribay, s.l.

*Marmoldegi
eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

AMA SAY ETA DEABRUAK TEILATUETAN

Eguna: Maiatzak 23. Larunbata: 22:30ean.
Lekua: Espaloia kafe antzokia



Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

KULTURA > MUSIKA

Eguzkierripa Rock jaialdia egingo dute hilaren 30ean

Festa goizean hasiko dute, poteoa egingo dute eta ondoren bazkaria Andra Mari ermitan; kontzertuak, berriz, 20:00etan hasiko dira

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Datorren zapatuan rock doinuak entzungo dira Aramaion. Gazte Asanbladak Eguzkierripa Rock jaialdia antolatu du hilaren 30erako. Aurtengoa lehenengo edizioa izango da, baina, dena ondo joanez gero, jaialdia urtero egitea da Gazte Asanbladaren asmoa.

Andra Mari ermitan ospatuko dute jaia. Rock doinuak iluntzean iritsiko dira, baina festa goizean hasiko dute. Giroa berotzen hasteko, goizean poteoa egingo dute herriko tabernetan zehar. Ondoren, kalejiran, trikitilariak lagunduta, Andra Mari ermitaraino joango dira guztiak



Aramaio Gorroto musika taldea, entsegu saio batean.

GORROTO

oinez. 15:00etan, gero, bazkaria egingo dute Andra Mari ermitan bertan. Bazkarirako ticketak herriko tabernetan daude salgai, hamar euroren truke. Gazte Asanbladako kideek azaldu dute bazkalostea "entretengarria" izango dela. Herriko bertsolariak giroa alaituko dute eta jolasak

ere antolatuko dituzte bazkalostea arratsaldera arte luzatzeko asmoarekin.

KONTZERTUAK

Rock jaialdia 20:00etan hasiko da eta bost talde igoko dira Andra Mari ermitako zelaietan ipiniko duten eskenatokira: La Madrigue-

ra (Arrasate), Galdu arte (Oñati), Sospechosos (Oñati), Nealta Folla (Aretxabaleta), Kan Out (Nafarroa) eta Gorroto (Aramaio). Edaririk ere ez da faltako, Gazte Asanbladak txosna ipiniko du-eta. Herritarrek eta inguruko rockzaletak jaialdira gonbidatzen ditu Gazte Asanbladak.

AZPIEGITURAK > ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Auzoetan gasa barik energia berriztagarriak erabiltzeko aukera aztertuko du Udalak

Udalak auzoetan energia garbiak erabiltzeko dauden aukerak aztertuko dituen enpresa bat kontratatuko du

A.B. > ARAMAIO

Aramaio Udalak energia berriztagarrien aldeko apustua erabiltzeko jarraitzen du. Joan den urtean hainbat aukera aztertu ondoren erabaki zuten Aramaion egurren erregai moduan erabilita energia sortzeko aukera zegoela. Hasi, udal erakundeak hasi nahi dute. Udalaren asmoa da Sastiña ermitan egu-

rra erretzeko galdara bat ipintzea eta galdara horretatik ur beroa lortzea udaletxerako, Sastiña ermitarako eta garai bateko *mataderoaren* eraikinerako.

Udal erakundeak dagokienez, horixe izango da Udalaren apustua, baina auzoetara ere zabaldu nahi dute proiektua. Izan ere, aurtengoa, zenbait auzoetan azpiegiturak hobetzeko lanak egingo dituzte; Arriolan, esaterako, hasi dituzte lanak. Proiektu horietan guztietan aurreikusten da gas hoditeria sartzeara. Hori horrela, erabaki dute oraingoz gasik ez sartzeara epe laburrean aurreikusten diren lanetan. Esan bezala, Arriolakoak dira lehenengoak, baina urtea amaitu baino lehen Etxaguen auzoan eta Zalgo-Errotaberrin ere

azpiegiturak hobetzeko lanak egingo dituzte. Beraz, horietan ere ez da gasik sartuko. Gainera, Eusko Jaurlaritzak gaur egun ez du dirulaguntzarik ematen gasaren hoditeria ipintzearen. Hori izan da energia berriztagarrien alde egitearen beste arrazoi bat.

AUKERAK AZTERTZEN

Udalaren asmoa da auzoetan energia berriztagarriak erabiltzeko dauden aukerak aztertzea. Horretarako, enpresa bat kontratatuko dute. Hark aukera desberdinak aztertuko ditu eta auzotarrei proposamenak aurkeztuko dizkio. Hori jakinda, bizilagunek eurek egin eta ordaindu beharko dituzte egin beharreko lanak.



Apezpikutzarena den lursaila, Etxaguen auzoan.

JONE INUNZIAGA

AUZOAK > ETXAGUEN

Apezpikutzari lursaila erosiko dio Udalak, plaza bat egiteko

Azpiegiturak hobetzeko lanak egingo dituzte laster; horiekin batera hasiko dira plaza egiten

A.B. > ARAMAIO

Etxaguen auzoko bolatokiaren atzealdean dagoen lursaila Arabako Apezpikutzarena da, baina Udalak erosi egingo du, bertan auzoko plaza izango dena eraikitzeko. 400 metro koadro inguruko lursaila da eta gaur egun auzotar batek ortua dauka bertan.

Apezpikutzarekin negoziatzioetan ibili ostean, dagoeneko finkatu dute prezioa eta orain ordainketa egin eta lursaila Udalaren izenean ipintzea besterik ez da gelditzen. Izan ere, azkeneko osoko bilkuran udalbatzak onartu egin zuen Udal Gobernuak lursail hori erosteko hartutako erabakia.

AZPIEGITURA LANAK

Epe laburrean Etxaguen auzoan azpiegiturak hobetzeko lanak hasiko dituzte. Asier Agirre alkateak aurreikusten du urtea amaitu baino lehen hasiko dituztela lanak, azaro inguruan. Plan Foraleko dirulaguntzekin erango dute aurrera proiektu hori, baina lanak oraindik esleitu barik daude.

Udalaren asmoa da azpiegiturak hobetzeko urte bukaeran egingo dituzten lanekin batera hasiko auzoko plaza izango dena eraikitzeko lanak. Proiektua oraindik egiteko dago; beraz, plazak izango duen itxura zehazteko goizegi da oraindik.

Eskolako umeez hegaztiak ikusteko irteera

Joan den martitzenean, Lehen Hezkuntzako neska-mutikoen irteera egin zuten Garaiora. Mendixur aldera joan ziren eta hegaztiak ikusteko egokituta dauden behatokitian izan ziren. Denetarikoz hegaztiak ikusi zituzten; besteak beste, zikoinak eta murgil handiak. Hegaztien inguruan asko ikasi zuten.



SAN MARTIN ESKOLA

AZPIEGITURAK > LANDAGIPUZKOA 32

Pilotalekua estaltzeko dirua nondik bideratu erabaki behar du Udalak

Landagipuzkoa 32 egitasmoari esker %60 jasoko du; gainerakoa Udalaren esku dago

Ur-deposituaren eskaerari baietza eman arren, aurten ezingo dute burutu

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Herrian izan zen Markel Olano diputatu nagusia joan zen astean eta bertatik bertara ezagutu zituen Udalak herrirako dituen asmoak, eta baita dituen ezintasunak ere. Guztiaren berri jasozten duen txostena eman zioten udal ordezkariak.

INTERESA ETA GOGOIA GATZAGAN

Herriko kontuen berri jasotzera etorri zen diputatu nagusia: "Lan egiteko interes eta gogo handia ikusi zituen, eta hori, behintzat, ona da", azaldu digu Eusebio Villar alkateak balorazioa egiteko eskatutakoan. Landagipuzkoa 32 egitasmoaren ganean jardutera etorri zen Olano, Landa Garapeneko diputatu Rafael Uribarrenekin batera, baina udal ordezkariak aurrez zekizkiten onartutako proiektuak: "Bage-



Udalak guztiz estali gura duen Gatzagako pilotalekua.

GOIENKARIA

nekien egindako dirulaguntza eskaerei baietza eman zietela. Hala ere, Olanok berak esan zuen Udalak ere jarri beharko duela zati bat, eta hori ez da izango samurra".

Hiru proiektu ziren aurkeztutakoak: hainbat baserrietara doazen bide sarrerak egokitzea -dagoeneko konpontzen-, pilotalekua estaltzea eta ur-depositua egitea Gatzagain inguruan, Arlabango plan bereziaren barruan.

PILOTALEKUA ESTALTZEA

Eskaerak onartzeak, baina, ez du esan gura lehenbailehen egingo dituztenik Gatzagan. Pilotalekuari dagokionean, asmoa da guztiz estaltzea. Lehen goiko partea estali zuten, eta asmoa da behetako ere ixtea. Aurreproiektua eginda daukate -dirulaguntza eskaerara aurkeztutakoa- eta orain proiektua egingo dute: "Lan horrek txikikeria dirudi, baina diru asko eskatzen du", argitu du

alkateak. Landagipuzkoak %60 ordainduko du, eta gainerakoa Udalak jarri beharko du. Udal ordezkariak, baina, ez dakite %40 hori nondik aterako duten; hortaz, alkatea ez da ausartu lanen datarik ematera.

ARLABANGO PLANA ALDUNDIAN

Ur-deposituaren eskaerak oraindik ez du jaso behin betiko baietzik, baina, Olanoren esanetan, proiektuak aurrera egingo du. Ur-

deposituarekin gura dutena da Gatzagain eta Gaztainuzketa inguruan ura ziurtatuta izatea, batez ere Arlabango plan berezian aurreikusitakoa egiterakoan. Hain zuzen, Arlabango plana Diputaziara daukate bidalita oniritzia jasotzeko, eta hori egindakoan behin betiko onartuko du Udalak. Hala ere, alkateak argi utzi du aurten ezingo dituzte uraren kontuarekin aurrera egin, dirutza handia delako.

Olaun Goikoa baserrira doan sarrera konpontzen

Apirilean hasi zituzten hainbat bide sarrera konpontzeko lanak, Gatzagainen hasi ere. Gatzagain ingurua txukun utzi eta gero, Olaun Goikoa baserrira sartzeko sarrera egokitzen dabilta. Konponketa horiekin, asmoa da segurtasuna lortzea baserrietara doazen bidegurutzeetan. Landagipuzkoa 32 egitasmoak diruz lagunduko ditu konponketa batzuk -Gatzagaingoa eta Asteisolo eta Arrate baserrietara doazena- eta beste batzuk Udalak bere gain hartuko ditu. Hain zuzen, Olaungo egokitzapen hori Udalak ordainduko du; baita Goierri auzorako bide sarreran jarriko dituzten ispiluak eta seinaleak ere.



MIRARI ALTUBE

TURISMOA

Mundumira jaialditik, gatz museoa ezagutzera

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Gaur hasi eta domekara bitartean Eskoriatzan ospatuko duten Mundumira jaialdira datozenek hainbat bisita egiteko aukera izango dute. Debagoienerako Mankomunitateak eskaintako ibilbideak eta bisitak dira horiek, eta Gatzagako museoa ezagutzeko aukera dago tartean. Domeka guztietan legez, 12:00etan eta 13:00etan egingo dituzte bisita gidatuak Eugenio Otsoa Gatz Museoa.

Mankomunitateko arduradunen esanetan, bisitak egin gura dituztenek aurrez izena eman dezaten komeni da, telefono zenbaki honetara deituta: 943 79 64 63.

MENDIKO LASTERKETA > ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA, SKY RUNNING WORLD SERIES 2009

Debagoieneko 21 lasterkari izango dira domekan Zegamako irteera puntuan

Aurreko bi edizioak irabazita, Kilian Jornet da gizonetzkoetan faborito nagusia eta emakumezkoetan Emanuela Brizio dago txapelketan lider

XABIER URTZELAI > BERGARA

Domekan, 09:00etan, 452 korrikalarik ekingo diote Zegama Aizkorriko 8. edizioari, Munduko Kopako bigarren probari. Eta, korrikalari horien artean ibarreko 21 lehiatuko dira.

Debagoiendarren artean aipatzeakoak proban izango diren bi emakumezkoak: MariFran Alonso atleta beteranoa, eta mendi lasterketetan aurrean dabilen Oihana Kortazar elgetarra. Horiekin batera, lasterketa ondo ezagutzen duten beste hainbat debagoiendar izango dira proban, tartean iaz zortzigarren sailkatu zen Aritz Kortabarría arrasatearra. Baina, ikusleok hutsune



Iazko irabazle Corinne Favre (eskuman), Urbian.

GOIENKARIA

bat ere nabarrituko dugu, Zegama-Aizkorriko podiumera birritan igo den, eta iaz Espainiako mendiko Kopa irabazi zuen Zuhaitz Ezpeleta. Bedoñakoak orkatila

bihurritu zuen Berako mendi lasterketan, eta oraindik ez da errekuperatu.

Gainontzeko lasterkariei dagokienez, aurreko postuetan

Ibarrekoak

- 32. Marifran Alonso (Arras.)
- 53. Oihana Kortazar (Elgeta)
- 116. Jesus Odriozola (Oñati)
- 121. Jabi Martinez (Eskoria.)
- 122. Juanma Martinez (Arras.)
- 126. Jon Urtaza (Aretxabale.)
- 139. Eneko Urrizalki (Arras.)
- 148. Aritz Kortabarría (Arras.)
- 160. Karlos Aldai (Bergara)
- 164. Gorka Sudupe (Arrasate)
- 172. Iban Aranguren (Arrasa.)
- 187. Bittor San Jose (Aretx.)
- 202. Josu Gascon (Arrasate)
- 236. Jose Luis Barrena (Oñati)
- 248. Unai Agirrebalza. (Oñati)
- 286. Ekaitz San Vicente (Arra.)
- 298. Aitor Urtaza (Oñati)
- 329. Asier Sagastizabal (Oñati)
- 330. Xabier Iñurritegi (Oñati)
- 396. Iñaki Egiluz (Arrasate)
- 402. Joxean Larrea (Oñati)
- 415. Andoni Urtaza (Oñati)

ITURRIA: ZEGAMA-AIZKORRI.COM

ten ere hura izango da gainditu beharreko gizona. Baina, Kataluniarrarekin batera Rikardo Mejia, Raul Garcia, Fulvio Dapit, Jose Felipe Larrazabal eta beste hainbat izen hartu behar ditugu kontutan", adierazi du probako zuzendari-tekniko Alberto Aierbek. "Emakumezkoetan ere korrikalari oso onak izango dira. Emanuela Brizio italiarra dago lider, baina kontuz ibili beharko du Stephanie Jimenezekin, Alizia Olazabalekin, Alizia Romerorekin eta beste hainbat korrikalariarekin.

EGURALDIAREN BELDUR

Eguraldi iragarpenek diote asteburuan txarra izango dugula: "Iaz baino lokatz gehiago ez da ibilbidean egongo, hori seguru, baina domeka goizerako euria eman dute, eta eguerditik aurrera hobera egingo duela. Guri komeni zaiguna da hobekuntza hori apur bat aurreratzea", adierazi du umorez Aierbek. Bestela ere proba izugarri gogorra izanda, euriak ez du batera lagunduko. Ez korrikalariei, eta ezta ikusleei ere.

Arrasate

Kultur Ate
Azoka kalea 1

19:30



25
Astlehena

“La revolución de los cocos” / “Los niños de plomo”

(BUGAINVILLE (Ozeano Barea))

(Ekuador/ Peru)

27
Asteazkena

“Tambogrande” / “Tekoha”

(PERU)

(ARGENTINA)

28
Osteguna

“Patagonia Petrolera” (Zuzendariaren partaidetzarekin)

(ARGENTINA)

“Quiero ser tortilla”

DOAN

III EKOZINEMALDIA 2009
2009 - MAIATZAK 25-29

www.ekologistakmarxan.org

Arrasate - Barakaldo - Basauri - Bilbo -
Gasteiz - Iruñea - Laudio - Donostia

EKOLGISTAK
EUSKAL HERRIA
m a r t x a n



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ORAIN GORBEIA Merkatal Gunea (Vitoria - Gasteiz) HURBILAGO!

GORBEIA


ESKORIATZA
10 minutuan.

ARRASATE
13 minutuan.

BERGARA
16 minutuan.

SORALUZE
21 minutuan.

EIBAR
23 minutuan.



IRTEERA  8

Etxabarri Ibiña

AP - 1 EIBAR-GORBEIA



GORBEIA gehien aurrezten duzun tokia

errazago, bizkorrago, erosoago, merkeago

Carrefour 

DECATHLON

Norauto


i'm lovin' it

**BRICO
DEPÔT**
PRECIOS BAJOS TODOS LOS DIAS

merkal 
calzados

King Jouet

**YELMO
CINES
GORBEIA**

**MUEBLES
MAX
DESCUENTO**

SPLAFF!
Solo en Gasteiz

CIMER
el outlet del electro

SAMIRA
FASHION OUTLET

LUXUS SPORT CARS - ISKIA - ULANKA - ZAPARRASTRILLO - CORTEFIEL - WOMEN'S SECRET - DOUGLAS - CHARO DUARTE - SPRINGFIELD - PROMOD - EL BROCHE - AUTOS GP - UNITEC MOVISTAR
ATENCIÓN AL CLIENTE CARREFOUR - VEGA - PRENSA - ESPACE COIFFURE - INMOBILIARIA GORBEIA - WANAKA - ORO VIVO - GODO'S - SLIDE - TRIP BISUTERIA - REC - LOS TELARES - PACO MARTINEZ
PIMKIE - GAME SUN PLANET - SWATCH - NATURA - VODAFONE - BIJOU BRIGITTE - ORANGE - ADMINISTRACION LOTERIA - ONCE - BARCELO VIAJES - ASERPLATA - VITAL KUTXA - GRECIA - AMAZONAS
LARAPA - CEYLAN CAFÉ Y TE - LAHORE - OSCARG - MODASATENEA - EOLO 23 - FARMACIA - TRIP - FOOT LOCKER - SEPHORA - M2 - CAFETERIA M2 - BUFFET CHINO GORBEIA - KURRUSKO - OKETA - KEBAB
KIOSKOGOXOA - TÚNEL DEL LAVADO - CARREFOUR - BRICODEPÔT - DECATHLON - Mc DONALD'S - YELMOCINEPLEX - NORAUTO - KING JOUET - MUEBLES MAX DESCUENTO - MERKAL CALZADOS - SPLAFF!

FUTBOLA > PREFERENTEA

Azkargorta: "Duda barik egingo diogu UDARI pasilloa, ondo merezi dute-eta"

UDAK eta Mondrak derbia jokatu dute domekan Ibarra futbol zelaian (17:00)

UDAKo zaleak 16:00etan elkartuko dira herriko plazan, kalejira egiteko

XABIER URTZELAI > BERGARA
Mondrako jokalariek domekan (Ibarra, 17:00) UDAKoei pasilloa egin behar izateak zeresana eman du aste barruan, eta, hain justu, horren gainean galdetu dio GOIENKARIAk Mondrako entrenatzaileari. Andoni Azkargortak onartu du, baina, Mondrak kiroltasunez jokatu duela: "Aldagelan ez dugu askorik komentatu, baina bai, kalean eta lantokian jendeak komentatu dit zer bait. Nik ez daukat dudarik, idatzi gabe dagoen legeak dio txapelkunari pasilloa egin behar zaiola, eta Mondrako jokalaria eta zaleendako une gozoa izango ez

bada ere, guk pasilloa egingo dugu Ibarra. Nire kasuan, gainera, nahiago dut UDAKoei egin beste edozeini baino, Aretxabaletan lagun asko ditudalako. Mondrakook kiroltasunez jokatu dugu; izan ere, futbolak buelta asko ematen ditu".

Domekako partiduekin batera zapatuko emaitzei begira egongo da Antzuolako, ea Euskaldunak Aloñaren kontra zer egiten duen: "Egia esan, aurten ibarreko taldeen artean hainbat fabore egin dizkiogu elkarri, horrela tokatu delako". Hobe horrela eta ez alderantziz. Eta, Aloñak Euskalduna mendean hartzen badu, oraingoan Mondrarendako fabore: "Ez daukat dudarik, Aloñak geratzen diren bi partiduak irabazten baditu bigarren sailkatuko da".

IBARRAKO PUNTUEN BILA

Mondrak etxeko lanak amaituta dituen UDA izango du aurrean, baina Azkargortak ez du inor lasaituta ikusi gura: "Baliteke Gordobilek minutu asko izan ez dituen jokalaria saritu gura izatea eta hainbat aldaketa egitea. Oraindik ez diot horren gainean galdetu [barre], eta pentsa, elka-



Amutxastegi, Erikorekin lehia, iaz Ibarra jokatu dute derbia.

J.A.

rren ondoan egiten dugu lan. Baliteke domekan UDAKo mutilek urtean zehar baino tentsio txikiagoa izatea, baina Aretxabaletak ez digu oparirik egingo, ordezkoek ere datorren urtean taldean lekua dutela erakutsi gura izango dutelako".

KALEJIRAN IBARRARA

UDArrendako ospakizun eguna izango da domekako. Zaleak 16:00etan batuko dira herriko plazan, handik futbol zelaira joateko, eta 16:30ean omenaldia jasoko dute preferenteko eta euskal ligako taldeek.

> GOLFA

Asteburuan egingo dute udaberriko golf txapelketa Oñatin

Asteburuan egingo dute Ireloko Golf Eskolan udaberriko txapelketa. Bertan esku hartzeko ez dago zertan bazkide izan. Bihar gazteek jardungo dute (18:00), eta domekan nagusiek (09:00).

> ESKUBALOIA

Kopako lauako finalean izango dira Bergara eta Arrasate

Bihar jokatu dute Ordizian Gipuzkoako Kopako lauako finala. Hala, finalerdietarako sailkatu dira Bergara, Urnieta, Arrasate eta Legazpi. Bi talde onenek domekan jokatu dute finala.

> ARETO FUTBOLA

UDA-Orlyk Almenen jokatu du gaur finalerdia (20:45)

UDA-Orly taldeak gaur (Almen, 20:45) jokatu du bigarren mailara igotzeko areto futboleko finalerdia. Aretxabaletako mutilek Villabonako Urritza izango dute aurrean.

BICIPRECISIÓN IGARTUA

Zubieta kalean 943 76 11 21

Pazkoa jai zoriontsuak bergarar guztioi!



ETOR ZAITEZ
PROBATZERA!

www.lapierrebikes.es

Errepideko bizikletetan eskaintzak:

	LEHEN	ORAIN
* Orbea Onix karbonozkoa Shimano 105 10 ab.	1.950 €	1.000 €
* Orbea Onix karbonozkoa sram rival 10 ab.	1.980 €	1.235 €
* Karbonozko gupilak	1.490 €	890 €
* Cervelo S1 Ultegra	2.690 €	1.800 €
* Cervelo R3 sram Red	5.990 €	3.880 €
* Cervelo R3SL Durace	6.800 €	4.880 €
* Pinarello FP13 Centaur	2.600 €	2.000 €
* Flanders karbonozkoa Centaur	2.500 €	1.690 €



cervelo

www.cervelo.com

Mendiko bizikletetan eskaintzak:

	LEHEN	ORAIN
* Orbea aluminiozkoa freno hidraulikoa	700 €	475 €
* Orbea aluminiozkoa freno hidraulikoa master	980 €	699 €
* Goka monokasko	1.780 €	1.100 €
* Goka alu. XT eta Deore	1.300 €	725 €

**Neguko jantzieta
%20ko deskontua!**

Sei hilabetetan ordaintzeko, interes barik!

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> TELEBISTA

Bergarako Udaberriko kontzertua GOITBn > 37



> MUSIKA

Ama Say eta Deabruak Teilatuetan Elgetan bihar > 38

> AGURTZANE MUXIKA

Haur Hezkuntza ari da ikasten, haurrak betidanik gustatu izan zaizkio-eta. Gainera, soinua jotzen du. Taldearekin erromerietan jotzen du > 36



Mundumira: kulturen jaia asteburuan Eskoriatzan

Mundumira

Mundu zabaleko doinuak entzun ahal izango dira Eskoriatzan, Mundumira jaialdian.

MUNDUMIRA

Mundumira jaialdiaren bosgarren ekitaldia ospatuko da aste bukaeran Eskoriatzan

Aurten ere, natura, kultura eta bidaiak izango dira jaialdiaren ardatz nagusiak

EDU MENDIBIL > ESKORIATZA
Eskoriatzaren txanda iritsi da. Mundumira jaialdiaren bosgarren edizioa ospatuko da aste bukaeran. Bosgarren ekitaldia izango da: Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Bergaratik igaro ondoren, Eskoriatzak jasoko du munduko kulturen festa. Debagoieneko Mankomunitateak eta *Euskal Herria* aldizkariak bultza-

tutako jaialdiak hasierako izaerari eusten dio aurten ere. *Euskal Herria* aldizkariako Kike Zinkunegi zuzendariaren hitzetan: "Bi hilabetetik behin aldizkarian, paperean, erakutsi ohi duguna Mundumira festan erakusten jarraituko dugu. Festa handia da Mundumira, bere osotasunean gauza asko uztartzen dituen, jende guztiarentzat aproposa".

HAMAIIKA PROPOSAMEN
Natura, kultura eta bidaiak izango dira jaialdiaren ardatz nagusiak aurten ere. Antolatzaileek hamaika proposamen gertatu dituzte aste bukaerari begira: mendi eta bidaiak azoka, erakusketak, ikus-entzunezkoak, kale animazioa, ibilbide kulturalak, eskalada txapelketa, umeendako (32. orrialdean jarraitzen du)



Rude Kanka.

MUNDUMIRA



Romina Goshtasbi.

MUNDUMIRA



Macaco.

MUNDUMIRA

Kulturen jaia asteburuan Eskoriatzan

(31. orrialdetik dator)

jolasak, munduko jaki ezberdinen dastatzea, foro solidarioak eta beste hainbat.

HAZIZ JOAN DEN JAIALDIA

Sorreratik hona, urtez urte haziz joan den ekimena izan da Mundumira. Joan den urtean, esaterako, jende asko batu zen Bergarako kaleetan, ekaineko lehen aste bukaeran. Antolatzaileak pozik daude orain arte jasotako erantzunarekin eta Debagoieneko Mankomunitateko arduradunek gure ibarra ezagutzera emateko jaialdia *tresna* egokia dela uste dute.

Jaialdia ibiltaria izateko asmoarekin jaio zen orain dela bost urte. "Kanpoko herrialdeei keinu bat egiten diegu *Viajes por el mundo* izeneko atalean *Euskal Herria* aldizkarian eta horixe

izan zen jaialdiaren abiapuntua", dio Zinkunegik. Beraz, kanpoko kulturek eta gureak bat egingo dute Eskoriatzan gaurtik.

MENDI IBILALDIAK

Bisita gidatuekin batera, mendi ibilaldiak izango dira aitzakia ezin hobea gure ibarra ezagutzeko. Zapatuan, 08:00etan, Urkultik Kurtzebarrira igoera izango da eta ordubete geroago, 09:00etan, ondoko ibilbidea egiteko aukera dago: Antzuola-Uzarraga-Galartza-Lizarraga-Irimoegi goena. Hiru orduko ibilaldia prestatu dute antolatzaileek. Arratsaldean, berri, 16:00etan, Espainiako gerraren gaineko kultura ibilbidea izango da Elgetan, Intxortan. Eta Aretxabaletan ibiltzea nahiago dutenek Larrino auzo, Urkulu eta Aozaratz inguruan ibiliko dira, domekan, 09:00etan. Atxorrotzera igotzeko aukera ere egongo da ordu berean. Ibarreko mendi elkarteek kolaboratuko dute aipatutako ibilaldietan.

SOLIDARITATEARI TARTEA

Aurreko urteetan egin izan den moduan, Eskoriatzako kaleak sensibilizaziorako, salaketarako eta konpromisorako gune izatea da antotzaileen helburuetako bat. Horrela jaio zen, hain zuzen ere, Topagune Solidarioa izeneko ekimena. Bertan, artisauroak, stand informatiboak, hitzaldiak, eztabaidak, proiektzioak, erakusketak, foro irekiak eta beste hainbat ekimen izango dira. Eskoriatzara joaten diren guztiei parte hartzeko gonbidapena egin nahi diete antolatzaileek eta gobernu kanpoko erakundeetako ordezkariak. Talde horien lanaren eta mundu osoan garatzen dituzten proiektuen berri jaso ahal izango da Eskoriatzan. Zinkunegik azpimarratzen duenez, "kamiseta solidarioa eta *ticket* solidarioa ekimenen zati bat erakunde ezberdinen proiektuak bultzatzeko baliagarriak izango dira. Era berean, banka etikoa-ren fenomenora gerturatuko gara eta bidaiatzeko destino berriak

ezagutuko ditugu turismo arduratsuen alorrean".

Besteak beste, Setem Hego Haizeak eta Fiare Fundazioak elkarlanean dihardute finantzaketa etikoen berri zabaltzeko: "Ekingia ekonomikoek giza eta ingurumenean duten eragin berri izan nahi dugulako, finantza ekintza gardentasun handiago eskatu nahi dugulako, kreditua ukatu zaien pertsonak gure finantza ekintzen barne nahi ditugulako. Pertsonen zerbitzura jarri nahi dugu gure dirua".

Giza eskubideen aurkako egoerak salatzen, deskubritzen eta sakontzeko gunean hainbat jaialditan saritutako film laburrak emango dituzte: *Sabina, La parabólica, Elephant* eta beste hainbat.

> GARRAIO PUBLIKOA ERABILTZEA GOMENDATU DUTE

Aparkalekuen faltak nahiko buruhauste eman die antolatzaileei. Horixe da haien kezka nagusietako bat. Arantxa Untzeta Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariaren hitzetan, "Eskoriatza herri txikia da. Ez dago aparkaleku askorik eta, gainera, unibertsitateko bi parking eta lehengo tren geltokioa itxita izango dira, auto-karabanez erabiltzeko eta unibertsitateko bat zapatuko kontzerturako". Garraio publikoa bultzatzeko ahalegin berezia egiteko dei egin dute antolatzaileek. Egunez zein gauez zerbitzu bereziak izango dira. Argibide gehiago: www.pesa.net (902 10 12 10 telefono zenbakia) edo www.turismodebagoiena.com (943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakia).

> BI PARKING

Eskoriatzara joaten diren autoak Torrebaso industrialdeko aparkalekuetara eta Copreciko parkingera bideratuko dituzte, eta handik jendeak oinez edo autobusez joan beharko du Eskoriatzara.

> BISITA GIDATUAK

Debagoiena hobeto ezagutu ahal izateko, bisita gidatuak egiteko aukera izango da Mundumira jaialdiaren barruan. Ibarraudi museoan zapatuan eta domekan, 11:00etan, 13:00etan eta 17:00etan (943 71 54 53 telefonoa); Leintz Gatzagako gatzaren museoan ere bai, 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz (943 71 47 92); Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatean eta San Migel parrokian, 12:00etan gaztelaraz eta 13:00etan euskaraz (943 78 34 53); Arrikruz kobetan, ordutegi honekin: 10:00-14:00 eta 15:00-18:00 (943 08 20 00); Bergarako gune monumentalaren bisita domekan izango da, 16:00etan; eta Arrasateko Erdi Aroko gunearen bisita zapatuan izango da, 17:00etan.

ULMA Agrícola, Koop. E
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

Eguna: 2009ko maiatzaren 28a.
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.
Tokia: ULMA Taldeko auditorioa - Oñati.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2008ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2009ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2008ko ekitaldiko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. Emaizak banatzea.
6. Bihurketa faktoreari buruzko erabakia berrestea.
7. 2008ko interesak sortzea eta kapitalizatzea.
8. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko eta interes publikoko beste xede batzuetarako ekarpenaren (H.K.S.E.) erabilera.
9. Egituraz gairako erakundeekin zerikusia duten gaiak.
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
11. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
12. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
14. Galderak eta eskaerak.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2009ko maiatza

OHARRA: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak aztertutako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.

ULMA Forja, Koop. E
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

Eguna: 2009ko maiatzaren 29a.
Ordua: 10:30ean lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena.
Tokia: ULMA Taldeko auditorioa - Oñati.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2008ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2009ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2008ko ekitaldiko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. Auditoria izendatzea.
6. Emaizak banatzea.
7. Kontseilu Errektoreak hainbat neurri ekonomikoari buruz hartutako erabakia berrestea.
8. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko eta interes publikoko beste xede batzuetarako ekarpenaren (H.K.S.E.) erabilera.
9. Egituraz gairako erakundeekin zerikusia duten gaiak.
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
11. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
12. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
13. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
14. Galderak eta eskaerak.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2009ko maiatza

OHARRA: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak aztertutako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.



17 Hippies.

MUNDUMIRA

SOLIDARITATEARI TARTEA

Musikak, nola ez, protagonismo berezia izango du, eta bi gune nagusi prestatu dituzte Eskoriatzan: unibertsitateko aparkalekuan jarriko duten Elkar agertokian izango da zapatu gaueko kontzertua, egitarauko izarretako bat, eta gainerako kontzertuak Eskoriatzako plazak jasoko ditu, han eta hemen izango diren kale agerraldiak kontuan hartzeke. Mundu zabaleko doinuak iritsiko dira Eskoriatzara.

Eta entzun bakarrik ez. Munduko zapoak izeneko gunean toki askotako jakiak dastatu ahal izango dira. Jaialdiaren izaera primeran islatzen duena. Dena gertura asteburuan Eskoriatzan.

Egitaraua

22, EGUBAKOITZA

- 17:30** Irekiak. Mundumira informazioa.
> Mendi eta Bidaia Azoka.
> Artisautza Azoka.
> Elkartasun Foroa - GGKE.
> "Munduko Zaporeak" gunea.
> ELKAR "Munduari Bira" Marrakzi Lehiaketaren Erakusketa eta sari-banaketa (Pilotalekuan)
> Mundumira kamisetaren aurkezpena; Bertatik ateratako dirua hiru kooperazio proiektutara bideratuko da.
18:00 Erakusketa hauen irekiera:
> "La mujer: libertad cautiva" Pascal Dione (Senegal).
> Elkarheitzten Lan Taldea (pintura eta eskultura). Ibarraundi Museoa.
> "Viajeros Club Marco Polo 2008" (argazkiak) Unibertsitatea.
> "Banca Ética" Setem Hego Haizea (argazkiak). Unibertsitatea.
18:30 Ikus-entzunezkoa: "Acercando el mundo desde un tándem" Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okaberekin (Unibertsitatea)
19:00 Kale animazioa MLOMP (Senegal) perkusio eta dantza taldearekin.
19:30 Ikus-entzunezkoa: Josune Bereziartu eta Rikar Otegi

Mundumira eszenatokia.

(F. Eskoriatza plaza):

- 19:30** KORRONTZI (EH) Folk eritmoen eta zapo herrikoien nahasketa, soinu pozgarri, dantzagarri eta emotiboz osatutako musika sortzeko. Izar berria trikiaren munduan.
21:00 ZURA (EH) Asmo berritzaile, funk, soul eta jazz eritmoak euskarazko bossa novarekin uztartuta. Xabi Strubell (Dut taldeko gitarra jotzailea) buru duen proposamen originala.
22:15 DJ MAREK
23:00 17 HIPPIES (Alemania) Benetako jaia, Balkanetako eta Greziako musika arabiarrarekin nahastuz. Eszenatikian, indar erakustaldia Berlingo talde honekin.

23, ZAPATUA

- 08:00** Igoera: Kurtzebarri Urkulutik (Mendiak eta Herriak)
11:00 Ibilbide kulturalak Debagoienako Turismo Bulegoekin (informazioa: standean)
11:00 Mendi eta Bidaia Azoka.
> Artisautza Azoka.
> Foro Solidarioa - GGKE.
> Ikus-entzunezkoen aurkezpenak, hitzaldiak eta erakusketak egun osoan zehar.
> ELKAR UMEEN GUNEA: Tombs Creatius. EL ARRIERO DE JUEGOSek zurez egindako 24 jolas baino gehiago ekarriko dizkigu, txikiak eta nagusiek ongi pasa dezaten. Haurrentzako tailerrak, Inguru Abentura eta SENDAVIVAKO Alfonbra magikoa.
11:00 AMAMA LUISA BRASS BAND fanfarrea. Funk, Soul edo Rhythm & Blues, 20ko hamarkadako New Orleanseko soinu sei pilotu lehenengo heldu behar dira bandarik hoberenetakoa.
12:00 SENZALA EUSKADI CAPOEIRA TALDEAREN emanaldia (Santa Mariñe plazan)
13:00 Musika kalejira ARTEA TEATRO (Aragoi) taldearekin, "Los Autos Locos" lanarekin. Oso ibilgailu bitxieta doazen sei pilotu lehenengo heldu behar dira helmugara, edozeren gainetik.
12:00 Mundumira eszenatokia. (F. Eskoriatza plaza). Dantza pertsiarra ROMINA GOSHTASBI (Iran) eta bost dantzarirekin. Dantza pertsiarra kontserbatzeko borrokan ari diren Irango hainbat herrialdeko artistarik hoberenak aztertuko dituzte eta beraiekin ikasi du.
13:00 MADERA DE CHORO (Brasil) "la Caixa" Gizarte ekintza - Diversions.
> Hiri musika karioka da lau musikari bikain hauek eskaintzen digutena. Cavaquinho jotzen dute, Brasilgo musika tresna tradizionala.
14:00 DJ BUDIM. Mundumira eszenatokia.

- 16:00** BTT Zeharkaldia: Eskoriatza-Pagola-Leizargarate-Urkulu-Eskoriatza. (41 Km) Areka BTT*
17:00 Mendi eta Bidaia Azoka.
> Artisautza Azoka.
> Foro Solidarioa - GGKE.
> Munduko Zaporeak Gunea.
> ELKAR UMEEN GUNEA.
17:00 AMAMA LUISA BRASS BAND fanfarrea (kalean)
18:00 ESKALADA OPENA. OPEN DE ESCALADA (pilotalekuan)
19:00 RAS MIGUEL & TAFARI. Mundumira eszenatokia.
20:00 BLOQUE 53 (Venezuela) "la Caixa" Gizarte ekintza - Diversions. Sanba latindar erreperitorio ikusgarria, dantzarekiko bokazioarekin, hori da musika tresna nagusi gisa bibrafonoa erabiltzen duen seikote horren proposamena.
19:00 Kalejira CANDOMBE (Uruguay) Kultur Elkartearekin. Hogeita hamar danbor, dantzari eta festa handia kalean, Uruguayko inauterietara gonbidatuz.
20:00 LA FANFARE P4 (Frantzia). Kale animazioa. Ikuskizuna eta Balkanetako jai musika da Toulousetik datorren talde honen proposamena.

ELKAR eszenatokia (Unibertsitateko aparkalekua) (dohako sarrera):

- 22:30** RUDE KANKA + IBAN NIKOLAI (EH) Reggae eritmoak txalapartarekin eta diggeridoarekin soinu ikusgarriarekin nahastuko dituzte eszenatoki gainean..
24:00 MACACO (Katalunia) Bartzelonan jatorrizko izendapena duen mestizajearen erreferentzia. Hainbat herrialdeko eta kulturako musikariren taldea. Disko berria aurkeztuko digute.


24, DOMEKA

- 09:00** Igoera: Atxorrotz (Eskoriatzako Kirol Taldea)
11:00 Ibilbide kulturalak Debagoienako Turismo Bulegoekin (informazioa: standean)

- 11:00** Mendi eta Bidaia Azoka.
> Artisautza Azoka.
> Foro Solidarioa - GGKE.
> Munduko Zaporeak Gunea. Eusko Labeldun txahal bat erreko da.
> Ikus-entzunezkoen aurkezpenak, hitzaldiak eta erakusketak egun osoan zehar.
> ELKAR UMEEN GUNEA: TOMBS CREATIUS, zurezko jostailuak, Haurrentzako tailerrak, Inguru Abentura eta SENDAVIVAKO Alfonbra magikoa.
11:00 ESKALADA OPENA. OPEN DE ESCALADA (pilotalekuan)
12:00 Mundumira eszenatokia. EDSON (Brasil) gitarrajolea. Cantautor.
13:00 Kale animazioa CANDOMBE (Uruguay) Kultur Elkartearekin.
13:00 Mundumira eszenatokia. NEILA BENBEY (Aljeria) Diversions - "la Caixa" Gizarte ekintza. Musikarekiko interesa oso gazte zela piztu zitzaion, baina orain bere taldea eratu du. Bertan bere ahots sentzuala nabarmentzen da.
17:00 Mendi eta Bidaia Azoka.
> Artisautza Azoka. Feria de Artesanía.
> Foro Solidarioa - GGKE.
> Munduko Zaporeak Gunea. Zona Sabores del Mundo.
> ELKAR UMEEN GUNEA: EL ARRIERO DE JUEGOS, zurezko jostailuak. Inguru Abentura eta SENDAVIVAKO Alfonbra magikoa.
17:00 ATAMA KENPO TALDEAREN erakustaldia (Sta. Mariñe plaza)
Mundumira eszenatokia.
(F. Eskoriatza plaza):
17:00 Musika emanaldia HERRIKO TALDEEKIN.
> KLABISON (Antzuola)
> DESCHAVE (Argentina) Diversions - "la Caixa" Gizarte ekintza. Tangoari eta milonga edo chacarena bezalako beste eritmo batzuei lotutako proiektua. Ikusleak harrituko ditu.

Mundumira

munduko kulturen festa



maiatzak 22, 23 eta 24
Eskoriatza - DEBAGOIENA

Munduko musika (Macaco, 17 Hippies, Romina Goshtasbi, Korrontzi, Zura, MLomp, Amama Luisa Brass Band, Artea, Madera de Choro, Bloque 53, Candonbe, La Fanfare P4, Rude Kanka + Iban Nikolai, Neila Benbey, Deschave), Mendi eta Bidaia Azoka, Erakusketak, Ikus-entzunezkoak, mendi irteerak, BTT Zeharkaldia, Kale animazioa...

**Debagoieneko herri guztietatik autobusak.
Egunez eta gauez autobus zerbitzu bereziak.
Erabili garraio publikoa!**

Informazio gehiago:

www.pesa.net
902 10 12 10

www.turismodebagoiena.com
943 79 64 63 • 943 71 89 11

www.mundumirafesta.com



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

TURISMOA

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

Arrasate. Etxebizitza salgai Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukalde eta komun. 606 86 71 97.

Bergara. 80 metro koadroko etxebizitza salgai Koldo Eleizalden. Hiru logela, sukalde, jangela-egongela, bi komun, trasteleku eta garajea. Oso eguzkitsua. Aukera ona. 600 90 45 58.

Marieta (Araba). 200 metro koadroko etxe bakarra. 5 logela, 37 metro koadroko egongela behoko suarekin. 3 komun eta sukalde bat. Garajea bi autoren-dako eta 856 metro koadroko lorategia (ureztatze automati-koarekin). Aukera ona. 628 45 09 62 edo 616 96 99 20.

Oñati. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. 6 urteko eraikin berria. Jgogailuarekin. Bi logela, sukalde, egongela, komun eta trasteleku, argi patioan. 652 70 12 49.

Oñati. Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean. 2002ko eraikina. Bi logela, sukalde, bainua eta egongela. Guztira 68 metro koadro. Gainera 10 metroko terraza toldoarekin etxebizitzaren atzealdean. 20 metroko garaje itxia. 617 20 60 06.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan unibertsitate ondona. Hiru logela. Jantzia. Jgogailuarekin. 605 75 54 52.

Bergara. Etxebizitza erdigunean. Etxebizitza osoa edo gela. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukalde. Jantzia. Jgogailuarekin. Egoera onean. www.euskalnet.net/aguirre. 630 60 47 75 edo 943 79 51 70.

Conil de la Frontera (Cadiz). Apartamentua ematen da errentan udako denboraldirako. Sei pertsonarentzako egokia: bi logela eta ohe-sofa. Deitu 656 74 78 10 telefono zenbakira.

Conil de la Frontera (Cadiz). Familia bakarrekotxeara. El Molino urbanizazioan. Hiru logela,

bi komun, egongela-jangela. Terraza itsasoari begira. Supermerkatu eta hondartzatik bost minutura. Aire girotua eta garajea. 677 86 52 50.

Peñíscola. 2. edo 4 pertsonaren-dako apartamentua. Hondartzako lehenengo ilaran. Guztiz jantzia. Igerilekua txirristekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote arduratsutek etxebizitza hartuko luke errentan. 677 75 12 90.

Debagoiena. Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergara, Antzuola, Oñati, Arrasate edo Osintxun. Deitu 645 72 92 87 telefonora.

Oñati. Etxe txiki edo apartamentu bat alokatuko nuke pertsona bakarrarentzat, maiatzetik aurrera. 655 71 33 66.

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Erdiguneko etxe berri batega ematen da errentan neska batentzat, ekainetik aurrera. 616 75 41 30.

Arrasate. Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldia erabiltzeko eskubidearekin. 618 00 08 28.

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 662 63 76 33 telefonora.

Donostia. Hurrengo ikasturteko lehenengo lau hilabeteetarako etxe bila nabil. Deitu 655 71 39 27 telefonora.

Oñati. Gela ematen da errentan. 617 14 39 41.

2/ GARAJEAK

202. EROSI

Bergara. Garaje irekia edo itxia erosiko nuke Masterreka inguruan. 659 27 69 25 edo 659 27 69 25.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje itxi ederra ematen da errentan Belorrietan. 652 71 37 21.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com
http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor ditezkeen operazioen erantzukizunik.

Oñati. Garajea eta trasteleku errentan Santa Marina plaza ondoan. 652 71 74 33.

204. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Garajea hartuko nuke errentan. 656 71 31 71.

205. BESTELAKOAK

Karabana gordetzeko leku bila nabil. 646 37 76 57.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakume eskalduna behar da umea zaintzeko. 629 18 40 63.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasate. Emakumea gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 680 61 96 98.

Aretxabaleta. Pertsona nagusiak eta umeak zainduko nituzke Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasaten. Esperientzia daukat. 943 53 33 92.

Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza. Esperientzia duen mutila gertu ostalarri lanak egiteko. 648 19 10 38.

Arrasate. Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita etxeko garbiketarako ere. Mari. Deitu 649 30 13 60 telefonora.

Arrasate. Ile apaintzaile laguntzaile eskaintzen da ilea moztu eta tintak emateko. 666 20 06 03.

Arrasate. Neska gaztea asteburuetan zein asteazken zehar tabernan lan egiteko gertu. Deitu 697 42 79 88 telefonora.

Bergara. Emakume arduratsua eta esperientziaduna nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. 639 94 48 65.

Bergara. Emakume esperientziaduna gertu dago pertsona helduen eta haurren zaintzan lan egiteko. Garbiketara lanak ere egiteko gertu dago. Norma. 630 88 54 46.

Bergara. Emakumea gertu dago garbiketara eta pertsona helduen zaintza lanak egiteko. Orduka egingo luke lan, baita aste bukaratan ere. 638 54 75 93.

Bergara. Emakumea gertu legoke garbiketara eta pertsona edo etxeko helduen zein haurren zaintza lanak egiteko. Arratsaldez egingo luke lan, 14:00etatik aurrera. 618 12 07 44.

Bergara. Ingeles eta frantseseko itzulpenak egiten ditut. Ahoz zein idatziz. 654 94 87 26.

Bergara. Josteko makinak konpontzeko gertu nago. eguneko edozein ordutan. 650 07 63 50 edo 652 07 63 50.

Bergara. Mutil gaztea eraikuntzan edo autoa behar den beste edozein lanetan lan egiteko gertu. 696 48 42 50.

Debagoiena. Neska gaztea prest Debagoieneko edozein herri-tan ile-apaindegian lan egiteko. 697 42 79 88.

Debagoiena. Edozein lan egiteko gertu nago: garbiketarako, nagusiak zaindu eta abar. Etxean bertan bizi izateko prest. Ana Luisa de los Santos. Deitu 671 27 78 36 telefonora.

Debagoiena. 50 urteko emakume esperientziaduna ume zein nagusiak zaindu edo garbiketara lanak egiteko gertu. Oti. Deitu 615 75 30 75 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 686 53 34 01.

Debagoiena. Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziak daukat. Deitu 628 40 58 27 telefonora.

Debagoiena. Emakume eskalduna edozein lanetarako gertu. 659 82 75 18.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketarako. 5 euro ordua. 669 53 02 92.

Debagoiena. Emakumea gertu haurrak zaindu, etxeak garbitu eta adineko pertsonak zaintzeko, gauz. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. 618 00 08 28.

Debagoiena. Emakumea gertu umeak zaintzeko. Mari. Deitu 649 30 13 60 zenbakira.

Debagoiena. Etxeko lanak egiten edo garbitzen arituko nintzateke. Socorro Mora. 627 14 63 79 edo 943 25 07 53.

Debagoiena. Galdaragintzan esperientzia duen mutila edozein lan egiteko gertu. Deitu 664 42 96 65 telefonora.

Debagoiena. Garbiketara lanak egingo nituzke. Baita nagusiak edo umeak zaindu ere. Orduka eta egun osoz. 679 06 12 99.

Debagoiena. Garbiketara lanetan, tabernari edota nagusiak zaintzen aritzeko gertu nago. Autoa daukat. Egun oso zein orduka. 636 11 23 40.

Debagoiena. Gertu nago sukaldelaguntzaile edo harrerako langile lan egiteko, arratsaldez. Paperak ditut, zuzen. Angela. 618 80 21 88.

Debagoiena. Margotze lanak egingo nituzke. 660 98 67 20.

Debagoiena. Metalurgian lan egingo nuke. Baita garbiketarako egiten edo nagusiak zaintzen. Alberto. 620 12 78 46.

Debagoiena. Mutila gertu nekazaritza eta baso-lanak egiteko edota motozerrarekin aritzeko. 660 98 67 20.

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, edo bestela. 680 30 24 64.

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka egingo nuke lan. 648 84 23 82.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. Egunez edo gauz. Legezko paperak daukat. Marta. 649 59 86 04.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke orduka zein etxean bertan bizi izanda. 669 02 91 30.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke orduka zein etxean bertan bizi izaten. 688 68 13 63.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan jardungo nuke. 677 17 43 75.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edota ostalaritzan lan egingo nuke: mantentze lanak zein sukaldean. 657 20 30 71.

Debagoiena. Neska eskalduna gertu tabernak, eskailerak edo elkarreak garbitzeko edota sukaldetan lan egiteko. Esperientziaduna. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92.

Debagoiena. Neska eskalduna gertu umeak zaintzeko edota garbiketara lanak egiteko. 600 82 84 60.

Debagoiena. Neska eskalduna lan desberdinak egiteko gertu. Zerbitzari moduan esperientzia. 667 94 07 25.

Debagoiena. Neska gertu garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko egun osoz, orduka, gauz edota etxean bertan bizi izaten. 600 85 56 86.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Peruko untxiak. Peruko untxi txikiak saltzen dira. Oso politak, kolore desberdinetakoak. 8 euroan bakoitza. 943 76 07 47.

704. BESTELAKOAK

Loroa galdu dut San Josepe kalean, Arrasaten. Kurro izena dauka eta hitz egiten du. Yako gorria da, gris kolorekoa eta buztan gorria dauka. 943 79 77 32.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bizikletak eramatekoa. Thule markako bizikleta euskarria saltzen dut. Bi bizikleta eramateko euskarriak ditu eta gehiago jartzeko aukera du. Gutxi erabili da. 250 euro. 605 75 39 66 edo 943 78 12 77.

Bizikleta salgai. Errepideko bizikleta salgai. 54 neurrikoa. Prezio onean. 628 00 76 62.

Eskanerra. Ordenagailuaren-dako eskanerra salgai. Egoera onean. 10 euro. 679 74 00 61.

Ebretresnak. Garbigailua, Hoover etxekoa. Goiko aldetik kargatzeko. 6 kiloko karga. Ontzi-garbigailua, Bosch etxekoa. Berriak dira. 943 76 35 37 edo 637 52 89 83.

Karro denda. Comanche Arizona. 1.50eko bi logela. Bat jangela bilakatzen da, mahai eta bi jarleku luzez osatuta. Barruan gauzak gordetzeko tokia. Egoiteko beste gune bat ere badauka. Karro gainean ekipajea eramateko aukera. 850 euro. 635 20 77 80

Moises kuma. Umea jaioberrietzat. Berri-berria. 45 euro. Xabier. 943 77 18 63.

Escola partikularrak ematen dizkiet Lehen Hezkuntzako umei. Irakasle ikasketak ditut. 650 23 34 98.

Oñati. Arkitektureko ikaslea gertu Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko ikasle talde txiki-ekie laguntza eskolara emateko. 665 70 38 33.

53 27 60 edo 633 32 22 00.

PlayStation I salgai. Prezio onean. 686 82 67 91.

Suspentsioa. Renault Clio autoarentzat. Koni etxekoa. Gogortasun erregulagarria. 2001eko modeloa. Erabili gabea. 669 00 89 61 edo 686 81 03 23.

802. EROSI

Aretxabaleta inguruan lursaila erosiko nuke, ortua eta txabola egiteko. 696 32 63 13.

Borda edo antzekoa duen lursaila erosiko nuke. Baita alokatzeko aukera ere. 669 17 09 51.

Lursaila erosiko nuke Bergaran. Ez etxea egiteko. 669 17 09 51.

803. EMAN

Marratzeko mahai bat ematen dut. Oihana. Nahi duenak dei dezala 616 84 55 96 zenbakira.

806. GALDU

Arrasate. Kazadora laukiduna galdu nuen apirilaren 19an Kajoi tabernatik maiztirako bidean. Eskertuko da. 656 76 78 12.

Erlojua. Zilarrezko erlojua galdu nuen Arrasateko San Andres auzoaren eta lamai kafetegiar artean maiztaren 3an. Lauki-formakoa da eta barrukoa nakarrezkoa du. Cauny markakoa. 646 38 56 84.

Giltzak galdu ditut Arrasaten, plazatik anbulatoriora bitartean. Giltzek astotxo bat dute. 943 79 79 34.

Urrezko katea galdu dut Bergaran; zurrerik, poligonoan. Topatu baduzu, deitu, mesedez. 943 76 34 93.

807. AURKITU

Eraztuna. Ezkontza-eraztuna aurkitu dut Bergaroko Bolu auzoan. 645 71 28 81.

Giltzak. Arrasateko Kobate harrobiaren inguruan giltza batzuk aurkitu ditut. Narrazio poltsatxoan Cafe Central jartzen du. 657 79 07 39.

Gitarra klasikoa aurkitu nuen Olatzeko ikastolaren ondoan. Karlos. 620 12 46 35.

DEBA
GARAIA

INMOBILIARIA

Telefono Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Artetale, 89 m², ondo.
- Amizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berriua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 m², berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerrek, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorenzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berriua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 m², 2 terrazekin 60+30 m², eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berriua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berriua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erakuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokan.**

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarrerrek, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berriua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbarearekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Aranerrek, 95 m², oso ondo.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbarearekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Aranerrek 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorenzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 55 m². Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien erakuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzun etxe berriak**

ANTZUOLA:

- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Behoko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m



Jon Torres eta **Ainara Abasolo** zapatuan, maiatzaren 23an, ezkonduko dira Bedoñako elizan eguerdiko hamabietan. Senide eta lagunak partetik zorionak, bikote, eta ondo-ondo ibili zuen ezkontza egunean.



Aretxabaletako **Mariano Gomez** eta **Juanita Gartzia** maiatzaren 21ean ezkondu ziren, orain dela 50 urte. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak eta patxo handi bana, seme-alaben eta biloben partetik.



Potesko (Kantabria) **Jose Mari Cuevas** eta **Itziar Agirre** antzuolarra ezkondu zirela 38 urte bete dira gaur (maiatzak 22). Zuen ezkontza urteurrenean, zorionak eta urte askotarako, familia-koen partetik.



Aramaioko **Bittor Bergaretxe** eta Aretxabaletako **Ines Leibar** ezkondu zirela 39 urte beteko dira zapatuan, maiatzaren 23an. Zorionak, bihotzez, zuen seme, errain eta biloben partetik. Ondo pasatu eguna!



Arrasateko **Ainhoa** eta **Iker** zapatuan ezkonduko dira parrokiari; ondoren familia arteko ospakizuna egingo dute Zelai Zabalen. Lagunek egun berezi hori ospatzeko Erreka jatetxean bazkalduko dute. Zorionak, familia eta lagunak partetik!

URTEURRENA

Blanqui Legarda Furtado

Lehen urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 25an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Marcelino Sanz Lizarralde

Arrasaten hil zen 2009ko maiatzaren 7an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko maiatzaren 22an.

URTEURRENA

Jose Luis Goitia Cortabarría

Lehen urtebetetzeko meza zapatuan, maiatzaren 25an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Manuela Palomero Cabrejas

Eugenio Morenoren alarguna

Bergaran hil zen 2009ko maiatzaren 9an, 87 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.*



Bergaran, 2009ko maiatzaren 22an.

URTEURRENA

Maria Jesus Kortazar Uribesalgo

Lehen urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 25an, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:



Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

bono fotoa



Garmendia Ardoek emandako
Ardo botila packa*
zozketatuko du GOIENKARIAK
asmatzaileen artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008.
Larchago krianza 2006.
Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
HERRIA TEL.:

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Garai batean armarria zegoen tokian, orain leiho bat ageri da ... Oñatiko zein eraikinetako barrualdea argitzen du leiho horrek?

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain

AURREKO ZENBAIKI IRABAZLEA

Bergarako **Ainara Zubia Alcaraz**. Zorionak!
Erantzun zuzena: **Elgetan**.



Agurtzane Muxika > Trikitilaria eta Haur Hezkuntzako ikaslea

"Urbiara joan ginen San Inazio egun baten sortu zen taldea egiteko ideia"

Haur Hezkuntza ari da ikasten Agurtzane, haurrak betidanik gustatu izan zaizkio-eta. Gainera, musikarekin uztartzen du irakasle lan hori. Soinua jotzen txikitari hasi zen: "Hasi nintze-
nean, egunero jotzen nuen sukaldean, amama ondoan nuela; hark esaten zidan ondo edo gaiz-
ki egiten nuen; asko zor diot hari". Duela gutxi talde bat sortu du eta erromerietan jotzen dute.

JASONE ZABALA > OÑATI

Agurtzane Muxika 20 urteko oñatiarra irakasle izateko ikasten ari da; horretaz gain, soinu eta pandero mundua ere gustuko du. Parrandazalea da eta Oñatin zehar lagunekin irtetea atsegin du. Gainera, hainbat erromerietan ibili da sortu berri duen taldearekin.

Esan genezake soinua eta panderoa zure bizitzaren ardatz direla?

Bai, hala da. 10 urterekin hasi nintzen soinua jotzen eta panderoa orain dela urte gutxi ikasi dut. Betidanik izan dut mundu horrekiko zaletasuna, gurasoek eta aitaita-amamek zaletasun handia daukate, eta umetatik hori ikusi dut etxean. Nik uste dut haiek direla errudunak [barre].

Soinua ikasten hasi nintzenen, lehenengo bi urteetan egunero-egunero jotzen nuen sukaldean, amama ondoan nuela. Hark esaten zidan ondo edo gaizki egiten nuen; asko zor diot hari. Eta urteak pasa ahala, mundu horretako jendea pixka bat ezagutu eta trikitiarekiko zaletasuna hazten joan zen; lagun asko egin ditut trikitiari esker eta mundu honi zor diodan gauzarik handiena egindako lagunak dira.

Musikaz gain, Haur Hezkuntza ikasten zbiltza.

Haurrak ere txiki-txikitatik gustatu izan zaizkit. Umetan irakasle izan nahi nuela esaten nuen eta gaur egun arte, beti garbi izan dudan zerbait izan da. Haurrekin aritzea ez da lantegian zortzi orduz piezak egiten aritzea bezala; askok uste dute pagotxa dela. Irakasle izatea erraza izan daiteke baina beste kontu bat da irakasle ona izatea.

Gainera, neska-mutikoei trikiti eskolak ematen diezu.

Bai. Egia esan, ez nuen oso argi, ez nuen nire burua horretarako gai ikusten, baina trikitiko irakasleak animatu egin ninduen eta hor nabil. Oso gustura, gainera; aitortu beharra daukat. Gehien gustatzen zaizkidan bi lanbideak baten uztartuta daukadala esan nezake: trikitia alde batetik eta irakaskuntza bestetik.

Irakasle ikasketak egiten ari zara, baina etxean ere eskola partikularrak ematen dituzu.

Duela lauzpabost urte nire irakasle izandako batek eskola partikularrak ematea proposatu zidan eta baiezkoa eman nion. Gaur egun asko eskertzen diot



JASONE ZABALA

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 20 urte. **Ikasketak:** Haur Hezkuntzako irakasle ikasketak. **Zaletasunak:** Lagunekin irtetea, parranda, irakurtzea eta soinua jotzea. **Bizioak:** Txokolata ogiarekin jatea, mugikorra erabiltzea, hitz egitea eta bitxiak. **Mania bat:** Leku

guztietara berandu iristea. **Erositako azken diskoa?** Laja eta Mikel. **Parrandarako leku bat?** Oñati. **Bidaia-tzeko leku bat?** Australia edo Argentina. **Irakurritako azken liburua:** *La hija del Ganges*. **Erromeriatxo plazarik onena?** Aristerrazu.

garai hartan emandako aukera hura; oso esperientzia aberasgarria izan da eta asko ikasi dudala uste dut.

Horrekin nahikoa ez eta aste-buruetan gurasoen tabernan egiten duzu lan.

Bai, gauza larregi, guztiak ondo egiteko! Gurasoek taberna txiki bat daukate Oñatin eta aste-buruetan bertan aritzen naiz. Txiki-txikitatik aritu izan naiz barraren atzealdean eta hor atzelaldetik gauza asko ikusi eta ikasten da. Gustura aritzen naiz, hori ere nire bizitzaren zati da, eta nire saltsan ibiltzen naiz, adarra jo eta lan pixka bat eginez.

Erromerietan ere murgildurik zaude eta, gainera, talde bat sortu duzue.

Bueno, nik ez nuke esango horrenbestera denik: taldea edo... Soinu-jolearekin aurretik ere ibiltzen nintzen bikote modura; orain dela pare bat urte eza-gutu genuen elkar, lagun baten bitartez, oso lagun onak egin ginen eta ordutik batera gabilta. Bateria-jolea, berriz, udan ezagutu genuen; Azpeitian parrandan ibili eta Urbiara joan ginen San Inazio egunean eta han jotzen ari zen taldearen atsedean denboran gu hasi ginen jotzen; handik sortu zen ideia.

Oñatiko trikitizale taldetxo batek elkarte bat sortu duzue orain gutxi.

Bai, halaxe da. Aurreko urtean Oñatin izan zen Trikiti Eguna, eta antolatzaile ibili ginen xeble koadrila bat elkartu eta beste ekintza batzuk antolatzen hasi ginen, eta handik sortu zen elkarte sortzeko ideia. Hasi berri gara, baina gogotsu gabilta, eta hainbat ekintza antolatu ditugu jadanik: ikastaroak, erromeriarik... Gogorik ez zaigu falta.

Musikari ala irakasle lana gustukoago? Zergatik?

Ni ez naiz musikaria, ezta gutxiagorik ere. Zaletasun bat da eta parrandan aritzeko eta ondo pasatzeko modu bat da. Ondo edo gaizki, kontua ibiltzea eta ondo pasatzea dela uste dut. Ez gara izugarritzko trikitilariak eta guk hori argi dugu; baina ondo pasatu eta jendea gustura eta disfrutatzen ikusita, nahikoa dugu.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Horrela nabilen bitartean, ondo nabil! Mundu honetan gehien gustatzen zaidana egiten.

Udaberriko kontzertua GOITBn aste bukaeran

Bergarako Musika Eskolaren udaberriko kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua

GOIENKARIA > ARRASATE

Joan den zapatuan Bergarako Musika Eskolak 25. urteurreneko ospakizunei bukaera emateko eskaini zuen udaberriko kontzertua eskainiko du Goiena Telebistak asteburuan. Kontzertuan, Bergarako Musika Eskolako neska-mutikoez gainera, herriko

hainbat musika talde eta abesbatza ere izan zituzten lagun: Gabero, Aritzeta eta San Joxepe abesbatzak; Alai taldea; Bergarako Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako Orfeoia, eta baita Udal Txistulari Banda ere.

Kontzertua osorik grabatu zuen Goiena Telebistak, eta asteburuan emango du. Udaberriko kontzertuak emandakoak, beraz, Goiena Telebistan.

GOITB, 'Udaberriko kontzertua'

> Zapatua, 22:15
> Domeka, 12:00



Herriko musika talde askok hartu zuten parte udaberriko kontzertuan. GOIENKARIA

Urrezko lingoteak inbertsio

UBANE MADERA > ARRASATE

Ekozinemaldia; hori da datorren astean Arrasaten abiaraziko duten ekimena: ekologia kontuak, zinema formatua erabilita. Xehetasunak eskuratu ahal izango dira irratia bitartez, astelehenetan. Bestalde, krisiari aurre egiteko inbertsio seguru moduan bada eskaintza kuriosoa Arrasaten: urrezko lingoteak erostea. Gai horretan ere sakonduko dute asteleheneko irratisaioan.

Arrasate Irratia, "Igo Autobusera"

> Astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 12:00etara.



GOIENKARIA

UDA hirugarren mailara igo zeneko irudiak GOITBn

1985-1986 denboraldia, aurtengoa bezala, berezia izan zen Aretxabaletako UDA futbol taldearentzat; izan ere, denboraldi hartan ere hirugarren mailarako txartela eskuratu zuen taldeak. 1986ko ekainaren 1a zen, UDAk Deusto taldeari 3-1 irabazi eta mailaz igotzea lortu zuen eguna. Ibarren jokatu zen partidu hura GOITB-k eskainiko dizue aste bukaeran.

GOITB, 'UDA 1985/1986' > Zapatua, 21:15 > Domeka, 14:00

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera!

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearren erreparazioa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga)

11:55 Arrasateko albistekak, labur.

12:05 Euskadi Irratiko albistegia

12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Igo Autobusera! (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

astea GOITBn

Egubakoitza, 22	Zapatua, 23	Domeka, 24	Astelehena, 25	Martitzena, 26	Eguaztena, 27	Eguena, 28
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak : Cloud Trotters.	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Ur eta lur.	10:30 Trikitraka trikiton.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Itsasoari begira: Algorri interpretazio zentroa.	13:45 Ikusten: Karlos Irujo.	13:45 Ikusmira	13:45 Euskal herria lau haizetara.
14:15 Eltze beroa.	11:30 Golb tb.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa: Krepak eta barazki beteak.	14:15 Jaz	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	12:00 Euskal herria lau haizetara.	12:00 Udaberriko kontzertua Bergaran.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Ikusmira.	12:30 Ikusmira.	14:00 1985-86. UDA hirugarren mailara.	15:15 Mugaz kanpo.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	15:15 Ikusmira.
16:15 Ikusten.	13:00 Eltze beroa.	15:00 Solaskise	15:45 Elkartasunaren bidean.	15:50 Solaskide.	15:50 Golb tb.	15:45 Mugaz kanpo.
16:45 Berriak.	14:30 Trikitraka trikiton.	15:30 Zaharrak berri.	16:15 28 klip.	16:20 28 Klip.	16:20 28 Klip.	16:15 28 Klip.
17:15 Marrazki bizidunak.	15:30 Marrazki bizidunak.	18:15 Marrazki bizidunak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
18:00 Ilunpean.	18:00 Erreportajea.	18:15 Trikitraka trikiton.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:45 Berriak.	18:30 Solaskide.	19:15 Erreportajea.	17:45 Wasemak	17:35 Erreportajea.	17:45 Solaskide.	17:15 Marrazki bizidunak.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:00 Erreportajea.	19:45 Solaskide.	18:15 Musikantoi	18:05 Harmailatik.	18:15 Ur eta lur.	18:00 Erreportajea.
19:45 Goiena Magazinea.	19:30 Elkartasunaren bidean.	20:15 Wasemak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.
20:45 Jazz.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Euskal herria lau haizetara.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.
21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Solaskide.	21:45 Erreportajea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Wazemak.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.
22:15 Solaskide.	22:45 Euskal Herria lau haizetara.	22:45 Elkartasunaren bidean.	20:45 Solaskide.	21:15 Goiena Magazinea.	20:45 Mugaz kanpo.	20:45 Musikantoi.
22:45 Euskal Herria lau haizetara.	22:15 Udaberriko kontzertua Bergaran.	23:15 Ilunpean.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Ilunpean: gari Garaialde.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.
22:45 Musikantoi.	00:15 28 klip.	00:00 Itsasora begira.	22:15 Harmailatik.	23:00 Euskal Herria lau Haizeetara: Nafarroa berdea.	22:15 Erreportajea: Lorentxo Altube.	22:15 Berbaire.
13:45 Goiena Magazinea.	01:00 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	23:00 Erreportajea.	23:30 Goiena Magazinea	22:45 28 Klip.	23:15 Lamien artean.
00:45 Emisio amaiera.			23:30 Goiena Magazinea.	00:30 Emisio amaiera.	23:15 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.

telebegi

Edu Mendibil

'goiena.net/blogak/edu/'

Zap... zap... publi!

Ikusle askok publizitate tarreak aprobetxatzen dituzte *zapping* egiteko, komunera joateko, jateko, seme-alaben arropa plantatzeko, bikoitekide edo maitaleari SMSak bidaltzeko...

TVEEn, udazkenetik aurrera, ez dute horretarako aukerarik emango. Krisia medio, Zapateroren gobernua-ren asmoa zera da: kate pribatuak eta telekomunikazio enpresek *canon* bat ordaintzea. Pribatuak, berriz, kirolei eta AEBetako filmei dagokienez mugak exijituko dizkiote TVEri. Egoera berria izango da. Zenbaitetan, laguntzen duten saioa baino interesgarriagoak izaten dira iragarriak. Hainbat pieza eder badira orain: Renaulten furgoneta zaharrena; Canal Plus-eko *hippyak* (zein onak izan diren beti kate horren promoak); Heineken garagardoa-rena (neskak arropa miresten eta gizonak hozkailuan diren garagardoa); Audirena, San Frantziskoko eskiazailearena (produktua erakutsi beharrik ere ez dute marka handienek)... Sormena ez da krisian. Zap... zap... publi!

Maiatzak 22-29

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



ARETXABALETA

> Debagoieneko musika eskolen emanaldia gaur, egubakoitza, Iturri Gorri

Seigarren urtez, Debagoieneko musika eskolen kontzertua gaur Iturri Gorri, 18:30ean. Eskoriatzako Beheko Errota, Arrasate Musikal, Bergarako Musika Eskola, Oñatiko Jose de Azpiazu, Sorluzeak eta Aretxabaletako Leizarra.

Musika



ELGETA

> Ama Say eta Deabruak Teilatueta zapatuan Elgetako Espaloian

Garai batean makina bat bider jo zuten elkarrekin Ama Say eta Deabruak Teilatueta taldeek. Orain berriz elkartu eta Espaloia Kafe Antzokian emango dute kontzertua. Bihar, zapatua, 22:30ean. Sarrerak, 8 eurotan salgai.

Antzerkia



ARRASATE

> 'Txanobarragorri', errealitetik hurbil dagoen antzezlan

Azeri taldearen antzezlanak duela pare bat urte jazotako bi gertaera hartzen ditu oinarri: 18/98 epaiketa eta tortura eta bortxaketagatik salaketa jarri zuen emakume baten testigantza. Domekan, Amaia antzokian, 19:30ean.

ren Borrokalarien Elkarte Zuzendaritza Probintzialeko presidentearen eskutik.

Martitzenean, hilaren 26an, Miguel Altuna institutuan, 19:00etan. Euskadi-Cuba elkarteak antolatuta.

BERGARA

> 'Exoplanetak, eguzki sistematik kanpoko planetak'

Andreu Font Riberak eta Ane Garces Enerizek egingo dute hitzaldia.

Maiatzaren 28an, 19:00etan, Aroztegi aretoan. Ilatargi Astronomia Elkarteak antolatu du hitzaldia.

Ikastaroak

ARETXABALETA

> Haur masaje ikastaroa

Maiatzaren 25ean eta 28an; ekainaren 1ean, 8an eta 11n, 17:30ean, Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolan. Hilabete batetik lau hilabetera bitarteko haurren gurasoei zuzenduta.

Izenematea edo argibideak 653 72 23 59 telefonon.

BERGARA

> Masaje ikastaroa Jardun elkartearen eskutik

Alaitz Badiolak emango du ikastaroa ekainaren 4an, 11n, 18an eta 25ean, 19:00etatik 21:00etara Aranzadi Ikastolan (psikomotrizitate gelan).

Izenematea maiatzaren 28ra arte Jardunen, Errotalde jauregia. 17 euro Jarduneko bazkideendako, 20 euro gainerakoendako. Argibideak: 943 76 36 61.

Musika

BERGARA

> Morauren kontzertua gaur

Pop emanaldia Zabalotegin. Gaur, egubakoitza, 22:30ean. 3 euro.

ARRASATE

> Naste Borraste, Dirty Akustik Brothers eta Skovers

Hiru talde gaur Arrasateko 3.60 aretoan. Gaur, egubakoitza, 12:30ean. Sarrerak, 12 euro leihatilan.

ELGETA

> Edson Goya gaur Espaloian

Abeslari brasildarraren emanaldia Elgetan gaur. Espaloian, 22:30ean. Sarrera doan.

BERGARA

> Izer, Alabier eta Lutxuridio trikitalariekin erromeria

Munibe plazara dantzara egitasmoaren azken hitzordua zapatuan. Aurretik erromeria-afaria izango da Munibe plazan, 20:30ean.

ARRASATE

> Kubers taldea Gure Lekun

Gasteizko taldea. Bihar, zapatua, Gure Leku tabernan, 23:00etan.

BERGARA

> Piano emanaldia eguaztenean Mariaren Lagundiko elizan

Arrasate Musikaleko ikasleekin batera, Bergarako Musika Eskolako piano ikasleen emanaldia. Eguaztenean, maiatzaren 27an, Mariaren Lagundiko elizan, 18:30ean.

ARRASATE

> Joe Henryren emanaldia hilaren 30ean Arrasaten

Joe Henry estatubatuarren kontzertua datorren zapatuan Amaian, 20:00etan. Sarrerak Servikutxan (943 00 12 00).

Antzerkia

ARETXABALETA

> 'Ate joka' antzezlan eguenean Arkupen

Txalo antzerki taldearen eskutik. Eguenean, maiatzaren 28an, Arkupe kultura etxean, 19:30ean. Sarrera doan.

Erakusketak

BERGARA

> Argazki erakusketak Aroztegin Bergara Hiria lehiaketara

aurkeztutako lan aipagarriak daude ikusgai.


Ekainaren 2ra arte Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitze- ra: 18:00-20:30. Zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30. Domeka eta jai egunetan: 12:00-14:00.

ARETXABALETA

> Eskulan erakusketak

Hainbat artistaren eskulanak Arkupen ikusgai. Arkupe kultura etxean, maiatzaren 31ra arte. Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan 11:00etatik 13:00etara. Domeketan itxita dago Arkupeko aretoa.

PROPOSAMENA



ESKORIATZA

> Macacoren emanaldia Mundumiran zapatuan

Mundumira jaialdiako kontzertu nagusia Macaco talde kataluniarrak eskainiko du. Unibertsitateko aparkalekuan jarriko duten Elkar agertokian izango da bihar, zapatua. Macacoren aurretik, Rude Kanka eta Iban Nikolai ardura-tuko dira giroa berotzeaz: reggae erritmoak txalapartarekin eta Iban Nikolaiaren didjeriduarekin. Gainerako kontzertuak Eskoriatzako plazan izango dira asteburuan.

Mundumira jaialdia asteburuan Eskoriatzan: Korrontzi, Zura, DJ Marek, 17 Hippies, Mlomp, Madera de Choro, Candombe, Bloque 53 eta beste hainbat.

Hitzaldiak

ARETXABALETA

> 'En qué ocupo mi tiempo libre después de jubilarme'

El Taller taldearen eskutik. Arkupe kultura etxean astelehenean, hilaren 25ean, 16:00etan.

BERGARA

> 'Ayer y hoy en la Revolución cubana', iraultzaren 50. urterena ospatzeko hitzaldia

Yoelkis Sanchez kazetariaren eta Jesus Echeverri Camagüey-ko Kubatar Iraultza-

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz

PLANETARIUM BERRIA

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa. Maiatzak 23an, 18tan gaztelaniaz eta maiatzak 24an, 12tan euskaraz.
Itsua izar begiekin: Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat. Maiatzak 23an, 16:15ean gaztelaniaz eta maiatzak 24an, 17:00etan euskaraz.
Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa. Maiatzak 23an, 13:00etan gaztelaniaz.
Infinity Express: Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia. Maiatzak 24ean, 13:00etan gaztelaniaz.
Kartoizko suziriaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa. Maiatzak 23an, 17:00etan euskaraz eta maiatzak 24ean, 16:15ean gaztelaniaz.
Eboluzioa (Berria!) Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu. Maiatzaren 23an, 12:00tan euskaraz eta maiatzaren 24an 18:00tan gaztelaniaz.

ETA GAINERA...

Elektrizitate ikuskizuna: Ilek puntan jarriko dizkizun esperientzia.
Planetarium Txikia: 4-8 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten
Simulagailuak: Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

ARETXABALETA

> **Dantza libre topaketak hilean behin**

Jaiki elkarteak dantza libre topaketak antolatu ditu. Isabel Altzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabete behin, eguenean izango dira, 18:00etatik 20:30era.

Maiatzaren 28an izango da hurrengo saioa. Izenematea 669 05 80 33 telefonoan edo jaikielkartea@yahoo.es helbidean egin daiteke.

ARRASATE

> **Esulan ikastaroa eta makillaje ikastaroa**

Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik. Eskulan ikastaroa martitzenero: 15:30-17:30 edo 18:00-20:00 (ekainaren 16ra arte).

Argibideak 943 79 83 70 telefono zenbakian.

ARRASATE

> **'Gure erotismoa: gorputzaren hizkuntza' ikastaroa**

Arrasateko Emakume Txokoak antolatuta, maiatzaren 22an eta 23an.

Izenematea eta argibideak 943 79 41 39 telefonoan edo emakumetxokoak@arrasate-mondragon.net helbidean.

ARRASATE

> **Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez**

Txindoki dorrean (Bañez Dokorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenean 19:00etatik 20:30era.

Argibideak eta informazioa ondoko telefonoetan: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABALETA

> **Hainbat ikastaro egiteko aukera Arkupen**

Eskulanak, pintura, zeramika, fieltroa, fimoa, artile kardatua eta swaroski kristalak.

Argibideak Arkupe kultura etxean, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

Lehiaketak

ARRASATE

> **Film labor lehiaketa deitu du Emakume Txokoak**

Arrasateko Emakume Txokoak film labor lehiaketa antolatu du. Emakumeengana-ko biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarriari baka-rrik aurkez daitezke eta bakar-ka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte izango da zabalik. Argibideak 943 79 41 39 zenbakian.

LEKEITIO

> **Euskal Zine eta Bideo Bilera Lekeition**

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskaraz. Lanak entregatzeko epea irailaren 11ra izango da zabalik.

Argibideak 94 624 34 82 telefono zenbakian edo www.bideobilera.com webgunean.



Nunca es tarde para enamorarse **

Zuzendaria: Joel Hopkins.
Aktoreak: : Dustin Hoffman, Emma Thompson. AEB, 2008. 92 min.

Ukitu dramatikoak izan arren, batez ere komedia erromantikoa da filma. Istorioaren protagonista bikote heldu bat da, Dustin Hoffmanek, gutxienez, Emma Thompsonen baino 20 urte gehiago izan arren. Gizona AEBetatik Londresera doa alabaren ezkontzara. Egokitu ezinik dabil: banandua eta lana eta bizitza kili-kolo. Emakumea Londresen bizi da, bakar-ti, amaren zain eta zailtasunekin harreman sentimentalei aurre egiteko.

Lehenengo zatian, paraleloan, bakoitzak daraman bizi-modua ikus dezakegu, bien eszenak tartekatuz doaz eta, noizbehinka, momentu baten elkartuko direla adierazten duten erdi topaketa batzuk daude. Zati honetan ukitu dramatikoek indarra dute, oso ondo islatzen da pertsonaiek sentitzen duten desplazamendu emozionala; adibidez, Kate-ri lagunak antolatzen dion elkartze sentimentaleko eszena. Baina gero, bigarren zatia, aktoreen lanari esker eszena ederrak izan arren, konbentzionalagoa da.

Agian, gidoilariak kontatzen duen amodio istorioa sinpleegia edo ilunegia dela pentsatuko zuen eta honi osagai eta kolpe efektu gehiegi sartzen dizkio: auzotar poloniarren istorioa soberan dago; lanaren arazoaren konponketak eta arritmiaren eszenak filmaren ukitu konbentzionala nabarmentzen dute, eta abortuaren aipamenak, eszena hori Emma Thompsonen ondo egiten badu ere, behartuegia ematen du. Komedia gazi-gozo honetan gozoa nabarmentzen da eta horrek indarra kentzen dio azken emaitzari.

Zalantzarik gabe, aktoreen filma da. Dustin Hoffman eta Emma Thompson elkarrekin oso ondo moldatzen dira. Euren interpretazioekin filmaren momentu konbentzionalenak hobe bihurtzen dituzte eta, azken finean, filma komedia atsegina izatea lortzen dute.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

Gran Torino
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Dragonball evolution
Zapatua: 17:00.

Rape for who I am
Eguena: 20:30.

ARRASATE

KULTURATE

La revolución de los cocos eta Los niños de plomo
Astelehena: 19:30.

Tambogrande eta Tekoha
Eguaztena: 19:30.

Patagonia petrolera
Eguena: 19:30.

Arrasateko Udalak Ekologistak Marxian taldearekin batera antolatutako Ekozinemaldiaren barruan.

ÓNATI

KULTURA ETXEA

La sombra del poder
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

BERGARA

ZABALOTEGI

El tren de las 3:10
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

Speed racer
Zapatua eta domeka: 17:00.

Optimistas
Eguena: 20:00.

ARAMAIO

KULTURA ETXEA

Australia
Egubakoitza: 22:15.

Alvin y las ardillas
Domeka: 17:00.

EIBAR

UNZAGA

Ángeles y demonios
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

GASTEIZ

GURIDI

Hanna Montana: la película
16:30, 18:30, 20:30 (zapatua eta domekan).

Ángeles y demonios
17:00, 19:45, 22:30.

Sukalde kontuak
17:30, 20:00, 22:30.

La reina Victoria
22:30.

Star Trek
17:00, 19:45 (zapatua eta domekan).

Carmo
16:30, 18:30, 20:30, 22:30 (zapatua eta domekan).

Billu Barber
22:30.

Seraphine
17:30, 20:00, 22:30.

Noche en el museo 2
17:30, 20:00, 22:30 (zapatua eta domekan).

FLORIDA-GURIDI

Munduaren bira, doan!
18:00, 22:30.

Cosas insignificantes
20:15.

Nunca es tarde para enamorarse
17:30, 20:00, 22:30.

Génova
18:00, 20:15.

Good
18:00, 20:15, 22:30.

Destellos de genio
22:30.

Vacaciones de ferragosto
18:00, 20:15, 22:30.

Como celebré el fin del mundo
17:30, 20:00, 22:30.

Sueños de juventud

17:30, 20:00, 22:30
Egubakoitzetik domekara.

YELMO-GORBEIA

Star Trek
15:30 (zapatua eta domekan), 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.

Ángeles y demonios
16:00 (zapatua eta domekan), 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 23:30, 00:40.

Noche en el museo 2
16:15 (zapatua eta domekan), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Vamos a la luna
15:40 (zapatua eta domekan), 17:30.

X-Men orígenes: lobezno
16:00 (zapatua eta domekan), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

17 otra vez
16:35 (zapatua eta domekan), 18:35, 20:35.

La reina Victoria
22:35, 00:35.

Hanna Montana: la película
15:45 (zapatua eta domekan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

The International
20:00, 22:10, 00:20.

Fuga de cerebros
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Winkyren zaldi magikoa
15:55 (zapatua eta domekan).

Monstruos contra alienígenas
15:45 (zapatua eta domekan), 17:45.

Al final del camino
19:45, 21:45, 23:45.

Fighting: puños de asfalto
16:10 (zapatua eta domekan), 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

Ponyo en el acantilado
16:00 (zapatua eta domekan), 18:00.

La montaña embrujada
16:15 (zapatua eta domekan), 18:15.

Gran Torino

17:45, 19:55, 22:05, 00:15.
La sombra del poder
19:15, 21:45, 00:15.

Slumdog millionaire
20:10, 22:20, 00:30.

Más allá de los sueños
16:20 (zapatua eta domekan).

Maiatzaren 22tik 28era. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatua.

ÁBACO BOULEVARD

Ángeles y demonios
16:30, 17:00, 19:20, 19:45, 22:15, 22:30, 01:00.

Noche en el museo 2
16:00, 16:20, 18:05, 18:25, 20:15, 22:20, 22:35, 00:30.

Star Trek
17:00, 19:40, 22:15, 00:45.

Gran Torino
20:20, 22:35.

Fuga de cerebros
16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:45.

Nunca es tarde para enamorarse
20:30, 22:20, 00:30.

Fighting: puños de asfalto
20:20, 22:30, 00:45.

X-Men orígenes: lobezno
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

La montaña embrujada
16:10, 18:15.

17 otra vez
16:15, 18:15.

Hanna Montana: la película
16:00, 16:15, 18:00, 18:20, 20:10, 20:30, 22:15, 22:20, 00:30.

Monstruos contra alienígenas
16:15, 18:10.

La sombra del poder
20:10, 22:35, 01:00.

Maiatzaren 22tik 28ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatua.

nire aukera



Saioa Alzua Ibarraundi museoko langilea

Mundumira eta lana uztartuz

Mundumira jaialdia dela eta, aste bukaeran lan egitea egokitu-tuko zaie Saioa Alzuari eta haren lankideei. Bisita gidatuak eskainiko dituzte, eta, horrez gain, bi erakusketa ikusgai daude egunotan Eskoriatzako museoan: Lorentxo Altube arrasatearraren musika tresnak eta Pascal Dione artista senegaldarraren koardro eta eskulturak.

Azken zortzi urteotan Ibarraundin lanean dihardu Saioa Alzua arrasatearrak. Aste bukaeran, lanak uzten dizkion tartetxoetan, Mundumira jaialdiarekin disfrutatzeko gertu dago.

Mundumirako egitarauko ekitaldiren bat gorritz markatuta daukazu, ala?

Egia esan, oraindik ez dut aukerarik izan egitaraua ondo aztertzeko. Aste barruan bakarrik zabalten dugu, baina Mundumiragatik aste bukaeran zabalduko dugu oraingoan. Dena dela, lana bukatutakoan aprobetxatuko dugu bueltatxo bat emateko eta giroaz disfrutatzeke, horrelako aukerak ez direlako maiz sortzen Eskoriatza moduko herri baten... Libre daukadanean parean tokatzen daukizkidan ekitaldiak ikusiko ditut, lagunekin.

Museoen nazioarteko eguna ospatu berri da...

Bai, baina ez dugu ezer berezirik antolatu horren gainean.

Badaukazu beste museoak bisitatzeko ohiturarik?

Bai, norabait egun pasa joaten garenean batzuetan sartzen gara museotara baita...

Aste bukaera baterako plan on bat?

Mendira joatea gustatzen zait, aldarrikapenerako tartetxo bat ere uzten dut normalean, eta lagunekin egon.

Udarako plana eginda?

Oraindik ez... Denda autoan sartu eta mendi aldera joango gara, ziurrenik. Iaz Asturias aldean ibili ginen...

Edu Mendibil



La sombra del poder ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Kevin MacDonald. Aktoreak: Russell Crowe, Ben Affleck, Jason Bateman. 127 min. Stephen Collins kongresista bere alderdiko izarra da, eta hurrengo hauteskunde-etan presidentetzarako hautagaia izango dela uste dute. Haren laguntzailea hiltzen dutenean gauzak korapilatu egingo zaizkio Collinsi. McCaffrey kazetariak kasua ikertu beharko du...

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Lejos de la tierra quemada ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Guillermo Arriaga. Alejandro Gonzalez Iñárritu (Amores perros) gidoigile izandako Guillermo Arriagaren lehenbiziko filma. Jatetxe bateko gerentea da Sylvia (Charlize Theron), lanean eta bizitzan bi aurpegi erakusten dituen. Goiz ala berandu bere iraganari aurre egin beharko du...

El curioso caso de Benjamin Button *****
AEB, 2008. Zuzendaria: David Fincher. David Fincher zuzendariaren (*Zodiac*) azken lana Oscarretako galtzaileetako bat izan genuen, bigarren mailako hiru sarirekin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaioko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu...

The reader
AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry. Michael Berg 15 urteko gaztea gaitxo egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna.

25 kilates
Espainia, 2008. Zuzendaria: Patxi Amekua. Zorrak ordaindu ez dituztenei kobratzen egiten du lan Abelek; autok lapurtzen ibiltzen da Kay; haren aita Sebask lapurtutako gauzak erosten ditu; Garro lapurreten aurkako brigadako inspektorea da... Azken kolpearen zain daude denak.

Oscar saria Kate Winslet protagonizatendako.

Gran Torino ****
AEB, 2009. Zuzendaria: Clint Eastwood. Walt Kowalski Koreako gerrako soldadu ohi bat da. Egun batean des-kubrituko du bere aitxor preziazue-na lapurtu nahi diola Asiako jatorri-ko bizilagun nerabe batek: 1972ko Gran Torino autoa. Arrazismoaren inguruko drama.

Ponyo en el acantilado
Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki. Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrinariaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizi-dunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

Liburuak, berbetarako aitzakia

'BOOK CLUB'-A Anabella Wholloshinek ingelesezko liburuak irakurri eta komentatzeko taldea eratu nahi du Oñatin

HILABETERO Nobela bat irakurriko dute eta hilean behin egingo dute hitzordua lagun artean ingelesez berba egiteko

MAILA Ulertzeko eta elkarrizketarekin gozatu ahal izateko komeni da First Certificate ingeles maila izatea

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI
Annabella Wholloshin Londreskoa da, baina lanak ekarri zuen gurera, Oñatira. Londresen bizi zenean *book club* bateko kide zen eta orain horrelako bat antolatu nahi du Oñatin. "Hilean behin elkartzen ginen. Liburuak irakurtzen genuen eta gero afaltzeko elkartu, eta afalostean hitz egiten genuen liburuaz, nolabait hitzorduari alde soziala emanez", azaldu digu Annabellak.

tukoa izan den ala ez, estiloa, gaia... Liburu bakoitzak lagun bakoitzarengan ideia ezberdinak sor ditzake. Hasieran laguntza pixka bat beharko du jendeak, baina asmoa da liburutik abiatu eta eztabaida beste gai batzuetara zabaltzeko eta ingelesez hitz egiteko aitzakia izatea", dio.

Edozein adinetako jendearendako da, baina elkarrizketan gozatzeko komenigarria da First Certificate ingeles maila izatea.

INGELESEZ, MODU NATURALEAN
Gurean horrelako bat sortzeko ideia nola bururatu zaion galdetuta, hauxe esan digu: "Irudipena dut nahiko jende dagoela ingeles badakiena eta lanean erabiltzen duena. Beharbada, nahi dute ingelesa erabili ahal izateko inguru informala izatea, eta horretarako bide izan daiteke *book club*-a. Modu naturalean, lagun ingelesak izango balituzte moduan, berba egiteko gune bat".

NOBELAK
Lehen saioa ekainaren 15ean izango da eta Ian McEwanen *Enduring love* eleberria aukeratu du. "Eskertuko nuke hurrengoetarako jendeak proposamenak ekartzea", dio. Tokia ere elkartzen den jende kopuruaren arabera erabakiko dute, "elkarteren batean, etxeren batean...". Izan ere, badira jadanik interesa azaldu duten hainbat lagun.

Ingelesezko liburu bat irakurriko dute hilean. "Liburuaren gainean edozer esan daiteke: gus-

Parte hartzeko, 680 97 24 17 telefono zenbakira deitu edo helbide honetara idatz daiteke: oinatibookclub@gmail.com.



TALDEA Anabella Wholloshin hilean behin elkartuko da nahi duten zaleekin ingelesez eleberriez berba egiteko. I. AGIRREAZALDEGI

ahobero

"Batasunoen artean mozorrotuta ikaratu baino ikaragarri ondo pasatzen dut"

Yolanda Barcina > UPNko presidentea

Mozorroak estaltzen omen du Union del Pueblo Navarrok presidentearen ikara, baina, mozorroa bere babesa den moduan, beste inor ikaratu baino haiek barre egiteko arrazoia ez al da izango? Politikariek euren esana maiz mozorrotzen duten seinale.

iturri onetik

Ekainaren 7an 'cross-country' motor lasterketa izango da Bergaran

Gipuzkoako Erreal Moto Elkarteak antolatuta, datorren ekainaren 7an (domeka), Gorko Igoeraren hurrengo egunean, *cross-country* motor lasterketa izango da, goizez, Angiozarrerako bidean, lehen osina zegoen tokian. Aurreikuspenen arabera, 80-90 lagunek hartuko dute parte eta moto-kros eta enduro proben arteko konbinazioa da. Bestalde, San Martin jailetan moto-krosa izango da.

piperrautsa


Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Woka

Asteon tokatu zait Arrasateko Kulturaren gainbegiratzea Kutxak antolatutako topaketa bat. Ia 30 bezero eta lankide jarri genituen taldeka, kafe batekin berriketan krisiaren aterabideez. Esperientzia interesgarria izan da.

Normalean ohitu egin gara arazoak agintarien ardurapean lagatzen, haien porrota noiz iritsiko guk egurtu ditzagun. Aldiz, Kulturaren bestelako jarrera nabaritu nuen, jendea aktibo agertu zen, ekimenetan inplikatzeko gogotsu, sakrifizioak egiteko prest. Ez da hori bera formula txarra krisiari aurre egiteko: gutariko bakoitza erne jartzea, ingurukoekin lankide eta umil puntu batekin. Agian datu ekonomikoak ez dira lehengora itzuliko, baina gu –personak, jendartea, herria– irten gaitezke zulotik indarberrituta.

ai, ene!



Komuna etxeko balkoian, usainetatik salbu

Larrialdian kanpoan, estalperik gabe txiza edo kaka egitea bai, baina larri behar du benetan komuna etxetik kanpo ipintzeko.

www.sarda.es

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

MAIATZAK 28 - 17:30 osteguna **2.zikloa**

ARRASATE-MONDRAGÓN AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 28 - 18:00 osteguna

IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoae.teo.mondragon.edu

izena emateko epea zabalik ekainaren 19ra arte